



AVD·ZEA

Academia
Vasca de
Derecho

Zuzenbidearen
Euskal
Akademia

BIDEAREN EUSKAL AKADEMIA / ALDIZKARIA • BO
ZKARIA • BOLETÍN DE LA ACADEMIA VASCA DE DER
SCA DE DERECHO • ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKAD
KAL AKADEMIA / ALDIZKARIA • BOLETÍN DE LA ACAD

ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA / ALDIZKARIA • BO
Y ALDIZKARIA • BOLETÍN DE LA ACADEMIA VASCA DE DE
MIA VASCA DE DERECHO • ZUZENBIDEAREN EUSKAL AK
EUSKAL AKADEMIA / ALDIZKARIA • BOLETÍN DE LA



Aldizkaria

IV. URTEA • 10.zk • BILBAO • 2006ko AZAROA
AÑO IV • N. 10 • BILBAO • NOVIEMBRE 2006

Boletín

Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako argitaraldia
Edición patrocinada por la Excm. Diputación Foral de Bizkaia



AVD·ZEA

Academia
Vasca de
Derecho

Zuzenbidearen
Euskal
Akademia

ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA ALDIZKARIA

IV. urtea - 10. zk. - Bilbo - 2006ko azaroa
Año IV - Nº 10 - Bilbao - Noviembre de 2006
ISBN: 84 896 8919 9 - L.G./D.L.: BI 1677-03

Aurkibidea

Artikuluak

1. **2006. URTEKO ALDAKETAK BIZKAIKO ZERGETAN**, Alberto Atxabal Rada 7
2. **ENPRESA BERRIA SOZIJETATE MUGATUA (SLNE). HORREN ESTATUTUAK**, Eba Gaminde Egia..... 27
3. **SENIPARTEDUNAK NORTZUK DIREN ETA SENIPARTE GISA ZENBAT DAGOKIEN GALIZIAN, AZKEN ERALDAKETAZ GEROZTIK**, Esther Urrutia Idoiaga..... 37
4. **JOSE ANTONIO IRAZUSTA MUNOA, LEGELARIA ETA EUSKAL IDAZLEA (1884-1952)**, Andrés Urrutia Badiola..... 55
5. **EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGI BATUA (2. ITZULIA: A, B, C LETRAK) ETA EUSKARAZKO TERMINOLOGIA JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA: EZAUGARRIAK ETA JOKAERAK**, Andrés Urrutia eta Esther Urrutia.....71

6. **1805eko ERMANDADEKO ARAUDIA**
EUSKARAZ, Cesar Gallastegi Aranzabal..... 111
7. **1789ko LAPURTAREN KAIERA**,
 Arantza Etxebarria eta Cesar Gallastegi..... 125
8. **ALDI BATERAKO LAN-KONTRATUAK**
KATEATZEAREN INGURUKO MUGAK 2006ko
LAN-ERALDAKETAN, F. Javier Arrieta Idiakenez..... 151

Liburuak

9. **HIZKERA JURIDIKOA ETA ITZULPENGINTZA:**
EUSKARAREN NORABIDEAK,
 Santiago Larrazabal eta Eneko Oregi.....167
10. **LEY DE ENJUICIAMIENTO CRIMINAL/**
PROZEDURA KRIMINALAREN LEGEA,
 Aiora Aristondo, Gotzon Lobera, Andrés Urrutia
 eta Esther Urrutia..... 171
11. **LEGISLACIÓN CONCURSAL/**
KONKURTSO-LEGERIA,
 Aiora Aristondo, Gotzon Lobera, Andrés Urrutia
 eta Esther Urrutia..... 175

Albisteak

12. **AKADEMIAREN ALBISTEAK**,
 Xabier Oleaga..... 179



Zorroen Kudeaketa Zure ondarearentzako balio berria

BBKren helburua da zure ondarearen kudeaketa balio orantsia ematea; honetarako, profesionaltasunez aholkatzeaz gain, merkatuko produktuak onenak eskainiko dizkizugu, eta finantza- eta zerge-arloari orientagarritasunik onena erortuko duzu.

BBK Banka Pertsonaleko bezero pisa, kontuamizako profesionalak izango dituz zure eskuak, eta bank Elikatuko ditu. BBK-k aldiadituaren sinergia guztiak honela, une bakoitzean, zure beharera eta zure ondarearen ezaugarrietara guztiz egokitzeko finantza- eta zerge-plangintza eskainiko dizugu.

Banka Pertsonala

bbk⁺

2006. URTEKO ALDAKETAK BIZKAIKO ZERGETAN

Beste behin ere, 2006. urtean zergen arauketa aldatu egin da Bizkaian. Edozein kasutan, aurten aldaketa horiek ez dira hain esanguratsuak izan, aldaketok zergaz zerga aztertzen baditugu, behinik behin. Eraldaketa handia gainean daukagula kontuan hartu beharko litzateke, agian, aldaketa gutxi horien zergatia azaltzeko. Foru Aldundiek lanean dihardute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zerga eraldatzeko. Badirudi azken egunotan akordioa lortu dutela eta laister jakinaraziko digutela 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean izango den arauketa.

Beste alde batetik, Tributuen Foru Arau Orokor berria indarrean jarri zen 2005eko uztailaren 1ean eta berau garatzeko araudiak banan-banan landu eta onetsi izan dira. Araudietako batzuk 2005ean indarrean jarri ziren, hala nola, ikuskapen prozedura, prozedura zehatzaile, kontsulta idatzi edota lege-maulari buruzkoak. Beste araudi batzuk, oster, 2006ra arte ez dira indarrean jarri, zerga-bilketa (abenduaren 27ko 215/2005 Foru Dekretua) eta berrikuspen prozedurena (abenduaren 27ko 228/2005 Foru Dekretua), hain zuzen. Bi araudi horiek iazko abenduaren azkenetan argitaratu ziren baina aurten jarri dira indarrean. Gauza bera gertatu da Toki Ogasunei buruzko Foru Arau berriarekin (abenduaren 16ko 9/2005 Foru Araua). Baita zergen kontu korronte-

aren sistemarekin (abenduaren 28ko 3.429/2005 Foru Agindua). Aurten indarrean jarri badira ere, ez dira kronika txiki honetan jorratuko arau berri horiek dakartzaten aldaketa guztiak sakon aztertu beharko lirakeelako, eta hori ezinezkoa da lerro labur hauetan. Hurrengorako utzi beharko dugu.

Egia esateko, aldaketa horietako batzuk halabeharrez jaso behar izan ditu Bizkaiko legegileak, araurik edo manurik gabe geratu delako, hain zuzen, Sozietateen gaineko Zergaren kasuan. Beste kasu batzuetan, ordea, kopuruak eguneratu dira, horiek inflaziora egokitzeko. Azkenik, benetako aldaketak geratuko lirake, esaterako, gasaren edo elektrizitatearen emateak BEZaren esparruan, BEZaren prorrata kalkulatzeko erregela berriak, Europako pentsio planen araubide fiskala parekatzea Estatu barruko pentsio planen fiskalitatearekin edota etxebizitzaren errentamendua bultzatzea.

1. SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN ARAZOA

Auzitegi Gorenak, 2004ko abenduaren 9an emandako epaiaren bitartez, Foru Lurraldeetako Sozietateen gaineko Zergaren hainbat artikuluko deusezak direla adierazi zuen. Epai hori bete nahian, Bizkaiko legegileak 2005erako berriro idatzi eta onetsi zituen manu horiek. Horien artean, zergaren karga-tasa orokorra %32,5 ezarri zuen berriro (epaiak deuseztu baitzuen karga-tasa hori, Europako Zuzenbidearen aurkakoa zelakoan), baina gure inguruko autonomia erkidegoek errekurtsioak jarri zituzten (Errioxak, Kantabriak eta Gaztela-Leonek, hain zuzen) karga-tasa arautu berri horren aurka eta Euskal Autonomia Erkidegokoa Auzitegi Nagusiak, 2005eko urriaren 21eko eta azaroaren 14ko bi autoen bidez, kautelaz eten zuen karga-tasa horren eragingarritasuna, eta geroago berau deuseztu.

Hori dela-eta, Bizkaian 2005eko zergaldirako ez zen karga-tasa onetsirik eta zergadunek ezin zuten zerga ordaindu. Egoera hori bideratzeko, Aldundiek foru dekretu arauemaileen bitartez, 2005eko abenduaren 31n, karga-tasa berria onetsi zuten aurreko karga-tasa puntu batean igotzea erabaki baitzuten (%32,6). Karga-tasa berria 2005eko zergaldi osoari aplikatu

tu ahal zaio, baita 2006koari ereizateko. Batzar Nagusiek geroago baieztatu zuten Aldundiek hartutako neurria. Gure inguruko autonomia erkidegoek berriro ere errekursoak jarri zituzten arauketa horren aurka baina, oraingo honetan, EAEko Auzitegi Nagusiak, karga-tasa deuseztu aurretik, Europako Erkidegoetako Auzitegiari bere irizpidea eskatu dio. Izan ere, 2006ko irailaren 6an Europako Auzitegiak Azores uharteetako araubide fiskala aztertu zituen eta Europako erregioen fiskalitateari buruzko irizpideak ezarri, lehendabiziko aldiz. Itxuraz, behintzat, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko arauketa fiskalek irizpide horiek betetzen dituzte. Guk ezin dugu epai hori jorratu artikulu honetan, luzeegia joko bailuke.

Dena den, idazketa berri hori ere behin-behinekoa da, Foru Aldundiek zergaren eraldaketa sakona aurrera eramanez baitute eta 2007an indarrean jarriko da.

2. ARAU ALDATZAILEAK

Orain arte esan bezala, azken hilabeteetan zehar zergen arauketa aldatu da Bizkaian, arau berri batzuen bidez. Aldaketak onesteko arauok honakoak izan dira, hurrenez hurren:

1. Azaroaren 28ko 179/2005 Foru Dekretua (BAO, 237. zk., 2005eko abenduaren 15ekoa). Dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zatikako ordainketen arauketa aldatu du. Horrekin batera, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Araudian eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Araudian egokitzapenak sartu ditu.

2. Azaroaren 28ko 180/2005 eta 178/2004 Foru Dekretuak (BAO, 237. zk., 2005eko abenduaren 15ekoa).

Lehenengo dekretuak arautu ditu Sozietateen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eguneratze-koefizienteak. Koefiziente horiek erabili behar dira ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko. 2006an ondasun edo eskubiderik eskualdatuz gero, horien eskuraketa balioa eguneratu behar da koefiziente horiek erabilita, inflazioaren eragina zati batean, bada ere, ezabatzeko.

Bigarrenak, oster, PFEZren laneko etekinen atxikipenak kalkulatzeko, 2006rako atxikipen-taula ezarri du.

3. Abenduaren 29ko Bizkaiko Aurrekontu Orokorrei buruzko 12/2005 Foru Araua (BAO, 248. zk., 2005eko abenduaren 30ekoa).

Lurralde Historikoaren sarrera eta gastuak ezartzeaz batera, zerga batzuetan jaso diren kopuru finkoak egokitu dira, inflazioaren eragina aintzat hartuta. Horrela gertatu da kenkari, tarifa edo zenbateko salbuetsi batzuekin.

4. Abenduaren 30eko 1/2005 eta 2/2005 Foru Dekretu Arauemaileak (BAO, 249. zk., 2005eko abenduaren 31koa).

Lehenengoak auzitegiak deuseztutako Sozietateen gaineko Zergaren artikuluei idazketa berria eman die. Bigarrenak, oster, Tributuen Foru Arau Orokorrak ezarritako aukera baliatu du. Izan ere, Arau Orokorren 8. artikulua Aldundiak Estatuko arau berdina ezarri behar dituenetan Foru Arauaren besteko indarrez Foru Dekretu Arauemaileak eman ditzake. Oraingo honetan, Aldundiak horrela egin du Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergan Estatuak sartutako aldaketak Bizkaian ezartzeko.

5. Martxoaren 21eko 1/2006 Foru Dekretu Arauemailea (BAO, 65. zk., 2006ko apirilaren 3koa).

Estatuak BEZaren arauketan sartu zituen aldaketak Bizkaiko arautegia ekarri ditu Foru Dekretu Arauemaileen bidez.

6. Apirilaren 11ko 2/2006 Foru Dekretu Arauemailea (BAO, 80. zk., 2006ko apirilaren 27koa).

Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak 2005eko urriaren 6an emandako epaia bete da, BEZaren prorrataren erregela modu egokian aplikatzeko.

7. Apirilaren 25eko 72/2006 Foru Dekretua (BAO, 83. zk., 2006ko maiatzaren 3koa).

Dekretu horrek hainbat zergetako araudiak aldatu ditu. Horrela, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren araudiak aldatu dira, baita prozedura zehatzaileko araudia ere.

8. Ekainaren 20ko Zerga-neurriei buruzko 1/2006 Foru Araua (BAO, 125. zk., 2006ko ekainaren 30ekoa).

Foru Arau honek aldaketa batzuk sartu ditu, baina, lehen esan bezala, ez dira hainbesterako izan 2006an. Hori azaltzeko orduan, agian, kontuan hartu beharko litzateke datorren urterako, 2007rako, bi zerga nagusien eraldaketa handia iragarrita dagoela, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena eta Sozietateen gaineko Zergarena, hain zuzen. Horregatik, aurten ez dute aldaketa handirik sartu nahi izan, eta datorren urteari itxaron beharko diogu.

9. Irailaren 19ko 4/2006 Foru Dekretu Arauemailea (BAO, 187. zk., 2006ko irailaren 29koa).

BEZaren esparruan, aseguru, berraseguru eta kapitalizazio eragiketaren salbuespena egokitu du 2002/92/CE Zuzentaraura.

Aldaketa guztien ikuspegi sistematikoa edukitzeko, zergaz zerga begiratuko ditugu 2006rako berrikuntzak Bizkaian.

3. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

3.1. Laneko etekinak

Europako Batasuneko pentsio planen araubide fiskala parekatu da Estatu barruko pentsio planen fiskalitatearekin. Horiek horrela, Europako Batasuneko pentsio planetara enpresaburuak ekarpenak egin baditu langilearen izenean, lan-etekinak dira gauzatan ordainduta. Gauzazko ordainketa horren balorazioa izango da enpresaburuak benetan ordaindu duena. Era berean, pentsio plan horietatik jasotako prestazioak beti kalifikatuko dira lan-etekin bezala.

Bidai-gastuetarako dietak eta ordainketak direla-eta, mantenu eta egonaldia Espainian bada, gastu salbuetsia igo da: etxetik kanpo lo eginez gero, 53,34 euro eguneko, eta etxean lo eginez gero, 26,67 euro eguneko. Gainerako kopuru salbuetsiak ez dira ukitu.

Azkenik, atxikipen-taula berria onetsi da:

Urteko etekina		Ondorengo kopurua						
Eurotik	Euroraino	0	1	2	3	4	5	Gehiago
0,01	8.820,00	0	0	0	0	0	0	0
8.820,01	9.370,00	1	0	0	0	0	0	0
9.370,01	10.000,00	2	0	0	0	0	0	0
10.000,01	10.730,00	3	1	0	0	0	0	0
10.730,01	11.490,00	4	2	0	0	0	0	0
11.490,01	12.040,00	5	3	1	0	0	0	0
12.040,01	12.640,00	6	4	2	0	0	0	0
12.640,01	13.310,00	7	5	3	0	0	0	0
13.310,01	14.050,00	8	6	4	1	0	0	0
14.050,01	14.880,00	9	7	5	2	0	0	0
14.880,01	15.810,00	10	8	7	4	0	0	0
15.810,01	17.250,00	11	10	8	5	2	0	0
17.250,01	19.360,00	12	11	9	7	4	0	0
19.360,01	21.230,00	13	12	10	8	5	2	0
21.230,01	23.330,00	14	13	12	10	7	4	0
23.330,01	25.530,00	15	14	13	11	9	5	0
25.530,01	28.190,00	16	15	14	12	10	7	0
28.190,01	31.450,00	17	16	15	14	12	9	1
31.450,01	34.880,00	18	17	16	15	13	11	4
34.880,01	37.220,00	19	18	17	16	15	12	6

Urteko etekina		Ondorengoan kopurua						Gehiago
Eurotik	Euroraino	0	1	2	3	4	5	
37.220,01	39.860,00	20	19	19	17	16	14	8
39.860,01	42.920,00	21	20	20	19	17	15	10
42.920,01	46.490,00	22	21	21	20	19	17	11
46.490,01	49.770,00	23	22	22	21	20	18	13
49.770,01	52.710,00	24	24	23	22	21	19	15
52.710,01	56.000,00	25	25	24	23	22	21	16
56.000,01	59.750,00	26	26	25	24	23	22	18
59.750,01	64.020,00	27	27	26	25	24	23	19
64.020,01	68.750,00	28	28	27	27	26	24	21
68.750,01	72.600,00	29	29	28	28	27	26	22
72.600,01	76.880,00	30	30	29	29	28	27	24
76.880,01	81.710,00	31	31	30	30	29	28	25
81.710,01	87.210,00	32	32	31	31	30	29	26
87.210,01	93.480,00	33	33	32	32	31	30	28
93.480,01	100.720,00	34	34	33	33	32	32	29
100.720,01	109.200,00	35	35	34	34	34	33	30
109.200,01	119.170,00	36	36	36	35	35	34	32
119.170,01	130.520,00	37	37	37	36	36	35	33
130.520,01	144.260,00	38	38	38	37	37	36	35
144.260,01	161.230,00	39	39	39	38	38	37	36
161.230,01	Hortik aurrera	40	40	40	39	39	39	37

3.2. Ondasun higigarrien kapitalaren etekinak

Sozietateen gaineko Zergaren araubide bereziko sozietate-ek, etxebizitza-errentamenduko sozietateek, banatutako dibidenduari ez zaio aplikatzen arau orokorra, hots, ez da zerga oinarrian

horren %140 aitortzen geroago %40 hori kenkari bezala kuotatik kentzeko. Horren ordean, zerga oinarrian den bezalakoa aitortzen da (%100) baina gero ez du kenkarirako eskubiderik ematen.

3.3. Ondare irabazi eta galerak

2006an ondasun eta eskubideak eskualdatuz gero, horrelakoetan izaniko irabaziak eta galerak kalkulatzeko, eguneratze-koefizienteak ezarri dira ondasun edo eskubide eskualdatuaren esku-raketa-balioa eguneratzeko. Honakoak dira koefiziente berriak:

Ekitaldiak	Koefizienteak
1994 eta aurrekoak	1,307
1995	1,388
1996	1,337
1997	1,307
1998	1,278
1999	1,243
2000	1,201
2001	1,156
2002	1,115
2003	1,085
2004	1,053
2005	1,020
2006	1,000

Aurrekoaz gain, inbertsio fondoetako partaidetzek kotizatzen badute, eta partaidetzak eskualdatu badira irabaziak lortuz, orduan ez da atxikipenik izango. Baina inbertsio fondo kotizatuetan, ez da onartzen zergaren ordainketa atzeratzea, fondoan artean traspasoak egiten direnean.

3.4. Zerga oinarri orokorra

Zerga oinarri orokorraren txikipena eguneratu da, baterako aitortpena aurkezten denerako:

a) Famili unitatea osatzen badute senar-emazteek edo izatezko bikoteek, txikipena 3.746 eurokoa da.

b) Famili unitatea bestelakoa bada, hots, guraso batek eta adingabeko seme-alaba guztiek osatzen badute famili unitatea, txikipena 2006an 3.288 eurokoa da.

Aurrekoarekin batera, pentsio planetara eginiko ekarpenengatik txikipena ere badago, eta 2006tik aurrera, txikipena aplikatu ahal izango dute Europako Batasuneko pentsio planetara ekarpenak egin dituztenek, Estatu barruko ekarpenetarako ezarri diren muga berdinak errespetatuz gero.

3.5. Zergaren tarifa

Alor honetan, zergaren tarifa eguneratu da. Eguneratzea %2an egin da, hori izan baitzen inflazioaren tasa ofiziala iaz. Horrenbestez, oinarri likidagarri orokorrari ondoko tarifa aplikatuko zaio kuota osoa kalkulatzeko:

Oinari likidagariaren gutxieneko zenbatekoa	Kuota Osoa (Euro)	Oinari likidagariaren gairikina	Karga tasa aplikagarria (%)
3.746,00	0,00	3.122,00	15,00
6.868,00	468,30	7.283,00	23,00
14.151,00	2.143,39	13.942,00	28,00
28.093,00	6.047,15	14.566,00	35,00
42.659,00	11.145,25	19.768,00	42,00
62.427,00	19.447,81	Hortik aurrera	48,00

3.6. Pertsonaren eta familiaren ziozko kenkariak

3.6.1. Ondorengo ziozko kenkaria

Zergaren tarifarekin gertatu den bezala, ondoko kenkariak %2an eguneratu dira, inflazioaren eragina ezerezteko. Arazoa betikoa da, alegia, inflazioaren tasa ofiziala ez datorrela bat bene-

tako inflazioarekin eta, ondorioz, aldaketa erdi bidean geratzen dela. Gatozen harira. Zergadunarekin batera bizi den ondorengo bakoitzarengatik hurrengo kenkaria erabil daiteke:

- a) 479 euro urtean lehen ondorengoarengatik.
- b) 588 euro urtean bigarren ondorengoarengatik.
- c) 885 euro urtean hirugarren ondorengoarengatik.
- d) 1.145 euro urtean laugarren ondorengoarengatik.
- e) 1.561 euro urtean bosgarren ondorengoarengatik eta gainerako ondorengo bakoitzarengatik.

Aurreko kopuruarekin batera, ondorengoa sei urtetik behar-koa bada, urtean 261 euroko beste kenkari bat ere aplikatu daiteke.

Era berean, nazioarteko adopzioan hartutako pertsona bakoitzeko 625 euro gehiago ken daitezke, adopzio urtean bakarrik.

3.6.2. Seme-alaben mantenua dela-eta, urteko kopuruaren kenkaria

Oraingo honetan ere, kenkariaren zenbatekoak eguneratu dira %2an. Horrenbestez, kenkaria da seme-alabei ordaindutako kopuruaren %15, hurrengo mugekin:

- a) 137 euro urtean lehen seme-alabarengatik.
- b) 170 euro urtean bigarren seme-alabarengatik.
- c) 202 euro urtean hirugarren seme-alabarengatik.
- d) 262 euro urtean laugarren seme-alabarengatik.
- e) 355 euro urtean bosgarren seme-alabarengatik eta gainerako seme-alaba bakoitzarengatik.

3.6.3. Aurreko senideen ziozko kenkaria

Kenkariaren kopurua %2an igo da. Aurreko senidearengatik 211 euro ken daitezke.

3.6.4. Ezintasun edo elbarritasunaren ziozko kenkaria

Honako kopuruak kendu ahal izango dira 2006ko aitortpenean:

Minusbaliotasun gradua eta hirugarren pertsona baten laguntzaren beharizana	Kenkaria (Euro)
Minusbaliotasuna %33koa edo hortik gorakoa da eta %65 baino gutxiago	625
Minusbaliotasuna %65ekoa da edo hortik gorakoa	957
Minusbaliotasuna %75ekoa edo hortik gorakoa da, eta hirugarren pertsonaren laguntzaren beharizana 15 eta 39 puntu artekoa	1.145
Minusbaliotasuna %75ekoa edo hortik gorakoa da, eta hirugarren pertsonaren laguntzaren beharizana 40 puntu edo gehiago izatea	1.457

3.6.5. Adinagatiko kenkaria

2006an kenkariaren kopuruak %2an igo dira. Horrela:

a) Zergaduna 65 urtetik gorakoa bada, 209 euro ken daitezke.

b) Zergaduna 75 urtetik gorakoa bada, 417 euro ken daitezke.

3.7. Konturako ordainketak

Zatikako ordainketak kalkulatzeko, aurrerantzean ezingo da hiruhilabetearen sarrera eta gastuen arteko aldearen %20 ordaindu. Zatikako ordainketa horrela zenbatzeko aukera soilik geratu da jarduera lehenengoz hasi behar duten zergadunentzat, hasierako bi urteetan. Hortik aurrera, beste erregela batzuk erabili beharko dituzte kalkulua egiteko, alegia, azkenaurreko urtean lortutako etekin garbiaren %5 izango da zatikako ordainketa.

4. ONDAREAREN GAINEN ZERGA

4.1. Europako Batasuneko pentsio planak

Ondarearen gaineko Zergatik salbuetsi dira Europako Batasuneko pentsio planetan sendotutako eskubideak, Estatu barruko pentsio planen eskubideekin gertatu bezala.

4.2. Kopuru salbuetsia

Aurten kopuru salbuetsia eguneratu da. Gainerako zergetan gertatu bezala, hemen ere eguneratzea %2an izan da eta, horrenbestez, ondare garbiaren 195.270 euro salbuetsi dira.

4.3. Tributu-kuota

Zergaren tarifa aldatu dute, inflazioaren ondorioak saihesteko, inflazioaren tasa ofizialaren ondorioak, bederen. Tarifa berria honakoa da:

Oinani likidagariaren gutxieneko zenbatekoa	Kuota Osoa (Euro)	Oinani likidagariaren gaindikina	Karga tasa aplikagarria (%)
0	0	184.916,00	0,20
184.916,00	369,83	184.916,00	0,30
369.832,00	924,58	369.832,00	0,50
739.664,00	2.773,74	739.664,00	0,90
1.479.328,00	9.430,72	1.479.328,00	1,30
2.958.656,00	28.661,98	2.958.656,00	1,70
5.917.312,00	78.959,13	5.917.312,00	2,10
11.834.624,00	203.222,68	Hortik aurrera	2,50

4.4. Aitorpena aurkezteko beharra

Subjektu pasiboak aitortu behar du bere ondare garbia 195.270 eurotik gorakoa bada; halere, subjektuaren ondare gar-

bia 195.270 eurotik beherakoa izanik ere, aitortu behar du bere aktiboa 677.060 eurotik gorakoa bada.

5. SOZIJETATEEN GAINEKO ZERGA

5.1. Diruaren balio galtzea zuzentzea

Sozietateak ondasunik eskualdatuz gero, eskualdaketa horretan izan duen irabazi nahiz galera kalkulatzeko, ondasunaren eskuraketa balioa eguneratu behar du taula baten koefizienteak aplikatuta. Koefizienteak ezarri dira 2005erako:

Ondare osagaia eskuratu zeneko urtea	Koefizienteak
1984ko urtarrilaren 1a baino lehen	2,125
1984an	1,930
1985ean	1,782
1986an	1,677
1987an	1,598
1988an	1,526
1989an	1,453
1990ean	1,397
1991n	1,350
1992an	1,310
1993an	1,298
1994an	1,273
1995ean	1,215
1996an	1,180
1997an	1,160
1998an	1,142
1999an	1,121
2000n	1,103
2001ean	1,090
2002an	1,077
2003an	1,053
2004an	1,040
2005ean	1,020
2006an.....	1,000

5.2. Karga-tasa orokorra

Auzitegietako gora beherak jasan ondoren, karga-tasa orokorra (%32,5) eten eta deuseztu egin dute auzitegiek eta 2005eko azaroan karga-tasa orokorrik gabe geratu ziren Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko aldundiak. Zergadunek ez zekiten zein zen ordaindu beharreko zerga. 2005eko abenduaren 31n, urteko azken egunean, karga-tasa orokor berria ezarri zuten, %32,6 hain zuzen. Karga-tasa hori 2005erako izan da baina, aldatu ez denez, 2006rako ere balio du.

Dena den, oraindik errekurtsio bideetan dira karga-tasa orokorraren (%32,5) inguruko auziak eta, epai irmoak aldundiei arrazoiak emango balie karga-tasa hori aplikatuko litzateke %32,6koaren ordez.

5.3. Beste aldaketa batzuk

Lehen aipatu dugun bezala, Auzitegi Gorenaren 2004ko abenduaren 9ko epaiak Sozietateen gaineko Zergaren hainbat artikuluko deuseztu zituen eta EAeko Auzitegi Nagusiak kautelazko neurrien bidez artikuluko batzuen idazketa berria eten du. Modu horretara, zergaren aktibo berriengatik kenkaria mugarik gabe geratu da eta 2006rako muga horiek berriro ezarri dira. Arrazoi berdinarengatik, aldi baterako (hots, 2006rako) ondasunen balio-galerari dagozkion amortizazio koefizienteak arautu berri dira.

Bestetik, PFEZn inbertsio fondo kotizatuentzat ezarri diren erregelak, Sozietateen gaineko Zergan ere aplikatu behar dira.

Kapital-arriskuko fondoei dagokienez, arauketa berria kontuan hartu da, hots, 25/2005 Legea. Zergaren salbuespena aplikatzeko, kautelazko neurriak hartu izan dira titulu-baloreen eskuratzailerak lotura badu kapital-arriskuko erakundearekin edo eskuratzailerak hori paradisu fiskaleko egoiliarra bada.

Europako Batasuneko inbertsio pentsio fondoei dagokienez, fondo horietara eginiko ekarpenak kentzeko moduko gastuak dira; eta, gainera, %10eko kenkarirako eskubidea ematen dute.

Horrez gain, Europako Batzordeak 2006ko martxoaren 22an hartutako Erabakiaren arabera, Sozietateen gaineko Zergaren esportazioengatiko kenkaria bateraezina da Europako Zuzenbidearekin, enpresa esportatzaileei Estatu-laguntza bidegabea ematen baitie. Hori dela-eta, Europako Batzordeak agindu duenez, kenkari hori desagertu behar da apurka-apurka hemendik 2011ko urtarrilaren 1era arte. Kenkaria urtero %20 txikiagoa izango da, osorik desagertu arte.

Nekazaritza-kooperatibek, kooperatiba oso babestuak direnean, ez dute araubide fiskal berezia galduko, bazkide ez diren hirugarrenei petrolio-produktuak banatu badizkiete.

Amaitzeko, ondasun higiezinetan inbertitzen duten sozietate eta inbertsio-fondoek %1eko karga-tasa ordainduko dute Sozietateen gaineko Zergan, baldin eta etxebizitzak sustatzen soilik ari badira geroago errentamenduan emateko eta etxebizitza horiek saldu ez badituzte hiru urte igaro baino lehen.

6. BALIO ERANTSIAREN GAINKO ZERGA

BEZaren arauketan Estatuak 2006rako sartu dituen aldaketak Bizkaiko legegileak bere arautegira ekarri behar ditu, Batzar Nagusiek ez dutelako araugintza-ahalmenik zerga honetan. Modu horretara, gasaren eta elektrizitatearen emateak arautu dira.

6.1. Gasaren eta elektrizitatearen emateak

Esan bezala, gasaren eta elektrizitatearen alorrak liberalizazio bidean dira Europako Batasunean. Dakigunez, gasa ematea edo elektrizitatea ematea BEZarentzat ondasun emateak dira, baina arazoak sortu dira horien banaketa jarraitu ahal izateko Europako Batasunean elkartrukeak egiten direlako. Horregatik, gasa eta elektrizitatea enpreasuburu birsaltzailearen jardueraren egoitzan, horren establezimendu iraunkorrean edo horren egoitza fiskalean eman dela uste da, baldin eta gasa edo elektrizitatearen hornidura leku horietatik kontratatu bada. Horrela enpresa hornitzaileek ez dute zerga ordaindu behar gasa edo elektrizitatea ematen den herrialdetik kanpora. Ildo beretik, gasa edo elektrizitatea kontagailua dagoen lekuan

kontsumitzen dela uste da. Azkenik, subjektu pasiboa alderantzien da gasaren edo elektrizitatearen hornitzailea Europako Batasunetik kanpo badago eta horren bezeroa BEZaren lurraldean bada.

6.2. Prorrataren kalkulu berria

Kontsumoari lotutako dirulaguntzekin batera, badira ekoizpenari lotutako dirulaguntzak ere. Azken horien helburua da ustiapenaren emaitza negatiboak estaltzea (ustiapenari lotutako dirulaguntzak) eta enpresa jardueraren azpiegiturak zabaltzea (kapital-dirulaguntzak).

2005era arte ekoizpenari lotutako dirulaguntzak kontuan hartzen ziren subjektuak jasandako BEZetik kentzeko moduko zatia (prorrata). Horrela, halako dirulaguntzarik jasoz gero, jasandako BEZ osoa ezin zen kendu. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak 2005eko urriaren 6an eman duen epaiak arauketa zahar hori desgokia zela adierazi zuen. Epaiaren arabera, subjektuak jasandako BEZ osoa kentzeko eskubidea izango balu berak buruturiko eragiketa guztiak kentzeko eskubidea ematen dutelako, orduan dirulaguntzak ez lirateke aintzat hartuko prorrata kalkulatzeko, kasu horretan prorratarik ez dagoelako. Epaiaren aburuz, beraz, dirulaguntzak kontuan hartuko dira baldin eta subjektuak kentzeko eskubidea ematen duten eragiketak eta kentzeko eskubidea ematen ez dutenak burutzen badi-tu. Aurrekoaren ondorioz, Ogasunek dirua itzuli beharko diote hainbat zergaduni, dirulaguntza publikoak jaso dituztelako baina eragiketa salbuetsiak burutzen ez dituztelako.

6.3. Beste aldaketa batzuk

2006tik aurrera ere, irratidifusio eta telebista digitaleko zerbitzuak hornitzean eta jasotzean karga-tasa txikia aplikatuko da, hots, %7.

Salbuespenen artean, aseguru, berraseguru eta kapitalizazio eragiketa salbuetsien artean, tartekaritza zerbitzuak eta bezeroak lortzeko eragiketak sartu dira, aurreikuspen modalitateekin batera.

Halaber, data horretatik aurrera, etxebizitza errentamenduekin batera salbuetsi dira etxebizitza sustatzeko egitarau publikoak

kudeatzen dituzten erakundeek eta, Sozietaten gaineko Zergaren araubide bereziaren mende, etxebizitza errentatzaile diren sozietateek egingo dituzten errentamenduak ere. Azken horri lotuta, 2006tik aurrera, etxebizitzaren eskuraketetan karga-tasa txiki-txikia (%4) ezarriko zaie Sozietateen gaineko Zergaren araubide bereziko sozietateei, hots, etxebizitza errentatzaile diren sozietateei.

Nekazaritza, abelzaintza eta arrantzako eraentza berezian igo da ondasunaren erosleak salmentaren prezioari gehitu behar dion ehunekoak; 2006ko martxoaren 31tik aurrera nekazaritza-ustiapenetan %9 erabiliko da eta abelzaintza- edo arrantza-ustiapenetan %7,5. Neurri hori hartu da petrolioaren prezioak izan duen gorakada konpentsatzeko.

7. BESTE TRIBUTU BATZUK

7.1. Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga

Aurten bi salbuespenetan aldaketak sartu dira. Alde batetik, kapital-arriskuko erakundeen aipamena 25/2005 Legea egiten da orain; eta beste alde batetik, salbuespenaren barruan sartu dira ondasun higiezinaren inbertsio-fondoak edo inbertsio kolektiborako erakundeak, baldin eta fondo edo erakunde horien aktiboaren erdia, gutxienez, etxebizitzak, ikasle-egoitzak eta adinekoentzako egoitzak badira.

7.2. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga

7.2.1. Europako Batasuneko pentsio planak

Zergapetik kanpo utzi dira Europako Batasuneko pentsio planetatik jasotako prestazioak, Estatu barruko planen prestazioekin gertatu bezala.

7.2.2. Zerga oinarriaren txikipenak

Zerga oinarriaren txikipenei dagokienez, hildakoaren edo dohaintza-emailearen ohiko etxebizitza eskuratzeko %95eko txikipena dago eta 2006an 200.000 euroraino igo da txikipenaren muga.

Ildo beretik, hildakoaren enpresa indibiduala edo hildakoaren erakundeetako partaidetzak eskuratuz gero %95eko txikipena dago. Txikipena aplikatzeko baldintzen artean, eskuratzailerak epe batean ezin du eskualdatu hildakoarengandik jaso dituen enpresa edo partaidetza horiek; lehenago epe hori hamar urtekoa zen eta 2006tik aurrera bost urtekoa da.

Hildakoarekin zergadunak duen senidatasun maila dela-eta, txikipenak ezarri dira. Txikipenaren kopuruak berrizatu dira, aspaldiko partez. Hurrengo txikipenak daude:

Taldea	I. taldea	Bigarren mailako alboko senideak	36.000
	II. taldea	Hirugarren mailako alboko senideak, ezkontzaren nahiz izatezko bikotearen ondoriozko aurreko eta ondorengo senideak	18.000
	III. taldea	Gainerako senideak eta arrotzak	Ez dago txikipenik
Minusbalioak dituztenak			72.000

7.2.3. Zergaren tarifa

Tarifa berria onetsi da 2006an:

Oinarri likidagarria (euroak)	I. tarifa I. eta II. taldeak		II. tarifa III. taldea	
	Kuota osoa	Kargatasa	Kuota osoa	Kargatasa
0,00- 8.436,00	0,00	5,70	0,00	7,60
8.436,01- 25.308,00	480,85	7,98	641,14	10,64
25.308,01- 42.180,00	1.827,24	10,26	2.436,32	13,68
42.180,01- 84.360,00	3.558,30	12,54	4.744,40	16,72
84.360,01- 168.720,00	8.847,67	15,58	11.796,90	20,52
168.720,01- 421.800,00	21.990,96	19,38	29.107,57	25,08
421.800,01- 843.600,00	71.037,86	23,18	92.580,03	29,64
843.600,01- 2.109.000,00	168.811,10	28,50	217.601,55	35,72
2.109.000,01- Hortik gora	529.450,10	34,58	669.602,42	42,56

7.3. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga

Europako 2003/123/CE zuzentarauak eraldatu du 90/435/CEE zuzentzaraua, sozietate nagusien eta menpekoen arteko araubide fiskalari dagokionez. Horiek horrela, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren arauketa ere aldatu behar izan da.

Sozietate nagusia izateko sozietate menpekoaren partaide-tza kuota behera egingo du hemendik 2009ra arte, %25etik %10 izateraino.

Bestetik, parekatu egin dira sozietate menpekoak sozietate nagusiari ordaindutako irabaziak eta menpekoak sozietate nagusiaren establezimendu iraunkor bati ordaindutako irabaziak, baita sozietate nagusia eta menpekoa herrialde batean badaude eta establezimendu iraunkorra beste herrialde batean badago ere. Salbuespenez, erregela horiek ez dira aplikatuko establezimendu iraunkorra paradisu fiskal batean badago.

Bestetik, PFEZn inbertsio fondo kotizatuentzat ezarri diren erregelak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan ere aplikatu behar dira.

7.4. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga

Zerga honi dagokionez, katastro balioak %2an eguneratu dira, aurreko kasuetan aipatu ditugun arrazoiengatik.

7.5. Tributu-zehapenak barkatzea

Zehapenak barkatzeko eskaera egiten denean, Ogasunak hiru hilabete ditu barkamenaren gainean erabakitzeko. Orain arte, epe hori bete ezean horren ondorioa ez zegoen argi. 2006tik aurrera, ostera, Administrazioaren isiltasuna negatiboa da; bestela esanda, hiru hilabete igaro badira Ogasunaren erantzunik gabe, ulertu behar da eskatutako barkamena ez dela onartu.

7.6. Tasa eta prezio publikoak

Tasa eta prezio publikoen kasuan, karga-tasa finkoa ezarri den kasuetan, horren zenbatekoa eguneratu da %2an, lehenago aipatu arrazoiengatik.

Alberto Atxabal Rada

ENPRESA BERRIA SOZIE TATE MUGATUA (SLNE). HORREN ESTATUTUAK

1. ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZIE TATEEN ESPA- RRUAN, BESTE MODALITATE BAT: ENPRESA BERRIA SOZIE TATE MUGATUA EDO “SOCIEDAD LIMITADA NUEVA EMPRESA” DERITZONA

Apirilaren 1eko 7/2003 Legea onetsi zenean, enpresak sortzeko beste aukera interesgarri bat plazaratu zen, “*Enpresa Berria* Proiektua” zelakoaren bidez. Europatik zetozen gomendio eta lanei ekinez —besteak beste, Batzorde Europarrak 1997ko apirilaren 22an emandako 97/344 Gomendia; Kontseiluak 1997ko ekainean Amsterdamen adierazitako konpromisoa, gai honen inguruko arauketa errazteko; urte berean hasitako SLIM ekimena, alegia, *Simpler Legislation for the Internal Market* izenekoa; Enpresa Txikiaren Gutun Europarra edo *Feirako Gutuna*, 2000eko ekainean sinatutakoa; edota Europako Parlamentuak 2002ko otsailean emandako Ebazpena—, enpresa txiki eta ertainak eratzeko izapideak erraztu nahi ziren, formula berri honen bitartez, maiz-sarri espiritu ekintzaile eta lehiatsuen ahaleginak alferrik galtzen zirelako oztopo burokratikoaren ondorioz.

Helburu hori erdiesteko, legeak erraztasun edo aukera bereziak eskaini ditu, eta guk horietako bi aipatuko ditugu, bigarrenak ekarriko duelako, hain zuzen ere, artikulua honen mamia:

a) Batetik, enpresa bide elektroniko, informatiko edota telematikoak erabilia sortzeko aukera, denbora eta dirua aurreztuz. Horrekin lotuta, euskarri zinez lagungarriak asmatu dira, enpresarioen esku eta zerbitzura egon daitezzen, bai hasieran, enpresa sortzeko unean, baita beranduago ere, ibilbidean zehar zalantzak eta iluntasunak agertzen direnean. Halakoak ditugu PAIT deritzenak (aholkuak eman eta izapideak hasteko administrazio-zentroak, egun Espainiako geografia osoan barrena zabalduta daudenak); STT delakoa (izapidetza telematika egiteko sistema informatikoa); edota DUE izenekoa (enpresa berria sortzeko datuak batzen dituen agiri birtuala eta bakarra). On izango litzateke euskarri edo tresna horien egiazko erabilgarritasuna sakonean aztertzea, baina hori, agian, beste artikuluko baten jorragai izan daiteke.

b) Bestetik, estatutu "orientatzaile" edo ereduak erabiltzeko aukera. Estatutuok ekainaren 4ko 1445/2003 Aginduaren bidez onetsi zituen Justizia Ministerioak eta euren euskarazko bertsiotzat ematea izango da artikuluko honen jomuga. Halako estatutuak erabiltzen direnean, notario zein erregistratzaileek 48 orduko epea dute, euren dagozkien eraketa-izapideak gauzatzeko.

Esan bezala, bada, oraino ez dugu jorratuko sozietate-mota berri honen arauketa, baina, hala ere, ezin ahantz daitezke aurrekoek landara legeak sartu dituen beste zenbait berrikuntza, batzuetan kritikatuak izan direlako: ulerbidez, bazkideen kopurua nahiz izaera mugatuta egotea hasieran (eratze-unean gehienez bost bazkide egon daitezke, pertsona fisikoak izan behar direnak); kapitalaren gutxieneko zenbatekoa ez ezik, gehienekoa ere finkatuta agertzea (3012 eta 120202 euro, hurrenez hurren); administratzaileak bazkide izatea...

Autore batzuen aburuz, Europako gomendioen helburua betetzeko, nahikoa izango zen goian aipatu bi autuak garatzea, alegia, bide telematikoaren eta ereduak formularioen erabilera, administrazio-izapideak errazteko; beste guztia, ostera, Espainiako legegilearen *baratzeko baratxuria* izan da. Ildo horri ekinez, arauketa zurrunezia ezarri da, eta, horrela, mesede eskasa egin zaio arautegi europarrari, edozein PYMEren eraketa erraztu beharrean, enpre-

sa txiki zehatzen eraketa (kapital gutxikoak eta arauketaren aldetik malgutasun handirik behar ez dutenak) bakarrik arindu delako. Esan ohi da, orobat, ez dagoela koordinaziorik arau honen eta PYMEak bultzatzeko eman diren beste batzuen artean, hots, osoko politika bateratuaren gabezia ikus daitekeela esparru honetan.

Edozein kasutan ere, legeak erraztasunak ere ekarri ditu, duda-izpirik gabe (xedea orokorra izatea, enpresa-jardueran aldaketak egin ahal izateko, estatutuak ukitu gabe; kontabilitate-sistema laburtua erabiltzea; abantaila fiskalak lortzea hasierako urteetan), eta hori argiro ikusten da, legea onetsi zenetik sortutako sozietatekopurua aztertuta: Enpresa Txiki eta Ertainen Zuzendaritza Nagusiak (DGPYMEk) eskainitako datuen arabera, 2006ko urriaren 9rako 2098 EBSM (edo SLNE) sortu dira Espainia osoan bide telematikokoak erabilia —gehienak zerbitzu- eta merkataritza-alorretan—, eta 4496, berriz, ohiko bideetara jota (eraketa presentziala), kopuru esanguratsuak betiere.

Guztiarekin, eta gorago aipatu bezala, lege horren bitartez abantaila moduan eskaini da estatutu “orientatzaileak” erabili ahal izatea, eta hurrengo atalean, estatutuok euskaratu ditugu, baliagarriak izan daitezkeelakoan.

2. ENPRESA BERRIA ERANTZUKIZUN MUGATUKO MERKATARITZAKO SOZIETATEAREN ESTATUTUAK

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. *Izena*

Espainiako naziokotasuna duen eta Enpresa Berri deritzon erantzukizun mugatuko merkataritzako sozietatearen izena izango da “....., E.B.S.M.”

Estatutu hauek arautuko dute sozietate hori; estatutuek xedatu ez dituzten arloetan, martxoaren 23ko 2/1995 Legearen XII. kapitulua aplikatuko da, eta horrek arautu gabeko gaitan, erantzukizun mugatuko sozietateei aplikatzen zaizkien gainerako xedapenak izango dira kontuan.

2. artikulua. *Xedea*

Sozietatearen xedea hauxe da: (ikus 7/2003 Legearen 132. artikulua, bertan deskribatutako jarduera bat edo gehiago aukeratzeko, eta, hala denean, jarduera bereziren bat aipatzeko).

Zerrendako jarduera bati begira beharrezkoa izanez gero, titulazio egokia duten profesionalek gauzatu beharko dute jarduera hori edo, hala denetan, jarduera gauzatu aurretik administrazio-baimen edo -lizentzia egokia lortu beharko da.

3. artikulua. *Iraupena*

Sozietatea eperik gabe eratzen da (edota ezarzen den eperako), eta sozietatearen eragiketak hasiko dira eraketa-eskritura publikoa egilesten den egunean.

4. artikulua. *Egoitza*

Sozietatearen egoitzan dago.

Administrazio-organoak sukurtsal, agentzia edo eskuordetzak eratu, kendu eta lekuz alda ditzake, Espainian zein atzerrian, eta udal-mugartearen barruan ere egoitza lekuz alda dezake.

II. SOZIETATEAREN KAPITALA. PARTAIDETZAK

5. artikulua. *Kapitalaren zenbatekoa*

Sozietatearen kapitala eurokoa izango da.

Kapital hori sozietate-partaidetzetan banatzen da; partaidetzok berdinak, metakorrak eta zatiezinak izango dira; bakoitzaren balio izendatua eurokoa izango da, eta hurrenez hurren zenbatuko dira, unitatetik hasita.

6. artikulua. *Eskualdaketak*

A) Borondatezkoak, inter vivos egintzen bidez.— Inter vivos egintzen bidez sozietate-partaidetzak askatasunez eskualdatu ahal zaiz-

kio, kostu bidez zein dohainik,i (beste bazkide bati, ezkontideari edota bazkidearen aurreko nahiz ondorengoei).

egintzen bidez gauzatzen diren gainerako eskualdaketei legean xedatutakoa aplikatuko zaie.

B) Mortis causa.— Sozietate-partaidetzak askatasunez eskualda daitezke mortis causa, beste bazkide bati, ezkontideari edo bazkidearen aurreko nahiz ondorengoei utzitako jaraunspenaren nahiz legatuaren bidez.

Kasu horietatik kanpo, sozietate-partaidetzak mortis causa eskualdatzen badira, bizirik dirauten bazkideek edo, halakorik izan ezean, sozietateak hildakoaren partaidetzak lehenespenez eskuratzeko eskubidea izango dute; partaidetza horien balioa izango da, bazkidea hiltzen denean duten zentzuzko balioa, eta prezioa eskura ordaindu beharko da. Eskubide hori egikaritzeko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, sozietateari jaraunspen bidezko eskuraketaren berri eman zaionetik zenbatzen hasita.

Sozietate-partaidetzen zentzuzko balioari, balorazioa egin behar duten pertsoneri edota balorazio hori egiteko prozedurari buruz adostasunik lortu ezean, partaidetzok baloratuko dira Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko Legearen 100. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Epe hori igaro bada lehenespen-eskubidea modu sinesgarrian egikaritu barik, jaraunspen bidezko eskuraketa sendotuko da.

C) Arau erkideak.— 1. Sozietate-partaidetzak edozein titulu dela-bide eskuratu direnean, sozietatearen administrazio-organoari eskuraketa horren berri eman behar zaio idatziz, eskuratzaillearen izena edo sozietate-izena, naziokotasuna eta egoitza zehaztuz.

2. Bazkideak bere partaidetzak eskualdatzeko asmoaren berri eman dionean sozietateari zein arauketa egon indarrean

eta arauketa hori aplikatuko zaio partaidetzen eskualdaketari, edota, hala denean, bazkidea hil denean nahiz epai-edo administrazio-adjudikazioa egin denean indarrean zegoena.

3. Sozietate-partaidetzen eskualdaketak ez badu bete estatutu hauetan xedatutakoa, eskualdaketa horrek ez du ezelako ondorerik izango, sozietateari begira.

III. SOZIETATEAREN ORGANOA

7. artikulua. *Batza Orokorra*

A) Deialdia.— Batza orokorretarako deialdiak posta ziuratuaren bidez egingo dira, hartu izanaren adierazpenarekin; posta bidaliko da, bazkide bakoitzak administrazio-organoari zehaztu dion egoitzara (halaber, komunikazio telematikoa ere erabil daiteke, bazkideak administrazio-organoari jakinarazitako helbide elektronikora bidaliz deialdia).

B) Erabakiak hartzea.— Erabakiak hartuko dira balioztasunez emandako botoen gehiengoz, baldin eta gehiengo horrek sozietatearen kapitala osatzen duten partaidetzen herena ordezkatzen badu gutxienez; boto zuriak ez dira zenbatuko.

Hala ere, aurreko idatz-zatian xedatutakoaren salbuespen bezala, ondokoa izan behar da kontuan:

a) Sozietatearen kapitala gehitu zein urritzeko, edo hurrengo idatz-zatiaren arabera gehiengo kualifikatua behar ez duten aldaketak egiteko estatutuetan, sozietate-kapitala osatzen duten partaidetzen erdia baino gehiago izan behar da aldekoa.

b) Kapitala Legearen 135. artikuluan ezarritako gehieneko mugatik gora gehitzeko, sozietatea transformatu, bat-egin nahiz zatitzeko, kapital gehikuntzetan lehenespen-eskubidea kentzeko, bazkideak baztertzeko, edota administratzaileei baimena emateko, sozietatearen xedea osatzen duen jarduera bera, antzekoa edo osagarria gauza dezaten euren kabuz nahiz inoren kontura, eraba-

kiaren aldeko botoa eman behar dute sozietatearen kapitala osatzen duten partaidetzen bi herenek gutxienez.

c) Sozietatea kide bakarrekoa izanez gero, bazkide bakarrak beteko ditu Batza Orokorraren eginkizunak, eta, halakoetan, horren erabakiak aktan jasoko dira, beraren edo ordezkariaren sinadurarekin; erabakiok bazkideak berak nahiz sozietatearen administratzaileek betearazi eta formalizatu ahal dituzte.

8. artikulua. *Administrazio-organoa: berori antolatzeko modua*

1. Sozietatearen administrazioaz ardura daiteke kide bakarrekoko organoa (administratzaile bakarra) edo kidego izaerarik ez duen kide anitzeko organoa (zenbait administratzaile, modu solidarioan zein mankomunatuan jardunda); organo horrek gehienez bost administratzaile egon daitezke.

2. Batza Orokorrak aukeratuko du sozietatearen administrazioa antolatzeko modua, gehiengo kualifikatuaren bidez eta estatuak aldatu gabe.

3. Administratzailea bazkide izan behar da.

4. Administratzaileek eperik gabe beteko dute euren kargua, salbu eta Batza Orokorra eratu eta gero, horrek erabakitzen duenean karguok epe zehatzerako izendatzea.

5. Batza Orokorrak erabaki dezake administratzaileei zerbait ordaintzea, baita nola eta zenbat ordaindu ere.

9. artikulua. *Ordezkaritza-ahalordea*

Administrazio-organoa antolatzeko moduei buruz, hauxe ezarri da:

1. Administratzaile bakarra dagoenean, berak izango du ordezkari-ahalordea.

2. Zenbait administratzaile solidario izanez gero, horietako bakoitzari dagokio ordezkari-ahalordea.

3. Baterako hainbat administratzaile daudenean, horietako bik modu mankomunatuan egikarituko dute ordezkaritza-ahalordea.

Maiatzaren 11ko 12/1995 Legeak ezarritako debeku edo bateraezintasunen bat duten pertsonak ezingo dute kargurik izan sozietate honetan, ezta Estatuko edo autonomia erkidegoetako beste lege-xedapen batzuek ezarritako bateraezintasunak dituzten pertsonak ere, xedapenok zehaztutako neurrian nahiz baldintzetan.

10. artikulua. *Ahalmenak*

Administrazio-organoari dagokio sozietatea kudeatu eta administratzea, baita berori ordezkatzea ere, epaiketari zein epaiketarik kanpo.

Horrenbestez, Batza Orokorraren eskumenekoak diren egintzen edota sozietate-xedetik kanpo dauden egintzen kasuan izan ezik, ulertuko da administratzaileen ordezkaritza-ahalordea eta hori osatzen duten ahalmenak zabalenak direla, dela orokorrean kontratuak egiteko, dela orotariko egintza eta negozioak burutzeko, hain zuzen ere, betebeharrak izateko nahiz xedatze-egintzak, administrazio arruntekoak nahiz aparteko administrazio-egintzak, edota ondasun higigarri, higiezin, akzio nahiz eskubideei buruzko jabari-egintza hertsia.

IV. EKITALDIAK, URTEKO KONTUAK

11. artikulua. *Sozietate-ekitaldia*

Sozietate-ekitaldia urte bakoitzeko urtarrilaren batean hasten da eta abenduaren hogeita hamaikan amaitzen da..... (beste epealdi bat zehaztu ahal da). Lehenengo ekitaldia eraketa-eskritura publikoa egilesten denean hasiko da eta urte horretako abenduaren hogeita hamaikan amaituko da (..... edo zehaztutako beste epealdian).

12. artikulua. *Urteko kontuak*

1. Sozietate-ekitaldia ixten denetik, administrazio-organoak gehienez hiru hilabeteko epea izango du urteko kontuak egiteko, legeak edo erregelamenduak ezarritako edukiarekin.

2. Urteko kontuen forma, eduki, deskripzio, partida, balorazio-erregela, egiaztapen, berrikuspen, kontuen gaineko informazio-esku-bide, onespen, emaitzen aplikazio eta Merkataritzako Erregistroan egin beharreko gordailuari dagokionez, aplikatu beharreko legeriak ezarritakoa izango da kontuan.

V. ERAGIKETEI EUSTEA, SOZIETATE MUGATU MODUAN. DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

13. artikulua. *Eragiketei eustea, erantzukizun mugatuko sozietate moduan*

Sozietateak bere eragiketei eutsi ahal die erantzukizun mugatuko sozietate orokor moduan, legearen 144. artikuluan ezarritako betekizunak kontuan izanda.

14. artikulua. *Desegitea eta likidazioa*

Sozietatea desegingo da legeak ezarritako arrazoen ondorioz; desegite- eta likidazio-prozedurari sozietate hauen arautegi berezia aplikatuko zaio, eta, halakorik izan ezean, arautegi orokorra.

Desegitearen osteko likidazio-fasea hasi bada, desegite-unean zeuden administratzaileek euren kargua utzi behar dute, likidatzaile bihurtzeko, salbu eta Batza Orokorrak beste likidatzaile batzuk izendatu dituenean, desegitea erabakitzean; Batzak gehie-nez bost likidatzaile izenda ditzake.

VI. XEDAPEN OSAGARRIAK

15. artikulua

Sozietate-harremanak direla-eta, bazkideen artean edota bazkide-
en eta sozietatearen artean arazorik izanez gero, ebatziko
ditu horiek (sozietatearen egoitzako epaitegi edo auzitegiren bat aukera-
tu behar da; bestela lege-xedapenen arabera formalizatutako tartekarit-
za aukera daiteke); dena den, legearen arabera lehenespenez aplikatu
beharreko prozedura-araurik izanez gero, horiek izango dira kontuan.

3. Bibliografía

GONZÁLEZ FERNÁNDEZ, M. B., *La sociedad unipersonal en el Derecho español (Sociedad Anónima, Sociedad de Responsabilidad Limitada y Sociedad Limitada Nueva Empresa)*, La Ley, Las Rozas, Madrid, 2004.

GRANDÍO DÓPICO, A., *Creación de empresas: Ley 7/2003, de la Sociedad Limitada Nueva Empresa*, Netbiblo, A Coruña, 2003.

QUINTO ZUMÁRRAGA, F., *La firma electrónica: marco legal y aplicaciones prácticas: la Ley de la Sociedad Limitada Nueva Empresa (SLNE), el sistema e-Notario, la facturación telemática (e-factura), el punto neutro judicial (sistema Lexnet)*, Cuadernos Prácticos (Difusión jurídica y Temas de actualidad), Barcelona, 2004.

SEBASTIÁN CHENA, M., «¿Cómo se constituye una sociedad?», *Iuris*, 82 (2004), 62 eta 63. orr.

VALPUESTA GASTAMINZA, E., *La Sociedad Nueva Empresa. Ley 7/2003 de la sociedad limitada Nueva Empresa*, Bosch, Barcelona, 2003.

VIERA GONZÁLEZ, A. J., «Algunas consideraciones sobre el “Proyecto Nueva Empresa”», *RdS*, 18 (2002), 445-453. orr.

Web-orriak:

—<http://www.circe.es>

—<http://www.ipyme.org>

—<http://www.rmc.es>

—<http://notariado.org>

Eba Gaminde Egia

SENIPARTEDUNAK NORTZUK DIREN ETA SENIPARTE GISA ZENBAT DAGOKIEN GALIZIAN, AZKEN ERALDAKETAZ GEROZTIK

LABURPENA: 1. Sarrera. 2. Senipartedunak nortzuk ziren eta seniparte gisa zenbat zegokien Galizian, 4/1995 Legearen arabera. 3. Senipartedunak nortzuk diren eta seniparte gisa zenbat dagokien Galizian, azken eraldaketaz geroztik. 4. Eta Hego Euskal Herriaren kasuan, zer? 5. Labur-zurrean. 6. Bibliografia.

1. SARRERA

Ekainaren 14ko 2/2006 Legeak, Galiziako zuzenbide zibilari buruzkoak, indarrik gabe utzi du aurretiaz gai berberari buruz indarrean zegoena, hau da, Galiziako Parlamentuak 1995. urteko maiatzaren 24an onetsitakoa. Lege berria Galiziako Aldizkari Ofizialean argitaratu da, 2006. urteko ekainaren 29an, 124. zenbakiarekin; eta, argitalpenetik hogeitau egunetara, indarrean jarri da. Hortaz, Galiziako foru-zuzenbide zibilak arauketa berria du.

Lege berriak hirurehun eta zortzi artikulua ditu, lau xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat. Artikuluaren antolaketa sistematikoaz denaz bezainbatean, honako titulu hauek bereiz daitezke:

Atariko titulua

Lehenengo titulua, adingabeen gaineko babesari buruzkoa

II. titulua, adopzioari buruzkoa

III. titulua, autotutoretzari buruzkoa

IV. titulua, adierazpenik gabeko absentsia-egoerari buruzkoa

V. titulua, etxeari eta “veciña” deiturikoari buruzkoa

VI. titulua, eskubide errealei buruzkoa

VII. titulua, kontratuei buruzkoa

VIII. titulua, Galiziako familia-konpainiari buruzkoa

IX. titulua, familiaren ondasun-erantzari buruzkoa

X. titulua, heriotzaren ondoriozko oinordetzari buruzkoa

Hamargarren titulu horren barruan, zazpi kapitulu bereiz daitezke. Kapitulu horietatik bosgarrena seniparteei buruzkoa da. Lege berriak, seniparteei buruzko gai horretan, aldaketa nabaria ekarri du. Izan ere, 4/1995 Legeak, seniparteen ondorioetarako, zuzen-zuzeneko igorpena egiten zuen Kode Zibilera, berezko arauketarik eskaini gabe. 2/2006 Legeak, ordea, berezko arauketa eskaintzen du. Galiziako foru-zuzenbideari beren beregi dagokiona.

Horregatik, artikulua honen helburua da Galiziako seniparteen arauketan izandako lege-aldaketa azaltzea, neurri

batean behintzat. Horretarako, senipartedunak nortzuk diren eta seniparte gisa zenbat dagokien aztertuko da, betiere 4/1995 Legea eta 2/2006 Legea erkatuz. Bide bertsutik, gaingiroki azalduko da zein den Hego Euskal Herrian seniparteen arauketa, eta, hori oinarri hartuta, Galizian gertatutako lege-aldaketa Hego Euskal Herrirako ereduzkoa izan daitekeen ala ez aztertuko da. Horrek bide emango du testamentugileak testamentua egiteko duen askatasunaz hausnartzeko eta askatasun horrek izan behar duen norainokoaz hitz egiteko.

2. SENIPARTEDUNAK NORTZUK ZIREN ETA SENIPARTE GISA ZENBAT ZEGOKIEN GALIZIAN, 4/1995 LEGEAREN ARABERA

4/1995 Legea 1995. urteko ekainaren 6an argitaratu zen Galiziako Aldizkari Ofizialean, 107. zenbakiarekin. Lege horren 146. artikulua¹, senipartearen ondorioetarako, zuzen-zuzeneko igorpena egiten zuen Kode Zibilera.

146. artikulua

1. Senipartea aktibo likidoaren kuota bat da, eta kuota hori nahitaez dagokie oinordetzaren kausatzaileak dituen senide zehatz batzuei eta haren alargunari, lege honetan araututako bazterketa-kasuetan izan ezik.

2. Senipartedunak dira Kode Zibilean zehaztutako nahitaezko jaraunsleak lege-testu horrek kasuan-kasuan ezartzen dituen zenbateko eta proportzioetan.

3. Gauzatu gabeko senipartearen gainean uko edo transakzioziorik eginez gero, uko-egite edo transakzio hori deuseza da, artikulua honen 1. zenbakian ezarri kasuan izan ezik.

Bistan denez, 4/1995 Legearen arabera Galizian senipartedunak nortzuk ziren eta seniparte gisa zenbat zegokien jakiteko,

¹ Itzulpena autorearena da.

Kode Zibila aplikatu behar zen bete-betean². Horregatik komeni da, labur-labur bada ere, Kode Zibilaren arauketa gogoratzea.

Kode Zibilari helduta, senipartedunak identifikatu ahal izateko, 807. artikulua³ aplikatu behar da:

807. artikulua

Nahitaezko jaraunsle dira:

- 1. Seme-alabak eta ondorengoak, euren guraso eta aurrekoei begira.*
- 2. Aipatu berri direnak izan ezean, guraso eta aurrekoak, euren seme-alaba eta ondorengoei begira.*
- 3. Alarguna, kode honek ezartzen duen forma eta neurrian.*

Hortaz, Kode Zibilak hiru senipartedun-talde bereizten ditu. Lehenengo eta behin, ondorengoak lehentasuneko senipartedunak dira, ondorengoak izanez gero, aurrekoak ez baitira senipartedun bihurtzen. Arrazoinamendu berberari eutsiz, aurrekoak senipartedun subsidiarioak dira, ondorengoak izan ezean bakarrik bihurtzen direlako aurrekoak senipartedun. Alargunari dagokionez, horren egoera berezia da, senipartedun izan daitekeelako ondorengoekin batera; ondorengorik izan ezean, aurrekoekin batera; eta, ondorengo eta aurrekorik izan ezean, bera bakarrik.

Senipartearen zenbatekoari dagokionez, senipartedun-taldeak bereizi behar dira, talde bakoitzari seniparte gisa dagokion kopurua desberdina baita.

² José Luis Espinosa de Soto eta Gerardo García-Boente Sánchez notarioek argiro-argiro azaldu zuten igorpen horren hedadura, in *Derecho de sucesiones de Galicia. Comentarios al título VIII de la Ley de 24 de mayo de 1995*. A Coruña-ko Notarioen Elkargoa, Consejo General del Notariado. Madril, 180. orrialdea: «La Ley deja sin regular toda una serie de cuestiones a las que tenemos que extender la "remisión", como preterición, desheredación, prohibición de gravámenes o aspectos materiales como la imputación y reducción de disposiciones inoficiosas (prácticamente los arts. 807 a 820 del CC íntegramente). En definitiva, el marco conceptual y los principios que configuran la legítima en el Código Civil forman también el substrato de la institución en el "Derecho civil de Galicia».

³ *Kode Zibila/Código Civil*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2004, 424. orrialdea.

Jakinekoa denez, Kode Zibilaren 808. artikulua araberan, ondorengo senipartea jarauntsiaren bi herenek osatzen dute, beste herena xedapen askekoa baita. Seniparteari dagozkion bi heren horietatik bat, hobekuntzako dena, askatasunez xeda daiteke ondorengo artean, gradu-hurbiltasuna kontuan hartu gabe. Hortaz, testamentugileak hobekuntzako herena oso-osorik zein zati batez bana dezake bere ondorengo artean, berak nahi bezala. Beste herena, berriz, seniparte hertsia da, eta hori nahitaez banatu behar da, zati berdinetan, ondorengo artean, gradu-hurbiltasuna kontuan hartuta, ordezkapen-eskubidea aplikatu behar denetan izan ezik.

Ondorengo seniparteak, nolahi ere, arauketa berezia izan dezake, horietatik bat ezgaitua izanez gero. Arian ere, azaroaren 18ko 41/2003 Legeak egindako eraldaketaz geroztik, testamentugileak fidekomisozko ordezkari ezar dezake seniparte hertsia gainean, eta, hori eginez gero, fiduziarioa izango da epaiketa bidez ezgaitutako semea edo alaba, eta fideikomisodun izango dira haren nahitaezko jaraunskideak.

Aurreko seniparteari eutsiz, hori jarauntsiaren erdia izango da alargunik izan ezan, eta herena izango da, ordea, alarguna izanez gero (Kode Zibilaren 809. artikulua).

Alargunaren senipartea, bukatzeko, gozamen-eskubidea izango da beti, baina gozamen horrek kuota desberdina kargatuko du, alargunarekin batera jarauntsian nortzuk pilatzen diren kontuan hartuta. Ondorengoak izanez gero, gozamenak hobekuntzako herena kargatuko du (Kode Zibilaren 834. artikulua). Ondorengorik ez, baina aurrekoak izanez gero, gozamenak jarauntsiaren erdia kargatuko du (837. artikulua). Eta ondorengorik eta aurrekorik ez badago, gozamenak jarauntsiko bi heren kargatuko ditu (838. artikulua). Ildo beretik, gogoratzekoa da, alarguna senipartedun izan dadin, beharrezkoa dela banandurik ez egotea epaiketa bidez ez egitez (834. artikulua); ezkontide bananduen artean berradiskidetzea gertatuz gero, berradiskidetze hori jakinarazi behar zaio banantzearen gaineko ardurara

izan duen epaitegiari, alargunak seniparte-eskubideei euts die-
zaien (835. artikulua)⁴.

Laburbilduta, Kode Zibilaren eskema bere horretan aplikatzen
zen Galizian, 4/1995 Legeak egindako igorpenaren ondorioz.

3. SENIPARTEDUNAK NORTZUK DIREN ETA SENI- PARTE GISA ZENBAT DAGOKIEN GALIZIAN, AZKEN ERALDAKETAZ GEROZTIK

2/2006 Legeak, senipartearen ondorioetarako, ez du igorpe-
nik egiten Kode Zibilera. Aitzitik, gai horretan berezko arauketa eza-
rri du.

Lege hori indarrean jartzeaz geroztik, senipartedunak nor-
tzuk diren jakiteko, lege berriaren 238. artikulura⁵ jo behar da:

238. artikulua

Senipartedunak dira:

- 1.) Seme-alabak eta aurrez hildako, zuzen jaraungabetuta-
ko edo ezduin gertatutako seme-alaben ondorengoak.*
- 2.) Legez edo egitez bananduta ez dagoen alarguna.*

Artikulu hori arretaz irakurtzeak honako ondorio hauek era-
tortzen ditu:

- Ondorengoak senipartedunak dira, baina, horien artean,
aintzakotzat hartu behar da gradu-hurbiltasuna, ordezkapen-esku-
bidea aplikatu behar denean izan ezik. Beste hitz batzuekin esan-
da, erregela orokorra da, seme-alabak izanez gero, horiek izango
direla senipartedun, bigarren graduko edo gehiagoko ondorengo-

⁴ Horren inguruan xehetasun gehiago, in "Alargunaren oinordetza-eskubideak, Kode Zibila
aldarazi duen 15/2005 Legearen arabera", *Boletín-Aldizkaria*, Academia Vasca de
Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia, III. urtea, 7. zenbakia, 105.etik 121.erako
orrialdeak.

⁵ Itzulpena autorearena da.

ak baztertuz. Alabaina, seme-alaba horietatik bat testamentugilea baino lehenago hilez gero, zuzen jaraunsgabetuz gero⁶ edo ezduin gertatuz gero, ordezkapen-eskubidea aplikatuko da, eta, horren bitartez, ondorengo horren ondorengoek haren lekua beteko dute eta hari zegokion seniparte-zatia eskuratuko, kasu horretan seniparte leinuko banatzen baita, ez, ordea, buruko.

- Aurrekoak ez dira senipartedun izango inoiz, ezta ondorengorik ez dagoenean ere. Hortaz, ondorengorik ez duen testamentugileak askatasun osoz xeda dezake bere jarauntsia, betiere alargunaren gozamenari kalterik egin gabe.

- Alargunari dagokionez, 2/2006 Legeak kontuan hartu du, bateko, uztailaren 8ko 15/2005 Legeak Kode Zibilean egindako aldaketa. Hori dela medio, argi eta garbi ezarri du, alarguna senipartedun izan dadin, beharrezkoa dela banandurik ez egotea epaiketa bidez ez egitez. 2/2006 Legeak aintzakotzat hartu du, besteko, sexu bereko pertsonak ezkondu ahal izatea; ondorenez, sexuaren ondoriozko bereizkeriak ezabatu ditu (laugarren xedapen gehigarria). Eta, amaitzeko, legeak gogoan izan ditu izatezko bikoteak⁷, horiei ere ezkonduen eskubideak eta betebeharrak aitortzeko.

⁶ Jaraunsgabetzearen inguruan, aipatzekoa da 2/2006 Legeak, arlo horretan ere, berezko arauketa jasotzen duela, Kode Zibilera igorpen txiki bat egiten badu ere. Lege berriak bost artikulutan arautzen du jaraunsgabetzea. Horretarako, bi jaraunsgabetze-mota bereizten ditu: zuzena eta zuzena ez dena. Jaraunsgabetzea zuzena izan dadin, testamentuan egin behar da, horren arrazoia beren beregi aipatuta (2/2006 Legearen 262.2 artikulua); horrela eginez gero, jaraunsgabetutako senipartedunak seniparte galtzen du (262.1 artikulua). Zuzen jaraunsgabetzeko arrazoiak 2/2006 Legearen 263. artikuluan daude jasota, eta, halakoak aplikatzeko, ez da kontuan hartu behar nor den jaraunsgabetutako seniparteduna. Arrazoiok, izatez, hurrengoak dira: 1) Testamentugileari mantenua ukatzea; 2) Testamentugileari egitez tratu txarra ematea edo irain larriak egitea; 3) Ezkontzako eginbeharrak modu larrian edo behin eta berriro urratzea; eta 4) Kode Zibilaren 756 artikuluan aipatutako ezduintasun-arrazoiak. Aitzitik, jaraunsgabetzea ez bada zuzena, senipartedunak jaraunsgabetze-akzioa egikari dezake, akzio horren iraungitze-epea bost urtekoa izanik, kausatzailearen heriotzatik zenbatuta (266. artikulua); horrela, jaraunsgabetzea ez bada zuzena, senipartedunak ez du bere seniparte galtzen (264. artikulua).

⁷ Bikote horien definizioa hirugarren xedapen gehigarrian dago jasota. Xedapen horri erreparatuta, 2/2006 Legea aplikatzeko orduan, ezkontzarekin parekatzen dira ezkonduen antzera bizi direnen arteko harremanak, betiere irauteko asmoa edo joera izanez gero; ondorenez, bikotekide horiei hedatzen zaizkie legeak ezkonduiei aitortutako eskubideak eta betebeharrak. Ezkonduen antzera bizi direnen arteko harremanetan, bikotekideak elkarrekin bizi behar dira urte betez gutxienez; inguruabar hori egiaztatzeko bideak dira Erregistroan inskribatzea, nabaritasun-aktaren bidez esanbidezko adierazpena egitea eta zuzenbideak onarturiko beste bide guztiak. Elkarrekin seme-alabak izanez gero, nahikoa izango da, ordea, bizikidetasuna egiaztatzea.

Senipartearen zenbatekoari erreparatuta, ondorengo senipartea eta alargunarena bereizi behar dira. Lehenengoaz ari da 2/2006 Legearen 243. artikulua⁸:

243. artikulua

Ondorengo senipartea osatzen du jarauntsiaren hartzekoak zein balio izan eta balio horren laurdenak; hartzeko hori atal honetako erregelen arabera zehaztu eta gero, seme-alaben edo horien leinuen artean zatituko da.

Hortaz, jarauntsiaren ehuneko hogeita bosta bakarrik dagokio ondorengo seniparteari.

Alargunaren seniparteari buruzkoak dira, berriz, 253 eta 254. artikulua⁹:

253. artikulua

Kausatzailearen ondorengoekin batera pilatuz gero, alargunari bizi arteko gozamena dagokio, seniparte gisa, betiere jarauntsiaren hartzekoaren laurdenaren gainean; hartzeko hori finkatzeko, 245. artikuluko erregelak aplikatzen dira.

254. artikulua

Ondorengoekin batera pilatu ezean, alargunak eskubidea izango du, kapitalaren erdiaren gainean bizi arteko gozamena izateko.

Ondorenez, alargunak gozamen-eskubidea du, jarauntsiaren laurdenaren gainean, ondorengoekin batera agertuz gero, eta, jarauntsiaren erdiaren gainean, ondorengorik izan ezean. Kontuan hartzekoa da aipatu laurden hori ondorengo seniparteari dagokiola, eta, beraz, ondorengoek seniparte gisa jarauntsiko laurdenaren jabetza soila besterik ez dutela eskuratuko, alarguna eurekin batera pilatuz gero, alargun horri laurden horren gaineko gozamena baitagokio.

⁸ Itzulpena autorearena da.

⁹ Itzulpena autorearena da.

4. ETA HEGO EUSKAL HERRIAREN KASUAN, ZER?

Hego Euskal Herriaren kasuan, ezin da eskema bera aplikatu lurralde guztietan, foru-sistema desberdinak tartean daudelako.

Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan, Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioak edo Nafarroako Foru Berriak hauxe ezartzen du 267 eta 268. legeetan¹⁰:

267. legea

Nafarroako senipartea dela bide, nahitaezko jaraunse bakoitzari forma egokian eratzikitzen zaizkio, ondasun higigarriei dagokienez, bost alokairu «feble» edo «carlin» eta, ondasun higiezi-nei dagokienez, herri-mendietako erregu bat lur. Seniparte horrek ez du galdatzeko moduko ondare-edukirik, eta ez du jaraunse-izaerarik eratzikitzen; senipartearen gainean izendatuak ez du inolako erantzukizunik izanen jarauntsiko zorren gainean, eta ezin izanen du jaraunsearen beraren eskubiderik egikaritu.

268. legea

Testamentuaren bidez eta oinordetza-itunen bidez, foru-senipartearen gain izendatu behar dira:

- 1. Ezkontzako seme-alabak, ezkontzaz kanpokoak eta adopzio osoan hartutakoak.*
- 2. Halakorik izan ezean, horien gradurik hurbileneko ondorengoak.*

Bistan denez, Nafarroako Foru Komunitatean, testamentua egiteko askatasuna ezarri da, eta seniparte formala besterik ez da onartu. Argiago esateko, testamentugileak erabateko askatasuna du testamentuaren bidez bere ondasunak xedatzeko, baina izapide formal batzuk bete behar ditu senipartedunak baztertzeko orduan.

¹⁰ Foru-lege zibilak: Euskal Autonomia Erkidegoa. Nafarroako Foru Komunitatea / Leyes civiles forales: Comunidad Autónoma del País Vasco. Comunidad Foral de Navarra, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2. argitaraldia, 2005, 366 eta 367. orr.

Aurrekoa gorabehera, alargunak fideltasun-gozamena du Nafarroan, 253. legean ezarri bezala¹¹:

253. legea

Kontzeptua

Alargunak fideltasun-gozamena du aurrez hildakoari heriotza-unean dagozkion ondasun eta eskubide guztien gainean.

Ondorio hauetarako, legeak onartutako bikote egonkorren kide bat hilez gero, alargun gelditzen den kidearen egoera ezkontide alargunaren egoeraren parekotzat joko da.

Fideltasun-gozamena, beraz, alarguntasunak dakarren oinordetza-eskubidea da, legezkoa, elkarrekikoa eta unibertsala, ezkontidearen heriotzaz geroztik ondorioak sortzen dituena. Bide horretatik, aintzat hartzekoa da 6/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzkoa, horrek parekatu egin dituelako, eskubide eta betebeharretan, ezkonduak eta izatezko bikotekideak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, egoera korapilatsuagoa da, lurralde historikoak bereizteaz gain, lurralde bakoitzaren barruan ere desberdintasunak daudelako. Nolanahi den ere, autonomia-erkidego osoan aplikagarria da 2/2003 Legea, maiatzaren 7koa, izatezko bikoteak arautzekoa.

Aiarako Forua aplikatzen den tokietan (Aiara, Amurrio eta Okondo udalerrri osoetan eta Artziniega udalerriko Mendieta, Erreta-Tutera, Santa Koloma eta Zolloguti herrietan), uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilar buruzkoa, aplikatu behar da, eta, zehatzago, lege horren 134. artikulua¹²:

134. atala

1. Foru-herritasuna daukienez ondasunak askatasun osoz erabil ditzakete, guztiak ala zati bat, testamentuz, agin-

¹¹ Foru-lege zibilak... op. cit., 356. or.

¹² Foru-lege zibilak... op. cit., 109. or.

tzaz nahiz dohaintza bidez, derrigorrezko oinordekoak handiaz nahiz txikiaz baztertu ondoren, on ala hobe eritziagatik.

2. *Ondorengoak, aurrekoak eta ezkontidea joko dira derrigorrezko oinordekotzat, Kode Zibilak erabakitako kasuetan.*

Horren arabera, Aiarako Forua aplikatzen denean, kausatzaileak askatasun osoa du bere ondasunak testamentuaren bidez xedatzeko. Horretarako baldintza bakarra da senipartedunak (ondorengoak, aurrekoak eta ezkontidea) baztertzea. Aiarako senipartea, beraz, sinbolikoa dela esan daiteke. Testamentua egiteko askatasun horri gaineratu behar zaio, halaber, “podere osoko gozamina” eratzeko aukera (3/1992 Legearen 140.etik 145.era) artikulatuak).

Bestalde, Arabako gainerako lurraldean (Aiarako foruaren mende dauden herriak, eta Laudio eta Aramaio kenduta), bai eta Gipuzkoan, Bizkaiko hamabi hiribilduetan, Bilbon eta Orduñan ere, Kode Zibilaren eskema aplikatzen da, artikulatu honen bigarren puntuan azaldu ondorioekin.

Bukatzeko, Bizkaiko lur lauan, Laudion eta Aramaion, uztailaren 1eko 3/1992 Legearen 53, 55 eta 56. artikuluek¹³ ezartzen dute nortzuk diren senipartedunak eta zenbat dagokien seniparte gisa foruaren arabera:

53. atala

Derrigorrezko oinordekoak ondoko hurrenkeraren arauera deituak izango dira, tronkalekoetarako aginduta dagoenaren kalterik gabe:

1. *Seme-alabak, ordekoak barruan direla, eta gainerantzeko ondorengoak.*
2. *Gurasoak eta beste aurrekoak.*

¹³ Foru-lege zibilak... op. cit., 77. orrialdea.

55. atala

Testamentu-egilearen ondasun guztien lau bostenek osatzen dute ondorengo senipartea.

Beste bostena askatasunez bana daiteke, horretarako tronkaleko ez den nahiko ondasunik baldin badago.

56. atala

Aurrekoen senipartea testamentuegilearen ondasun guztien erdiak osatzen du. Beste erdia askatasunez banatzekoa da, tronkaleko ondasunak ez badira behintzat.

Eskema horri helduta, ondorengoak eta aurrekoak dira senipartedunak. Ondorengo senipartea ehuneko laurogeia da, eta aurrekoena, berriz, ehuneko berrogeita hamarra. Dena den, azpimarratu beharra dago seniparte hori ez dela banakakoa, kolektiboa baizik. Hortaz, bazterketa erabilita, senipartedun-taldearen barruan aukeratzeko askatasuna du testamentugileak. Gainera, seniparteari lotuta, tronkalitatearen arauketa aplikatu behar da lehenetsunez, horrek dakartzan berezitasunekin.

Nabari denez, 53. artikulua ez du aipatzen alarguna senipartedunen artean. Alabaina, alargunari honako eskubidea hauek aitortzen zaizkio 58 eta 59. artikuluetan¹⁴:

58. atala

Alargunak oinordetzailearen ondasun guztien erdiaren gozamina izango luke, ondorengoekin edo aurrekoekin batera balego.

Ondorengo zein aurrekorik ez balego, ondasun guztien bi herenaren gozamina izango luke.

Azkenengoz, oinordetzailearen bi belaun-lerroetako tronkaleko ondasunen gainean jarriko da gozamina, lerrootako bakoi-tzaren edukiaren heinean.

¹⁴ Foru-lege zibilak... op. cit., 78. orrialdea.

Alargunaren gozamena, tronkaleko ondasunen pentzu denean, eskudiruko kapital baten truke alda dezakete tronkaleko senideek. Alargunak askatasunez erabil dezake dirutza hori eta berori dela eta, ez du gordekizuna jartzeko eta atzera emateko beharkizunik izango hurrengo lerroaldean aipatzen den moduan ezeztatzen bada gozamen hori.

Alargunaren gozamen-eskubidea ezereztu egingo da berriro ezkontzen bada, edo beste batekin ezkondu-bizimodua badarama, edo ezkondu denboran zein ostean ezkontzatik kanpoko umerik izaten bada, testamentuegileak besterik agindu ezean behintzat.

59. atala

Jarauntsian ez du oinordeko izateko eskubiderik edukiko berari egotzi dakioken arrazoiagatik dibortziazatutako edo banandutako ezkontideak.

Hitz gutxitan esanda, alargunak gozamen-eskubidea du, jarauntsiaren erdiaren gainean, ondorengoekin edo aurrekoekin batera pilatuz gero, eta jarauntsiaren bi herenen gainean, ondorengorik eta aurrekorik izan ezean. Ondorio hauetarako, kritikatzekoa da “erruaren ideia” banantzeari lotuta agertzea, are gehiago banantzearen arloan onetsitako azken legeak gogoan izanik.

5. LABUR-ZURREAN

Galizian gertatutako eraldaketaz geroztik, bertako auzotasun zibila dutenek lehen baino askatasun handiagoa dute testamentua egiteko orduan. Bateko, senipartedunen kopurua murriztu egin da, eta, besteko, senipartearen zenbatekoa bera ere txikitu egin da¹⁵. Ikus, horren adierazgarri, honako taula hau:

Nortzuk diren senipartedunak Galizian			
4/1995 Legearen arabera	Ondorengoak, gradu-hurbiltasunaren arabera, ordezkapen-eskubidea aplikatu behar denean izan ezik	Aurrekoak, ondorengorik izan ezean	Alarguna, bananduta ez badago epaiketaz ez egitez

¹⁵ Askatasun hori zabaltzeko tenorean, gaineratu behar da 2/2006 Legearen 182. artikulua ezabatu egin dituela lege-itzulketak eta erreserbatzeko betebeharra.

2/2006 Legearen arabera	Ondorengoak, gradu-hurbiltasunaren arabera, ordezkapen-eskubidea aplikatu behar denean izan ezik.	Alarguna, bananduta ez badago epaiketaz ez egitez
--	---	---

Halakoei zenbat dagokien seniparte gisa Galizian

Ondorengoei 2/3 (seniparte luzea)	Heren bat (seniparte hertsia), zati berdinetan banatu beharrekoa, gradu-hurbiltasunaren arabera, ordezkapen-eskubidea aplikatu behar denean izan ezik	Beste heren bat (hobekuntzako), ondorengoen artean banatu beharrekoa, testamentugileak nahi bezala, jabetza osoz, alargunik izan ezean, eta, jabetza soilaz, alargunarekin batera pilatuz gero
--	---	--

4/1995 Legearen arabera ↓ →	Aurrekoei	Heren bat, jarauntsian alargunarekin batera pilatzen direnean	Jarauntsiaren erdia, alargunik izan ezean
---	------------------	---	---

Alargunari, gozamen- eskubidea	Hobekuntzako herenaren gainean, ondorengoekin batera pilatuz gero	Jarauntsiaren erdiaren gainean, aurrekoeikin batera pilatuz gero	Jarauntsiaren bi herenen gainean, ondorengorik eta aurrekorik izan ezean
---	---	--	--

2/2006 Legearen arabera ↓ →	Ondorengoei	Jarauntsiaren laurden bat, jabetza osoz, alargunik izan ezean, eta, jabetza soilaz, alargunarekin batera pilatuz gero
---	--------------------	---

Alargunari, gozamen- eskubidea	Jarauntsiaren laurdenaren gainean, ondorengoekin batera pilatuz gero	Jarauntsiaren erdiaren gainean, ondorengorik izan ezean
---	--	---

Argi dago senipartearen lege-helburua dela kausatzailearen sende jakin batzuek dohainik ondare-eduki zehatz bat jasotzea. Horregatik, senipartea da testamentugilearen askatasunari, edo, zehatzago esanda, testamentugilearen xedatze-ahalmenari ezarritako mugetatik bat¹⁶, erreserbekin eta itzulketarekin batera (eta, Bizkaiko foruaren kasuan, tronkalitatearekin batera). Muga hori indartzeko, senipartearen izaera eta kopurua ukitzeko ezintasuna ezarri da.

Zernahi gisaz, seniparteak dakarren muga horri kalterik egin gabe, testamentugileak nolabaiteko askatasunarekin joka dezake, dela hobekuntzako herena ondorengoan artean xedatuz, dela jaraungabetze zuzena burutuz, dela seniparte hertsia gainera fidekomisozko ordezpenez ezarrituz (seme edo alabaren bat ezgaituta egonez gero bederen). Foruaren kasuan, askatasuna baliatzeko bideak dira, besteak beste, bazterketa eta senipartearen izaera kolektiboa, betiere testamentu mankomunatu, oinordetza-itunak eta alkar-poderosoa ahanzi gabe.

Eskema horren barruan, denetariko argudioak erabil daitezke, nola testamentua egiteko askatasuna indartzearen alde, hala askatasun hori ahalik eta gehien murriztearen alde¹⁷. Egia esan, eta mutur batean jarrita, gaur egun inork ere ez dio eusten ondatsun guztiak erreserbatzeko sistema hertsia eta zorrotzari. Beste mutur batean jarrita, ordea, aditu batzuek senipartearen ezabatzea defendatzen dute¹⁸.

¹⁶ Senipartearen izaera eta kontzeptua sakontzeko, ezinbestekoa da Alfredo García-Bernardo Landeta notarioaren lan hau kontsultatzea: *La legítima en el Código Civil*, Oviedo, 1964, 766 orrialde. Egileak, bere azalpenak eta iritziak adierazteaz gain, beste aditu batzuenak erejaso eta komentatzen ditu.

¹⁷ C. López Beltrán de Heredia jaunak halako argudioak jasotzen ditu, labor-labor, in *Oinordetza zuzenbidea*. F. Capilla, A. M. López, E. Roca, M^o R. Valpuesta, V. L. Montés (koord.), Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1997, 339.etik 342.erako orrialdeak.

¹⁸ Ikus, ildo horretatik, Victorio Magariños Blanco notarioaren hitzak in «La libertad de testar», *Revista de Derecho Privado*, 2005. urteko iraila-urria, 30. or.: «... partiendo del rechazo que de modo generalizado se advierte en los despachos, de la ausencia de un fundamento consistente, como pudiera ser la protección familiar o la existencia de una función social de la legítima que justificara la limitación, y teniendo en cuenta los cambios operados en la realidad social que hacen más necesaria la protección de los que se esforzaron en crear y mantener un patrimonio, se impone la libertad de testar como manifestación de la libertad civil y como consecuencia básica de la defensa y conservación del contenido esencial del derecho de propiedad y de la herencia. Considero, pues, necesario que se impulse una modificación del sistema sucesorio que acoja la libertad de disponer mortis causa, con el complemento de los pactos sucesorios y el testamento mancomunado, y con las limitaciones derivadas del deber de alimentos y del patrimonio familiar...»

Nondik-nahi begiratuta, Europako zuzenbideetan eta Espainiako estatuko foru-zuzenbideetan, egungo joera da, seni-parte-sistema ezabatu gabe, testamentua egiteko askatasuna zabaltzea. Horixe da, hain justu ere, Hego Euskal Herrirako erreibindika daitekeena, Nafarroako Foru Komunitatearen egoera eta Aiarako Foruarena euren horretan utzita. Joera horretan, eredu ahantzezina da Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Lehenengo Lege Aurreproiektua. Aurreproiektu hori Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak prestatu zuen 2000. urtean, Eusko Jaurlaritzarekin, eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru-aldundiekin sinatutako hitzarmenari esker. Aurreproiektu horren 47. artikulua arabera, jarraikoak dira senipartedunak: ondorengoak, gradu-hurbiltasuna kontuan hartu gabe (hortaz, iloba edo urrunagoko ondorengoa seniparteduna izan daiteke, horren gurasoak edo aurrekoak bizirik egon arren); ondorengorik izan ezean, aita eta ama edo horietatik bizi dena (ez, ordea, bestelako aurrekoak); eta, orobat, alarguna, gozamedun gisa. 49. artikulua arabera, jarauntsiaren bi herenek osatzen dute ondorengo senipartea. Gurasoen senipartea, ostera, heren batekoa da (52. artikulua). Alargunak, bestalde, gozamen-eskubidea du, jarauntsiaren erdiaren gainean, beste senipartedunak izanez gero; eta, jarauntsiaren bi herenen gainean, beste senipartedunik izan ezean (53. artikulua).

Aurreproiektu hori gogoratzekoa da, hausnarketa berrietarako oinarri alboraezin gertatzen baita. Euts diezaiogun berriro ere bide horri, gure foru-legea gizarte-errealitate hurbilago egon dadin eta horren beharrianak hobeto ase ditzan.

6. BIBLIOGRAFIA

Lege-testuak:

—Ley 4/1995, de 24 de mayo, de Derecho civil de Galicia. Diario Oficial de Galicia, 107. zk., 1995. urteko ekainaren seikoa.

—Ley 2/2006, de 14 de junio, de Derecho civil de Galicia. Diario Oficial de Galicia, 124. zk., 2006. urteko ekainaren 29koa.

—*Kode Zibila/Código Civil*. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2004, 1255 orrialde.

—*Foru-lege zibilak: Euskal Autonomia Erkidegoa. Nafarroako Foru Komunitatea / Leyes civiles forales: Comunidad Autónoma del País Vasco. Comunidad Foral de Navarra*. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2. argitaraldia, 2005, 620 orrialde.

—*Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Lehenengo Lege Aurreproiektua / Primer Anteproyecto de Ley de Derecho Civil Vasco*. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, Bilbo, 2000, 160 orrialde. Argitalpen elebiduna da.

Eskuliburuak:

—*Oinordetza zuzenbidea*. F. Capilla, A. M. López, E. Roca, M^a R. Valpuesta, V. L. Montés (koord.), Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1997, 766 orrialde.

—*Compendio de Derecho civil. Derecho de sucesiones (tomo V)*. F. Lledó Yagüe (zuz.), Dykinson, Madril, 2004, 631 orrialde.

—*La legítima en el Código Civil*. A. García-Bernardo Landeta, Oviedo, 1964, 766 orrialde.

—*Derecho de sucesiones. Común y foral*. J. J. Rivas Martínez, Dykinson, Madril, 2004, 984 orrialde.

—*Derecho de sucesiones de Galicia. Comentarios al Título VIII de la Ley de 24 de mayo de 1995*. A Coruña Notarioen Elkargoa, Consejo General del Notariado. Madril, 304 orrialde. Argitalpen elebiduna da, gaztelaniaz eta galizieraz.

Artikuluak:

—MAGARIÑOS BLANCO, V., «La libertad de testar», *Revista de Derecho Privado*, 2005. urteko iraila-urria, 3.etik 30.erako orr.

Web-orriak:

—Mayán Santos, M. E., «La nueva ley de Derecho Civil de Galicia», Noticias jurídicas, 2006. urteko ekaina: <http://www.juridicas.com/areas/45-Derecho%20Civil/10-Art%EDculos/200606-585597510631571.html>

—Las legítimas en la futura ley de Derecho Civil de Galicia. J. A. Montero: <http://www.xornal.com/article.php3?sid=20060605085525>

—Torres García, T. F., «Legítima y legitimarios y libertad de testar (síntesis de un sistema), Sucesiones: Política del Derecho. Novedades: <http://derechocivil.net/ponencias/document.php?id=141>

Esther Urrutia Idoiaga

JOSE ANTONIO IRAZUSTA MUNOA, LEGELARIA ETA EUSKAL IDAZLEA (1884-1952)

Tolosar honen biografian euskarazko eleberriak nagusitu badira ere, esan beharra dago jurista euskaldun baten aurrean gaudela¹. Izan ere, Deustuan eta Madrilen zuzenbide-ikasketak egin ondoren, 1933.etik eta 1936.era urteetan EAJ-PNV alderdiaren diputatua izan zen Madrileko Gorteetan. Ardura nabariak izan zituen bere diputatu-zereginetan, batik bat, nekazaritza-gaietan, eta, bereziki, Espainiako II. Errepublikaren garaian bizi-bizirik zeuden landa-errentamenduen gorabeheretan. Gerra bitartean erbeste-teratu eta ibilbide luze baten ondoren, Perura jo zuen. Buenos Airesen argitaratzera eman zuen *Joanixio* (1946) eta *Bizia garratza da* (1950), euskal letretan sona handia eman ziotenak. Perun apez-tu eta han zendu zen, misiolari ziharduela.

Dena den, diputatu izan zen garaian, euskaraz idatzi zuen gai juridikoei buruz, besteak beste, landa-errentamenduei buruz. 1935. urtean aldarrikatu zuen II. Errepublikak landa-errentamenduen

¹ Bizitzari buruzko xehetasun gehiago in JOXEMARI ITURRALDE: *Jon Andoni Irazusta (1884-1952)*. Bidegileak, 30. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz, 2003. Testu bera in www.euskadi.net/bidegileak/irazusta.

lege berria, gerora ere luze iraun zuena. Haren ekina laster iragarri zen, *Centro Vasco de Bilbao* izenekoan, 1935. urteko apirilaren 20an, gaztelaniaz eman zuen hitzaldiaren bidez. Horren testua *La Editorial Vizcaina* argitaletxeak argitaratu zuen, Bilbon, 1935. urtean, hurrengo izenburupean: *La ley de Arrendamientos Rústicos/Interesante conferencia del culto abogado tolosarra y diputado a Cortes por Guipúzcoa D. Jose Antonio de Irazusta, pronunciada en el Centro Vasco de Bilbao la noche del sábado día 20 de Abril de 1935.* Orduko hartan, alabaina, Irazustak kritika gogorak egin zizkion legeari: *Esta ley, señores, adolece, como todas las que se hacen en España, de un inconveniente gravísimo; adolece de la falta de diferenciación. Es imposible, es materialmente imposible que una ley, que pueda ser un acierto en Extremadura, sea adecuada aquí. Si lo reconocen todos; es una cosa imposible. Hay diferencias que las da el clima, la naturaleza; las da la sangre; son diferencias que no se pueden evitar. Y la ley tiene que salvar esas diferencias. Si la diferenciación es una ley biológica, y si una ley biológica no se respeta, todas las leyes que vengan después no harán más que ir de tumbos en tumbos* (19. or.).

Gaztelaniaz hala egin bazuen ere, Irazustak, beti adi, berehala argitaratu zuen *Argia* asteroko gipuzkoarrear artikulua sorta ederra, baserritarrei adierazteko zein zen lege horren edukia. Horretan, zer esanik ez, jarraibidea eman zion, lau urte lehenago Bizkaiko Foru Aldundiak landa-errentamentuen inguruan euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu zuenari: *Excma. Diputación de Vizcaya / Bizkai´ko Aldundi Gurena: Decreto del Gobierno Provisional de la República española dictando normas para que los inquilinos o arrendatarios de fincas rústicas puedan solicitar la revisión de las rentas que consideren abusivas / Laterri´ko edozein errentadorek, berak gau pagetan daben etxe-errentea larregikoa dala baldin baderitxo, erenta ori legez ikusi, ta bere neurrira ekarri daiten eskakizuna sartu al izateko, España´ko Errepubliketa´ren Agintaritzan nagusiak emoniko agindua* (Bilbo, Imprenta Provincial de Vizcaya, 1931).

Hortaz, nekazari euskaldunei interesekoak zitzaizkien gaiak euskaraz emateko ohiturari eutsi zion Irazustak, eta, aldi berean, legeak gaztelaniaz zerabilen terminologia juridikoa ere euskaraz

landu eta sakondu zuen. Izatez, lerro horietan dira, labur eta mamitsu, orduko legearen nondik norako agerikoenak. Irazustaren iritzia ere, ez aldekoa, hark euskal estatutuan ikusten baitzuen zinezko irtenbide bakarra: *Baña lege ura txokoratu da, ta zerbait egingo balitz ere ez litzake gauz aundia izango. Gobernu au dagon bitartean ezer ez. Gero bear ko. Jakiña dago, guk Estatutoa edo Araudia gereganatu ezker ori guztia lan errexia izango litzakela. Ura irabazi bear lenengo. Gogoak uts egiten dualako ez da. Ikusiko degu urte onek berakin zer dakarren.*

Ez da ohikoa, bestalde, euskaraz trebe eta zoli den idazle baten testu juridikoak aurkitzea. Horrexegatik egoki iritzi diogu orduko testu-sorta hura gure aldizkarian argitaratzeari, aldi bateko lekukotza ez ezik, euskarazko lan juridikoaren lorratza ere badelako; hain zuzen, aldizkari honek hartu duen bidean aitzindari estimatu eta preziatua.

Artikulua, hortaz, argitaratu zen modu berean ematen da. Grafia-kontuak eta bestelakoak ez dira ukitu ere egin, horrela bizitasun eta lekukotasunik osoena ematen dugulakoan. Osagarri gisa, oinoharretan, jatorrizko lege-testua gehitu da², irakurleak eskura izan dezan Irazustaren abiapuntua. Argitalpenari dagokionez, jakin beza irakurle jakinguratsuak artikuluko-sorta hau argitaratu zela in *Argia*, 734 (1935-10-5), 735 (1935-10-12), 736 (1935-10-19), 737 (1935-10-26). Zer non argitaratu zen testuaren barruan adierazten da. Eskerrak, bide batez, Nagore Etxebarriari, egin duen transkripzioarengatik, eta *Labayru* Ikastegiaren Bibliotekari, *Argia* asterokoaren irudiak harteko eman duen baimenarengatik.

Andrés Urrutia Badiola

² Ley de 15 marzo 1935 / 1935. urteko martxoaren 15eko Legea (*Arantzadi* bildumaren erreferentzia: 1794)

[Argia aldizkariaren 734. zenbakia]

MAIZTER-LEGE BERRIA

(Emen degu berriro “Jon Andoni” jauna, ta ez nola-naiko gaia artu-ta. Nekazariak!, irakurri ta irakurri erazi zuen adixkideai, zuzen-zuzen dagokizuen arazoa da-ta. —T.)

Jorrailla'ren lenengo eguna ezkerro daukagu Maizter-lege berri bat. Guztiok jakin nai zer dan eta zer dion. Guztiok jakin nai emengo baserria zenbateraño ikutu lezaken. Pazko bigarreneko billera Nekazari Bazkuna'k Tolosa'n egin zuanean ala agertu zan beñepein. Gogo ura ikusirik agindu nien ARGIA'n zerbait esango nuala ta emen naiz baserritarrantzat jakin bearrenak esatera.

Ez dakit asmatuko detan garbiro idazten. Itzak banan-banan biurtzea besterik ez balitz gauz erreza legoke, baña zer edo zer geiagoda: ongi aukeratu ta egoki esan. Neretzat lan geitxo. Aitaren egin, alegiña ere bai ta aurrera.

SUTARAKO EGURRA

2'garren artikulo'ak dio basoak ematen duana ez dala errentan sartzan. Basoak iru gauza ematen ditu: zugaitza bera, adarrak eta ostoia. Lege onek dionez, kontrato'an garbi esaten ez bada, denak nagusiarentzat dira.³

Zugaitza berarekin zer esanik ez dago: beti nagusiarena izan da.

Ostoia, iñorkiña, berriz, 9'garren artikulo'an azkenean esaten danez maizterrana da baserria, osatzeko bearra dalako.

Baño, egurra? Legeak esaten dunari zipotzkerin eutsi bear bazaio, egurra ez da maizterrarentzat. Emendik aurrera, nagusiak nai badu, baserritarrak ez du egurrik izango ez saltzeko ta ez etxerako.

Ori ala da. Alaz guztiz ez det uste gertatuko danik. Nagusiak, zitalkeriz, bere eskubide osoari eldu nai balieke, maizterrak esan

³ Art. 2º... Salvo pacto expreso, en el arrendamiento de una finca no se consideran incluidos: a) Los aprovechamientos forestales de la misma. Se entenderán por tales las cortas totales o parciales de monte alto y bajo y de árboles maderables, y las parciales de los que no lo sean...

lezake: *¿a, bai?*, orain zugaitzak ez dituzu salduko, inorkiña kentzen didazu ta.

Ez; bai batari ta bai besteari egokigo zaiote oraindano beze-la zintzo-zintzo jarraitzea. Bada kontratua egitekoan, ba ez bada, jarri aztu gabe, egurra maizterrentzat izango dala.

MAIZTER ORDEA

4'garren artikulua dio, maizterrak ezin beste bati eman lezaioke errentan berak daraman puskarik. Baldin emango balu nagusiak etxetik bializ lezake.⁴

Ez da ikaratu bear: artikulua ortan bertan esaten du eman litez-kela lurrean berez datozen gauzak, garamenak eta barrutik bezela.

Uste det maizterrak eskubide orrekin naikoa dula. Nekez beste puskarik ematen du. Garadin bat, belazen bat, etxea aundia bada, ta gero negun artzaiari larra. Oiek egin lezazkike. Beste puskarik errentan eman ez.

KONTRATO IDATZIA

Au da 5'garren artikulua. Begira zeregin bear duten bai nagusiak eta bai maizterrak legeak ematen dizkaten eskubideak ez galtzeko. Lenengo, iru paper berdiñak egin erriko Juez'aren aurrean edo Notario baten aurrean eta ondoren paper oietako bat Registro de la Propiedad'era eraman. Paper oietan jarri bear diran gauzak geitxo dira. Legeak agintzen ditunez gañera base-rritarrei beste zerbait jartzea egoki lezaieke ta onena izango da bakoitzak berea egiteko. Gipuzkoako Nekazari Bazkuna'ra agertzea ta bertan egingo dizkate bear dituen guztik.

⁴ Art. 4°. Quedan prohibidos los subarriendos de fincas rústicas. El arrendatario podrá, no obstante, ceder los aprovechamientos espontáneos o secundarios de la finca, como montañas, pastos, rastrojeras, caza y otros análogos cuando la finca sea susceptible de varios aprovechamientos... Será causa de desahucio del arrendatario el subarriendo otorgado por el mismo, contrariando las prescripciones contenidas en el presente artículo, sin perjuicio de la nulidad del subarriendo.

ERRENTA

Nasteri pixka bat badegu emen. Begira nolaz.

7'garren artikulok dionez nagusi maizterrak beran artean errenta jarri bear dute. Lenengo urtea betetzean maizterrak Juez'ari eskatu lezaioke jexteko Juez'ak erabaki bitartean errenta Juzgadun eman bear du. 1.000 peseta edo gutxigoko errenta bada erriko Juez'ak erabakiko du; geiagokoa bada Partido'ko Juezak. Alde guzietara bein ordaindutako errenta ezin aldatu. Ondorengo zenbat izango dan esateko, nagusi maizterrak bateratzean badira, Juez'ak zer egiñik ez dauka; bestela, berriz, Juez'ak esango du zenbat, lurak ematen dutena ikusita, zenbatean saltzen diran, lanean egindako gastuk jakinda, kontribuzio ikusita erriko usuarioak ere bai.

Ori bakarrik ez da. Oraindik matilla geiago ere sortu litezke.

Baña gañerakoak alde batera utzita, gauza bat esan bearra dago. Oraindaño idatzi gabe izan diran kontratoak urte muga iritxi arren ez dira bukatzen. Nagusia ta maizterra ixilik badaude, len bezelaxe aurrera.

8'garren artikulok badago beste zer bait esan bearra. Ugalde batekin, lur-ikararekin, beste nola-bait urteko lanak galduko balirake, maizterrak ez du errenta osoa oradaindu bearrik. Ortarako, zortzi egun barru nagusiak bear dio.

Naspilla ugari izan liteke. Euskotarren zentzu onak zuzenduko alditu.

Luzetxo izan ez dedin gaurko idatzia, datorren igandean jarraituko det.

Jon Andoni

[735]

Goazen aurreruntz lege berri onek baserritarra zertan ikutu lezaken agertuaz.

IRAUPENA

9'garren artikulotik esan liteke azkeneko zatia bakarrik ajola zaiola maizterrari. Azkeneko zatia iru pusketan: lenengo, kontratua gutxienaz lau urterako egingo dala; bigarren, naiz nagusiak puskak saldu, maizterrak ibilliko dituala, bi edo iru nagusi izan arren; eta irugarren, etxe bizitza ta lurak ezin banatu litezkela. Ori, guk sartua da: Aldun abertzaleen lana ta ez beste inorenena.⁵

LUZAPENA

Iraupenaren ondorean dator luzapena.

10'garren artikulotik dionez, maizterrak luzatu lezake kontratua beste lau urterako, ta gero berriro beste laurako, ta orrela ondorean. Orretarako nagusiari urtebetez aurretik esan bear dio baña ez nola nai: idatzita.⁶

Luzapen ori, nagusiak ebaki lezake alderdi batera baño geiagotara. Gero agertuko dira besteak. Ona emen oraingoa: 11'garren artikulotik.

Nagusiak berez, bere emazteak, gurasoak, ondorengoak edo senideak baserria ibili nai baluteke, eskubidea daukate. Naikoa du nagusiak bere asmoa maizterrari idatzita agertzea urtebetez aurretik.⁷

Eta, emen geienak diran bezela, idatzi gabeko kontratua balitzake, Jainkoak dakinetik asitakoa, orduan nagusiak biali

⁵ Art. 9º... Si el arrendamiento se refiere a una explotación agrícola de diversos cultivos complementarios, su plazo mínimo de duración legal será el de cuatro años, considerándose inseparables las tierras de diferentes cultivos entre sí, y éstas de la casa de labor.

⁶ Art. 10º. El arrendatario podrá prorrogar la duración del contrato por uno o varios períodos iguales a los de las rotaciones de cultivo de la finca arrendada. Para ejercitar este derecho deberá el arrendatario previamente notificarlo por escrito al arrendador con doce meses de anticipación, por lo menos, a la fecha del primero y sucesivos vencimientos.

⁷ Art. 11º. Quedará sin efecto el derecho de prórroga establecido en el artículo anterior cuando el propietario de la finca, por sí o por su cónyuge, descendientes, ascendientes o hermanos, se proponga cultivarla o explotarla directamente, en cuyo caso vendrá obligado a realizarlo por un período de tiempo no inferior a los mínimos establecidos en el artículo noveno de esta Ley...

lezake maizterra urteko gauzak jasotzean. Orduan ez du urtebete itxoin bearrik. Baña ori egiteko nagusiak baserria dagon erri berean bizi dana bear du.

Ainbeste naspilla dakarzki legeak, alakoxe zera bat ematen dit euskeratzeak. Euskeratzerakoan illunago ez al det jarriko ta jarraitu egingo det.

12'garren artikuloak esaten ditu nausiak zor dituanak. Ara emen:

1n. Baserria edo lurra esandakoan ematea. Contratoa Registro'an sartzea ematea bezela da.

2n. Maizterrari baserrin pakean iraunazi.

3n. Contrato'aren erdia ordaindu.

4n. Contrato'a bizirik dagon artean obra'k eta gañerakoak baserriak bear bezela iraun dezan egitea.

5n. Contribuzioa ordaintzea.

6n. Urtean baserriak ematen duana Segurotan sartu ezkerro, andikan zerbait ordaintzea.

Eta errenta osorik edo zer edo zer galdu, uralde edo alako-
ren batekin sorotan dagona galduko balitzake.⁸

⁸ Art. 12º. El arrendador está obligado: Primero. A entregar al arrendatario la finca objeto del contrato en la fecha que en el mismo se señale a tal efecto. Se presume hecha la entrega por la inscripción del contrato de arriendo. Segundo. A mantener al arrendatario en el goce pacífico del arrendamiento durante todo el tiempo del contrato. Tercero. A abonar la mitad de los gastos que ocasione la formalización del contrato. Cuarto. A hacer en la finca, durante el arrendamiento, todas las obras y reparaciones necesarias, con el fin de conservarla en estado de servir para el aprovechamiento o explotación a que fue destinada. Quinto. A satisfacer los gravámenes, contribuciones e impuestos de toda clase que recaigan sobre la propiedad de la finca arrendada. Sexto. A pagar la parte de cuota o prima anual de seguros que, con arreglo a los dispuesto en el artículo octavo le corresponda, en el caso de que por mutuo acuerdo o por exigencia de una de las partes se hayan asegurado las cosechas.

Maizterrak berriz, bere aldetik, zorrak baditu, 13'garren artikuluan daude:

1n. Errenta bear bezela ordaintzea.

2n. Baserria eta lurak guraso eran ibiltzea.

3n. Contratoa'n erdia ordaintzea.

4n. Zerbait kaltegarri edo norbaitek egiten duala gertatuko balitz len bai len nagusiari esatea.

5n. Bear diran obra'k eta meiorak nagusiari egiten uztea.

6n. Contratoa bukatzean baserria nagusiari artu zunean bezela itzulean ematea.

7n. Urtean baserriak ematen duana Segurotan sartu ezke-ro, artarako zerbait ordaintzea.⁹

15garren artikuluan agintzen du irtetera dijoan maizterrak sartzera dijoanari utzi bear diola urrengo urteko lanak egiten; eta berriak berriz zarrari urteko gauzak jasotzen. Bai batak eta bai bestek errin bertan usuarioa, oitura, dan bezela.¹⁰

⁹ Art. 13º. El arrendatario está obligado: Primero. A pagar el precio del arriendo en los términos convenidos... Segundo. A usar de la finca, destinándola al cultivo o explotación para que ha sido arrendada... Tercero. A abonar la mitad de los gastos de formalización del contrato. Cuarto. A poner en conocimiento del arrendador, en el más breve plazo posible, toda usurpación o novedad dañosa que otro haya realizado o abiertamente prepare en la finca arrendada, así como también la necesidad de todas las obras y reparaciones que sean indispensables para mantener el uso que se venga dando a la finca... Quinto. A tolerar las obras y reparaciones expresadas en el número anterior... Sexto. A devolver la finca, al concluir el arriendo, tal como la recibió con sus accesiones, salvo lo que se hubiera menoscabado por causa inevitable... Séptimo. a pagar la parte de cuota o prima anual de seguro que, con arreglo a lo dispuesto en el artículo octavo, le corresponda...

¹⁰ Art. 14º. (15. artikulua okerretara aipatuta dator euskal testuan, 14. artikulua baita) El arrendatario saliente debe permitir al entrante o al propietario, en su caso, los actos necesarios para la realización de las labores preparatorias del año siguiente, y, recíprocamente, el entrante o el propietario, cuando recabe la finca para cultivarla directamente, tiene obligación de permitir al arrendatario saliente lo necesario para la recolección y aprovechamiento de los frutos, todo ello con arreglo a la costumbre del lugar.

16'garrena garrantzi aundikoa da.¹¹

Nagusiak baserria edo puskan bat saltzean maizterrak bereganatu lezake, erostunari berak ordaindutakoa ta contratoarengatik eta baserrin bear-bearreko egin ditun lanarengatik ordaindutakoa emanda.

Ori nola egin ikusi bear orain, eta ez da errexa. Naspilla dago. Ia zerbait garbiro agertzen degun.

Saltzalleak erostunari esan bear dio maizterra zein dan eta baserria edo puska nola daraman.

Erostunak maizterrari esan bear dio erosi duala.

Maizterrak bereganatu lezake orduetzkeroz illabete igaro baño lenago.

Eta erostunak maizterrari ezer esan ez ba-dio? Or lanak. Erostunak eskubiderik ez du galtzen eta maizterrak bai.

Alaz guztiz maizterrak bereganatu lezake Registroan salmenta ipiñi ta illabete igaro baño lenago. Eta Registroan ez ipiñi ta salmenta ori ezkutuan balegoke maizterrak jakiten duanetik illabete igaro baño lenago.

Gauz bata agertzen da garbi: maizterrak begia bizkor Registroan euki bear duala.

¹¹ Art. 16°. En todo caso de transmisión a título oneroso de una finca rústica arrendada, de porción determinada o de participación indivisa de la misma. Podrá el arrendatario ejercitar el derecho de retracto, subrogándose al adquirente en las mismas condiciones estipuladas en el contrato de transmisión, mediante los reembolsos determinados en el artículo 1518 del Código Civil. Si la enajenación no se hubiere verificado por precio en metálico, el retrayente satisfará el valor de la finca o participación objeto del retracto, además de los citados reembolsos. En todos los casos de enajenación de una finca arrendada, el vendedor tendrá la obligación de notificar al comprador el arrendamiento a que está sujeta, notificándole la existencia del contrato y los pactos y condiciones del mismo, y exigiendo un recibo de esta notificación. El comprador, por su parte, tendrá la obligación de notificar al arrendatario la compra de la finca o fincas arrendadas para que éste pueda ejercitar el derecho de retracto que autoriza este artículo, lo cual podrá efectuar dentro del plazo de tres meses, a contar de la fecha de notificación del comprador. Si el vendedor de la finca no diera cuenta del arrendamiento al comprador, o éste, por cualquier causa, incluso por ignorar el arrendamiento, no notificara la compra al arrendatario, este último conservará el derecho de retracto durante tres meses, a partir de la fecha en que el retrayente, por cualquier medio, haya tenido conocimiento de la transmisión.

17'garren artikulo'ak esaten du, maizterrak era ortan baserria bereganatu ezker ezin saldu edo errentan emango duala sei urte igaro baño lenago.¹²

Au bezelako gauz sakonetan pitinka-pitinka ibiltzea onena. Gaur naikoa esango genun noski. Datorren igandean mejorakin asiko gera.

Jon Andoni

[736]

Apika beste gauza bat izango ez da maizter nagusi arazo ontan "mejora'k" aña galdera sortzen duanik.

Ai beza: nik berrogei sagar landatu nitun; edo sukaldea jarri nuan; orduan etxetik ateratzen naiz eta nagusiari ordaindu bear al dizkit? Zenbat eta zenbat olako noiz nai.

Lege berri onek luzaro mintzatzen du orretzaz. 19'garren 23'rañoko artikulo'ak dira. Gauza erabaki dutenik ezin esan. Ara berak.

Mejora'k iru eratakoak dira: bear-bearrekoak, egokik eta gogozkoak.

Bear-bearrekoak dira baserria artu zanean bezela ibiltzeko ezin ukatu litezkenak. Nagusiaren gain. Baño, nola? Nagusiak egingo ez balitu maizterrak iru eskubide dauzka: juzgaduz eskatu, baserria utzi ta errenta jetxi mejora'k egiten ez diralako baserriak gutxigo eman-go balu. Gauza gutxi. Nagusiaren mendean jarrai bear.

Egokiak dira berari eskerrak baserriari geiago emanazitzen dienak. Mejora egokiak bai batak eta bai besteak eskatu lezateke, baña egiteko biak nai bear. Ori ta atariko aizea bat.

¹² Art. 17º. Cuando por haber usado el derecho que le concede el artículo 16 de esta Ley, el arrendatario adquiriera la propiedad de la finca arrendada, no podrá, por ningún título "Inter. Vivos", ni en todo ni en parte, enajenarla, arrendarla, cederla en aparcería ni enajenar ninguno de los derechos que integran el pleno dominio de la misma hasta que transcurran seis años desde la fecha de la adquisición de la finca.

Gogozkoak berriz noiz nai egin litezke. Egiten dituanak ordaindu ta kito¹³.

Ori da dena. Beste matilla txiki batzuk badira tartean baña iru oiek beñepein aundienak.

Iñork ezin esan lezake gauza erabakia dagonik eta askoz gutxigo ere. Orain ere onena izango da kontrato'an jartzea nola bear dan. Eta ala ere naiko lan.

Ondorean daor maizterra baserritik nola biali liteken.

Tartean, orratik, beste gauzatxo bat badago ta esan bear det: Nagusiak, baserria beretzat edo bere aideantzat bear duala esan eta maizterra bialtzen badu, gutxienez lau urte ala ibili bear; bestela maizterrak eskubidea dauka berriro baserrira itzultzeko ta gañera kalteak eskatzeko.

Eta orain, ia noaz maizterra biali liteken.

28'garren artikulo'an datoz erabakiak:

1.- Esandako denbora ta luzapenak bete diralako.

2.- Nagusiaren eskuetan ez dagon eskubide batengatik, baserria beste nagusi batena izatean.

¹³ Art. 20°. Las mejoras que se realicen en las fincas objeto del arriendo pueden ser obligatorias y voluntarias, y éstas, a su vez, útiles y de adorno o comodidad. Son obligatorias las impuestas por la ley o por resoluciones firmes de la Administración o de los Tribunales. Útiles, las que, sin estar incluidas en el grupo anterior, produzcan aumento en la producción de la finca o en su valor. Y de adorno o comodidad, las que simplemente contribuyan al embellecimiento de la finca o a la comodidad del que la disfruta...

Art. 21°. Las mejoras obligatorias serán de cuenta del arrendador y no darán derecho a la elevación de la renta si no produce aumento en los rendimientos de la finca. Si lo produjesen el aumento de aquélla será proporcional al de éstos. Si no mediare acuerdo entre el arrendador y el arrendatario, el Juez o Tribunal competente, previo informe de los Servicios agronómico o forestal, determinará el aumento que la renta debe experimentar.

Art. 22°. Las mejoras útiles podrán realizarse por iniciativa del arrendador o del arrendatario o por convenio entre los mismos, pero nunca se llevarán a cabo sin la autorización previa de ambas partes, o, en su caso, sin que hubiere recaído la oportuna resolución del Juez o Tribunal competente...

Art. 23°. Las mejoras de adorno o comodidad serán de cuenta de quien las ejecute, sin derecho a indemnización alguna...

3.- Errenta ez ordaintzean. Baña orduan juzgadora deitu ta zortzi egun baño lenago juzgadun errenta ordaindu ezkerok bialtzerik ez.

4.- Maizterrak beste bati eman ezin lezakena errentan emango balio.

5.- Baserrin edo lurretan kalterik balitzake maizterrak bear bezela ez dabilzkilako.

6.- Baserria kontratoan esan bezela ez ibiltzeagatik.

7.- Nagusi berriak berak ibiltzeko erosi dualako.¹⁴

Kezka izugarri bat sortzen zait egunero lege au idazten asi nintzanetik. Norbaitek uste lezake nik esandakoak ikasi ezkerok naikoa dakila. Eta ez da ala. Nik esandakoak axal-axalean daudenak dira. Gutxi gora bera nundik ibili jakiteko, ez estropozo gabarik ibiltzeko. Zerbait gertatu ezkerok bakoitzak galdetu egin bearko du. Ez du gauza zalla: or dago Nekazari'en Bazkuna zalantzan dauden guziri gogoz erantztuteko.

Ondorean, lege berri ortan, zer dator? "Erdibanakoa". Eta, zer da ori?¹⁵

Erdibanakoa, apika ez dago ongi esana. Batzutan izango da erdibana bestetan batak bat besteak bi, edo batak bi besteak iru, nagusi maizterrak errenta ordaindu bearren edo errentaren orde

¹⁴ Art. 28°. El arrendador podrá desahuciar judicialmente al arrendatario por alguna de las causas siguientes: Primera. Por haber expirado el término convencional o el de la prórroga o prórrogas, en su caso,...Segunda. Por resolución del derecho del arrendador, conforme a lo establecido en el artículo 25. Tercera. Por falta de pago de la renta. Cuarta. Por ceder el arrendatario en subarriendo, en aparcería o en cualquier otra forma la explotación de la finca o aprovechamientos prohibidos por el artículo 4º de esta Ley. Quinta. Por daño causado en la finca arrendada o en las cosechas, debido a dolo o culpa del arrendatario. Sexta. Por no destinar la finca a la explotación o cultivo que previamente se hubiere pactado. Séptima. Por abandono total o parcial del cultivo, y por deficiencias en éste que fueren exigibles a todo buen cultivador, de acuerdo con los usos y costumbres de la comarca en que esté enclavada la finca. Octava. Por incumplimiento, por parte del arrendatario, de las leyes sociales que regulan las condiciones del trabajo agrícola. Novena. Por haber adquirido la finca para cultivarla directamente el nuevo propietario, de acuerdo con lo establecido en el artículo 27...

¹⁵ Zalantzarik gabe, apartzeriari buruz dihardu Irazusta. Izan ere, legearen VIII. kapitulua "De las aparcerías" izenburukoa da. Kontratu horrek izen eta izan desberdinak izan ditu Euskal Herrian. Horretara dator, etorri ere, Irazustaren iruzkina.

nagusiari emango diola baserriak ematen dionetik zati bat, puska bat. Urte ona bada, asko, urte txarra bada gutxigo.

Gure artean alakorik ez da. Laburdi ta Zuberoan bai.

Oraindaño ez izanarren emendik (...)tea asko. Eta ori da okerreana: nagusiak urte geitxo errentan ez jarritzea nai izan ezkerro erdibanako ori jarri besterik ez du, ta ala maizterrik ez. Maizterrari etzaio alako eskubiderik eman.

Ez det uste Gipuzkoa'n gertatuko danik. Len izan ez diran gauzak itzetik ortzera jartzea ez da errexax. Jarri ezkerro berriz garbitasuna egitea zallagoa. Argatik nagusi guztieri esango nieke ba ez bada ez asteko. Gauza orrek izan lezake sarrera leguna ta erterra lakatza.

Ia datorren astean bukatzen deten.

Jon Andoni

[737]

Lanak menderatzea baño gauz goikarrigorik ote dan ez dakit. Denak egin nai ta ezin iritxi. Maizter-lege berri au bukatzen det larri, larri. Beste idatzi bi egin bear izan banitu uste det gertatuko nitzala nai bai ta al ez.

Goazen bada aurrera.

Zer esan liteke gelditzen dala esateko? Gauza gutxi.

Ez ta bai bat sortzen danean nora joan liteken.

Jakiña dago Juzgadora dala.¹⁶

Zeñetara?

¹⁶ Irazusta "Capitulo IX.- De la jurisdicción en materia de arrendamientos" kapituluari buruz ari da.

Milla pezetari eraiten ez danian erriko Juzgadura: Donosti, Tolosa, Bergara edo Azpeiti'kora.

Au zer da nola egin bear dan ez det esango. Nekazariak laguntzalle bat bear du noski ta arka jakitea naikoa.

Emendik aurrera Jurado Mixto'rik ez dago.

Lege onen ondorean atera dira Decreto bat eta Reglamento bat. Onetzaz mintzatzea alperrik. Ministroari berari entzun nion oraintxe amabost egun bereala beste Reglamento bat egitera zijo-ala aurrekoen orde. Bitartean zertarako denbora galdu?

Amaika kezka ta bai amabi ere sortu bear dute baserritarren artean lege onen bidez.

Lege onek izan zezakean asmorik ederrena maizterra bera baserrian jabe biurtzea zan. Baserrian jabe nagusiari ordainduaz, noski.

Ala zirudin ondorean Madrid'en beste lege bat ikasten asi giñanean: maizterra nagusitzeko legea. Baña lege ura txokoratu da, ta zerbait egingo balitz ere ez litzake gauz aundia izango. Gobernu au dagon bitartean ezer ez. Gero bearko. Jakiña dago, guk Estatutoa edo Araudia gereganatu ezkerori guztia lan errexa izango litzakela. Ura irabazi bear lenengo. Gogoak uts egiten dualako ez da. Ikusiko degu urte onek berakin zer dakarren.

Baserritarrak ikusi bear du oraingo une au ekaitz bat etorri balitz bezela. Iraun. Al dan bezela, iraun. Urte egokigoak etorriko dira. Eta gure eskuetan badago beñepein ez da asarre izango.

Bitartean bildu egin biar. Bateratu. Elkartu. Or dago Gipuzkoa'ko Nekazarien Bazkuna, beñepein. Buru daudenak langilleak eta trebeak, bakoitzari bear duna erakutsiko diote. Beorak, moxalak, arbazta zantzubarengatik edo usaiarengatik otsoa datorrela ezagutu ezkerori, elkarrena buruk bidldu ta ostikoz jotzeko jartzen dira. Gauza jakiña da! Makil bat eskuz errez pus-

katzen da: bi izan ezker, belauakin lagunduaz ortxe nunbait;
baña makil sorta bada nork puskatu?

Ara bide garbi.

Jon Andoni

(Irazusta'tar Jon Andoni gure diputadu azkar ta langilleak
amaitu du, gaurko onekin. Maizter lege berria agertzeko artu zuan
lana. Bijoazkio gure ta gure irakurlien eskerrik beroenak eta betor
berriz ere nai dunean gure artera.—T.)

EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGI BATUA (2. ITZULIA: A, B, C LETRAK) ETA EUSKARAZKO TERMINOLOGIA JURIDIKO- ADMINISTRATIBOA: EZAUGARRIAK ETA JOKAERAK

1. NORMALIZAZIOA ETA NORMATIBIZAZIOA: HIZKERA ERKIDEA ETA TERMINOLOGIA JURIDIKOA

Aspaldiko kezka batek bultzaturik, bagatoz, beste behin ere, arlo jakin batera, alegia, euskararen hiztegingintza akademikoa eta azken urteetan garatzen ari den euskarazko terminologia juridiko-administratiboa uztartzera. Izan ere, aurretiaz egin ditugun saioak hortxe daude, eragile juridiko euskaldunen eskura. Ukaezina da Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* delakoak berebiziko garrantzia duela euskarazko hiztegingintzan. Gero eta nabariagoa da, bestalde, euskara gizartean hedatzen den ber, arlo desberdinetako terminologia euskalduna finkatu beharra. Horren zatirik esanguratsuen, bistan denez, hizkuntza baten barruko hizkera berezituak eta hizkera erkideak batera osatzen duten multzoan dago. Hala gertatzen da hizkuntza normalizatu guztietan. Halaxe ere, euskararen kasuan, eremu urriko hizkuntza izatetik normalizazio-espazioak irabaztera doan abiaburuan jada kokaturik dagoelako.

Komeni da, hortaz, bi esparruok bereiztea, normatibizazioari dagokiona zehazteko, eta berori normalizazioaren zereginekin harremanetan jartzeko, puntu horretan baitago agintaritza linguistikoaren egitekoa eta terminologia-erakundeen zeregina. Nondik norakoak, beraz, honetara zedarrizta daitezke¹:

<i>Normativització lèxica</i>	<i>Normalització terminològica</i>
Tracta el lèxic de la llengua general: mots o paraules	Tracta el lèxic dels llenguatge d'especialitat: termes
Unifica, fixa formes, a partir de la diversitat existent, que constituiran la varietat comuna o estàndard	Fixa conceptes i denominacions, generalment nous, amplia i diversifica la varietat codificada per adaptar-la a usos especialitzats i restringits desenvolupament)
Fixa paraules consolidades en l'ús	S'avança a les necessitats de denominació establint criteris i propostes neològiques
Agent: acadèmia de la llengua (rang i prestigi de normativitat)	Agents: terminòlegs i especialistes (legitimitat del consens)
Importància de la genuïnitat i de la preservació de formes pròpies	Tendència a la internacionalitat i als recursos compartits per més d'una llengua

Bide beretik joanez, gure oraingo ahalegina zuzenbidearen sailari egokituko zaio, zehaztu ahal izateko, Euskaltzaindiak *Hiztegi Batua* delakoaren bidez, eta horren bigarren itzulia dela eta, zer lexiko juridiko-administratibo barruratu duen eta barruratze horren zergatiak.

Hasteko, gogora ditzagun Euskaltzaindiaren irizpideak, bigarren itzulia hasi aurretik. Euskararen Akademiak halakoak onetsi zituen, 2000ko uztailaren 21ean, Donibane-Lohizunen, eta horiek berretsi, 2000ko irailaren 29an, Zizur Txikian. Irizpide horien ara-

¹ TERMCAT, CENTRE DE TERMINOLOGIA: *La normalització terminològica en català: criteris i termes 1986-2004*, Publicacions de l'Abadia de Montserrat, Termcat, Centre de Terminologia, 2006, 24. or.

bera, aurreko iturrietatik (batez ere, OEH eta EEBS) lortutako zerrendak osatu egingo ziren arloz arlo oinarritzko ikusten ziren termino eta hitz berezituekin. Baina zeintzuk izan behar ziren jatorrizko zerrenda osatzeko irizpideak? Horretan, egia esan, lehen pasaldian erabilitako irizpide bertsuak aplikatu behar ziren:

1. Formarik hedatuenak hobestea.
2. Gaurko 'erabilera zaindu'etan nagusitua da hobestekoa.
3. Forma erregularra da hobestekoa.
4. Forma berri(ago)ak dira hobestekoak, baldintza jakin batzuk betez gero.
5. Eratorri eta elkartu berriak onartzekoak dira, baldintza zehatz batzuetan.
6. Mailegu berriak onar daitezke, batik bat, nazioartekoak direnean.

Horien arabera, *Hiztegi Batuaren* bigarren itzuliak bikoiztu beharko luke lehen itzuliaren edukia, erabilera murriztagoko eta berezituetakoa hitzetan arreata handiagoa jarritz. Horrexegatik da aintzat hartzekoa gure oraingo ahalegin hau, hain zuzen ere, orain arte Euskaltzaindiak bigarren itzuliaz ondu dituen hiru letra (A, B eta C) ikertzeko eta konparazioak egiteko, zer non azpimarratzeko eta eragile juridiko euskaldunari behin-behineko emaitzak emateko.

2. HIZTEGI BATUA: MAKRO ETA MIKROEGITURA ²

Hiztegi Batua denaz bezainbatean, eta makroegituraren aldetik, esan daiteke lehen itzuliaren irizpide berberak betetzen direla, hau da, sarrera eta azpisarrerak hurrenkera alfabetikoan ematen direla, sarrera bati dagozkion azpisarrera tematikoak kontuan hartuz. Sarreraren ikuspegitik nabarmentzekoa da hitz

² PORTO DAPENA, J.A.: «La macroestructura del diccionario: las entradas», in *Manual de técnica lexicográfica*, Arco Libros, Madril, 2002, 135-181. orr.

osoa eskaintzea, kategoria gramatikala gorabehera. Azpisarrerren kasuan, aldiz, azpimarratzekoa da zuzenbidean ugari diren izenmultzoak ematea (adibidez, Batzar Nagusi pl.: *Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusiak*; batzar orokor: *bankuko akziodunen batzar orokorra*).

Mikroegituraren aldetik, begien bistakoak dira aldaketak, batez ere hitz juridiko-administratiboetan, eranskinean igarri bezalaxe, hitz berriak askoz gehiago baitira, lehen itzuliko hitz berridatziak baino³. Xehetasun gehiago ere ematen da, hala sarrerei emandako adiera berrien bidez, hain zuzen ere, zuzeneko zerikusia dutenak arlo juridiko eta administratiboarekin (esaterako, apelatu 1, apela, apelatzen. *du ad. Zuz.* ‘gora jo’), nola adibideen bidez (ahalorde iz.: *abokatuari eskura eman zion ahalordea*), hiztegitzaren hurrengo pausoa (adiera zehaztea eta adibide oso-osoak gaineratzea) iragarritz.

3. LEMATIZAZIOA, MARKA TEKNIKOAK ETA HITZ MARKATUGABEAK

Lematizazioari dagokionez, ez dago berezitasun handirik bigarren itzuli honetan. Hortaz, sarrera berezietan baino, sarrera nagusien zerrendan eta hurrenkera alfabetikoan eman dira hitz juridiko-administratiboak ere. Aipatzekoa da, dena den, zuzenbidean ugari diren esamolde eta esapide lexikalizatuen onespena; lehen esan bezala, halakoak gehienetan hitzaren azpisarrera gisa bertakotu dira.

Marka teknikoen edo laburduren alderdian, hiru izan dira gure ikerketa-gaiak: *Zuz.*, *Admin.* eta *Pol.* Emaitzak ere, halakoxeak, bi itzulien arteko haztaketa eginda:

	1. itzulian	2. itzulian
Zuz. markadunak	0	14
Admin. markadunak	0	3
Pol. markadunak	0	3

³ Ikus eranskinean hitz berri eta berridatzen esanahia.

Eurok zein diren ere zerrendaratuta dago:

a) *Zuz.* laburdura dutenak

abal iz. *Zuz.* ‘bermea’.

abal(-)emaile *Zuz.* ‘abala ematen duena’.

abaldun iz. *Zuz.* ‘abala eman zaion pertsona’.

abandonatu, abandona, abandonatzen. *du ad.* 1 *Zuz.* ‘pertsonak, gauzak edo ekintzak utzi, babesik gabe jarri’.

abusu iz. 2 *Zuz.*

adskribatu, adskriba, adskribatzen. *du ad.* *Zuz.*

aktuario iz. *Finantz.*, *Zuz.*

akzio *Ekon.*, *Zuz.*

apelatu 1, apela, apelatzen. *du ad.* *Zuz.* ‘gora jo’.

aurkapen iz. *Zuz.*

auzi-ihesean egon/izan *Zuz.:* *auzi-ihesean da(go).*

[Egileon oharra: **auzi** sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]

auzialdi iz. *Zuz.*

auzibide iz. *Zuz.*

berehalako auzi *Zuz.* [Egileon oharra: **berehalako** sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]

b) *Admin.* laburdura dutenak

anexio iz. *Pol.*, *Admin.*

anexionatu, anexiona, anexionatzen. *du ad.* *Pol.*, *Admin.*

atxikipen iz. *Admin.*

c) ***Pol.*** laburdura dutenak (horietatik bik, aldi berean, ***Admin.*** marka ere badute)

aliantza iz. *Pol.*, *Hist.*

anexio iz. *Pol.*, *Admin.*

anexionatu, anexiona, anexionatzen. *du ad.* *Pol.*, *Admin.*

Esan gabe doa, bestalde, marka eta laburdurarik gabeko hitz juridiko-administratiboen kopurua askoz handiagoa dela.

Hainbatez, hemen egiten dute topo hizkera erkideak eta hizkera berezituak, batik bat, hiztegi juridiko-administratiboan, horrek sarri-sarri erabiltzen baititu hizkera erkidearen berbak⁴. Edu berean, ez da erraza izaten horiek bereiztea, hau da, zer noiz den hizkera erkidearena eta zer noiz darabilgun esanahi berezitan. Horretarako, zer esanik ez, faktore batzuk daude jokoan, besteak beste, komunikazio-ekintzaren ingurukoak, adituaren irizpidea, testu-mota eta abarrekoak. Irizpide eta faktore horiek kontuan hartu eta abiapuntua lehendik argitaratua dugun *Oinarrizko Hiztegi Juridikoa* delakoan jarrita, gure estatistikak nahiko adierazgarriak dira, hitz juridiko-administratiboan kopurua zenbat igo den bigarren itzuli honetan jakiteko:

Hiztegi Batuko zenbakiak⁵

	1. itzuliko hitzak guztira	OHJ izenekoan bildutako hitz juridikoak	Ehunekoak	2. itzuliko hitzak guztira	Artikulu honetan bildutako hitz juridikoak	Ehunekoak
A letra	1.796	193	%10,75	5.316	326	%6,13
B letra	1.956	169	%8,64	4.413	178	%4,05
C letra	13	0	%0	25	1	%4,35
Guztira	3.765	362	%9,61	9.752	503	%5,16

Pisuaren aldetik guztiz alderagarria da hau, esaterako, gaztelaniaren kasuarekin. DRAE´01 delakoan, kasurako, zuzenbideko sarrerak 8% dira⁶, zenbakiz hirugarrenak, medikuntza eta itsasgarraioaren ondoren. Nolanahi ere, bada hor desberdintasun agerikoa, gaztelaniaren kasuan hitz markatuak sartzen baitira zenbaketan, gure kasuan ez bezalaxe.

⁴ Ikus *Oinarrizko Hiztegi Juridikoa* izeneko lanaren 20. orrialdea.

⁵ 1 eta 2. itzuliko hitzak guztira zenbat diren jakiteko, Euskaltzaindiak berak emandako datu ofizialak erabili dira.

⁶ LÓPEZ SAMANIEGO, A: «La terminología jurídica en los diccionarios de lengua del siglo XXI», in *Languages for academic and professional purposes in the 21st century university framework*, IV Congreso Internacional AELFE, Universidad de Extremadura, Cáceres, 2005, 296. or: «Las apariciones de marcas jurídicas en el DRAE´01 (1498) representan el 8% del total de apariciones de marcas técnicas (19.160) y colocan al Derecho como tercera disciplina más representada, después de la Medicina (10,2%) y el transporte marítimo (9,6%)».

4. HITZEN EZAUGARRIAK

Horiek horrela, beharren ikusten dugu hitzen aldetik sailkatze-lana egitea, berri-berri direnak eta berridatziak nondik datozen atzemateko. Irizpideak hauetara:

4.1. Euskalki-markak

Hitz juridiko-administratiboei eta, oro har, hizkera juridiko-administratiboari dagokienez, maila formala, jaso da nagusi. Horren ondorioz, hitz sartu berrietan euskalkien marka ez da ugariena. Salbuespena izan daiteke *Ipar.* marka, euskalki horretan hitz juridikoen altxorra ondo islatuta baitago bigarren itzulian:

a) *Bizk.* markadunak

abespeluan adlg. *Bizk.* ‘jo ta ke’.

alogereko iz. *Bizk.* 1 ‘soldatapekoa’. 2 ‘maizterra’.

arduragabeko izlag. *Bizk.* ‘arduragabea’. [Egileon oharra: *arduragabe* sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]

b) *BNaf.* markaduna

auzapezgo iz. *Lap.* eta *BNaf.*

c) Ez da *G-B* markadunik aurkitu.

d) *Gip.* markaduna

bailara iz. *Gip.* ‘eskualde txikia’ (ez da *haran* edo *ibar*-en sinonimoa).

e) *Lap.* markaduna

auzapezgo iz. *Lap.* eta *BNaf.*

f) *Naf.* markadunak

aktiboan* e. 1 **jardunean.**

bastart izond. *Ipar.* eta *Naf.*

g) *Zub.* markadunak

arartekari iz. *Zub.* ‘arartekoa, bitartekoa’.

arra-erosi, arra-eros, arra-erosten. *du ad. Batez ere Zub.* ‘berrerosi’.

auzo(-)etxe *Zub.* ‘udaletxea’. [Egileon oharra: **auzo 2** sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]

bankarrot iz. *Zub.* ‘porrota’.

berbal iz. *Batez ere Zub.* h. **isun**, **prozedura**.

botigoa iz. *Zub.* ‘elkartea’.

h) *Heg.* markadunak

abisatu, abisa, abisatzen. *du (Ipar.) edo dio (Heg.) ad.* [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]

aiuntamentu iz. *Heg. Beh.* h. **udal**, **udaletxe**.

aprobetxamendu iz. *Heg.*

aprobetxatu, aprobetxa, aprobetxatzen. *da/du ad. Heg.* ‘baliatu’. [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]

balorazio iz. *Heg.*

beke iz. *Heg.*

bekadun izond. eta iz. *Heg.*

botatu, bota(tu), botatzen. *du ad. (nor kasurik gabea). Heg. Beh.* ‘botoa eman’.

i) *Ipar.* markadunak

abertimendu iz. *Ipar. Herr.* h. **abisu**.

abisatu, abisa, abisatzen. *du (Ipar.) edo dio (Heg.) ad.* [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]

aktiboan* e. 1 **jardunean**.

akusu iz. *Ipar. Zah.* ‘akusazioa’.

aprobatu, aproba, aprobatzen. *du ad. Ipar. Zah.* ‘onartu’.

arra-erosle iz. *Ipar.* ‘berreroslea’.

arrastatu 2, arrasta(tu), arrastatzen. *du ad. Ipar.* ‘atxilotu’.

arrobatu, arropa(tu), arrobatzen. *du ad. Ipar.* ‘lapurtu, eba-tsi, ostu’.

arrobatzaile iz. *Ipar. g.er.* ‘lapurra; harraparia’.

arrobatze iz. *Ipar. g.er.* ‘lapurreta’.

artatu, arta(tu), artatzen. *du ad. Ipar.:* *andreserorak ditu elizak artatzen.*

asuratu, asura, asuratzen. *du ad. Ipar.* ‘aseguratu’.

atzetu, atze(tu), atzetzen. *da ad. Ipar. g.er.* 1 ‘atzerriratu’. 2 ‘arroztu’.

axuant iz. *Ipar.* ‘alkateordea’. [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]

baimendu 2 iz. *Ipar. g.er. h.* **baimen.**

bastart izond. *Ipar. eta Naf.*

batetaratu, batetara(tu), batetaratzen. *da/du ad. Ipar.* ‘bateratu’.

batetaratze iz. *Ipar.*

4.2. Aspaldiko hitzak eta gutxi erabiliak

Zah. markak ere baditu bereak, formaltze-prozesuarekin batera, ezaugarri bizia baita hiztegi juridiko-administratiboan aspaldiko hitzak erabiltzea, nahiz eta horiek muga argiak izan euskararen aldetik, batik bat euskal herrialde jakin baten foru-tradizio juridiko zehatz bati egokitzen zaizkionean:

abeniko iz. *Zah.* ‘hitzarmena’.

abenitu, abeni, abenitzen. *da ad. Zah.* ‘elkar hartu, ondo konpondu’.

absolbizio iz. *Zah.* ‘absoluzioa’: *Aralarko absolbizio eguna.*

akordatu, akorda, akordatzen. 1 *da/du ad. Zah.* ‘hitzartu’.

akusamendu iz. *Zah. g.er.* ‘akusazioa’.

akusari iz. *Zah.* ‘akusatzailea’.

akusu iz. *Ipar. Zah.* ‘akusazioa’.

alokazer iz. *Zah. g.er.* ‘soldatapeko langilea’: *ez da alokazerik behar.*

aprobatu, aproba, aprobatzen. *du ad. Ipar. Zah.* ‘onartu’.

audientzia iz. *Zah.* 1 h. **auzitegi, entzutegi.**
baratari iz. *Zah.* ‘eskribaua, notarioa’.
behargile iz. *Zah.* ‘behargina’.
bekulari iz. *Zah.* ‘zerbitzarien soldata’.
bidegabeztatu, bidegabezta, bidegabeztatzen. *du ad. Zah.*
g.er. ‘iraindu’.
bilkuia iz. *Zah.* ‘bilkura’.
bilkuntza iz. *Zah.* ‘bilera’.

Erabileraren aldetik ere, gutxi erabiliak eta gaur egun gutxi erabiltzen direnak (*g. er.* eta *g.g.er.*, hurrenez hurren) bereiz daitezke. Bigarren horiei dagokienez, kasu bat besterik ez da atzeman (*auzi eman* delakoari dagokiona, alegia). Besteak, berriz, ugariagoak dira, kasurako:

aginterri iz. *g.er.* ‘erreinua, erresuma, estatua’.
ahaiko iz. *g.er.* h. 1 **ahaideak.** 2 **ahaidetasun.**
akusamendu iz. *Zah. g.er.* ‘akusazioa’.
alogeratu, alogera, alogeratzen. *du ad. g.er.* ‘alokatu’.
alokazer iz. *Zah. g.er.* ‘soldatapeko langilea’: *ez da alokazerik behar.*
antolaera iz. *g.er.* ‘antolaketa, antolakuntza’.
atzetu, atze(tu), atzetzen. *da ad. Ipar. g.er.* 1 ‘atzerriratu’.
2 ‘arroztu’.
autogobernu iz. *g.er.*
auzi(-)etxe *g.er.* ‘auzitegia’.
baiduri iz. *g.er.* ‘baimena’.
berjabe izond. *g.er.* ‘burujabea’.
bidegabeztatu, bidegabezta, bidegabeztatzen. *du ad. Zah.*
g.er. ‘iraindu’.

4.3. Zuzenbidearen alor desberdinetakoak

Nabari denez, nagusi dira hitz orokorrak, arlo juridiko berezienak baino. Nolanahi ere, hiruzpalau arlo nagusi bereiz daitezke:

a) Arlo orokorra

abokatutza

adierazpen iz.: *adierazpen askatasuna.*

adjudikazio

adjudikaziodun

aplikabide* e. **aplikazio.**

aplikagarri izond.

arau-hauste [Egileon oharra: **arau** sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]

arauzko izlag. 1 ‘araberakoa’: *eredu batzuen arauzko idazkera.* 2 ‘arauarekin bat datorrena’. [Egileon oharra: **arau** sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]

b) Zuzenbide publikoa

aliantza iz. *Pol., Hist.*

anexio iz. *Pol., Admin.*

anexionatu, anexiona, anexionatzen. *du ad. Pol., Admin.*

atxikipen iz. *Admin.*

administrazio(-)zuzenbide [Egileon oharra: **administrazio** sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]

Batzar Nagusi pl.: *Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusiak.* [Egileon oharra: **batzar** sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]

c) Zuzenbide pribatua

abal iz. *Zuz.* ‘bermea’.

abal(-)emaile *Zuz.* ‘abala ematen duena’.

abaldun iz. *Zuz.* ‘abala eman zaion pertsona’.

adoptatu, adopta, adoptatzen. *du ad.* ‘seme edo alabatzat hartu’.

adopzio iz.: *adopzio-legea.*

berrerosi, berreros, berrerosten. *du ad.* [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]

berrerosle

Arlo horien arteko oreka begien bistakoa da.

5. ONDORIOAK

Hitz juridiko-administratiboak ugariak dira *Hiztegi Batua* ize-nekoan. Horrek baieztatzen du, (1) lexiko-mota horrek gizarte-bizimoduan pisua eta garrantzia duela; (2) euskarazko lexiko juridiko-administratiboaren normatibizazio- eta normalizazio-prozesuak nahiko bateratuak doazela; (3) bi prozesu horiek berriak izan arren, arin barruratu direla horrelakoak hizkuntzaren erabileran; (4) erabat erabakigarri izan dela, bidegintza horretan, euskarak azken urteetan lortu duen ofizialtasuna, batez ere esparru juridiko-administratiboak moldatzeko tenorean; (5) euskalkien ekarpenak ikusgarriak izan arren, hitz erkideez osaturiko arloa dugula, Hiztegi Batuaren barruan, zuzenbide eta administrazioarena; eta (6) gero eta esanahi espezializatuagoak dituela euskarak zeregin hauetan, esparru juridiko-administratiboetatik harago doazenak, eta eguneroko bizimoduan eragina dutenak.

Nabari-nabaria da, bestalde, hizkera erkide-hizkera berezituaren arloan gero eta zabalagoa dela hitz hauen presentzia. Horrek, zer esanik ez, planteamentu berriak ekarri beharko ditu, hiztegitzaren espezializatuan nahiz arruntean. Hasteko, gero eta premia larriagoan gaude, Euskaltzaindiak iragarri duen *Euskaltzaindiaren Hiztegia-adierak eta adibideak* eskura izateko. Hasian hasi, edozein hiztegitzaren espezializatu eta berezituak ezinbestean erabili beharko du *Hiztegi Batua*, bertan, hitzak ez ezik, joerak eta jomugak ere agerikoak direlako, bestelako hiztegitzaren baldintzatuko dutenak. Azkena, eta ez laburrena, corpusen beharra, orain arte egindakoa bildu eta eginkizun berriagoetan sartu aurretik hausnarketa sakona egiteko, corpus horiek alor juridiko eta administratiboan sekulako euskarria izan dezaketelako, azken hogeita bost urteetan ondu den testugintza juridiko-administratiboan, administrazio, maila eta erakunde desberdinetan.

6. BIBLIOGRAFIA

AGUIRRE, J.: «Euskalterm terminologia-bankua Hiztegi Batuaren argitan eguneratzen» in MENDEBALDE KULTURA ALKARTEA: *Euskera zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologaziora*, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo, 2005, 469-478. orr.

CURADO, A, RICO, M, DOMÍNGUEZ, E. M., EDWARDS, P., ALEJO, R eta GARRIDO, J. A. (arg.): *Languages for academic and professional purposes in the 21st century university framework*, IV Congreso Internacional AELFE, Universidad de Extremadura, Cáceres, 2005.

GALLASTEGI, C., URRUTIA, A., URRUTIA, URRUTIA, E. eta ETXEBARRIA, A.: *Oinarrizko Hiztegi Juridikoa (Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko lehen itzulian oinarritua)*, Minor Bilduma, 4. zk., Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua, Bilbo, 2005.

HENRÍQUEZ SALIDO, M. DO CARMO: «La marca “forense” en el *Diccionario de Autoridades*», in *Nuevas aportaciones a la historiografía lingüística (Actas del IV Congreso Internacional de la SEHL)*, I. liburukia, Arco Libros, 761-771. orr.

KINTANA, X.: «Lexiko zientifikoaren arazoa euskara idatziaren historian zehar» in MENDEBALDE KULTURA ALKARTEA: *Euskera zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologazidora*, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo, 2005, 479-506. orr.

LOBERA, G. eta URRUTIA, A. (arg.): *Euskara, zuzenbidearen hizkera*, Deustuko Unibertsitatea, 2. argitaraldia, Bilbo, 1997.

MUJICA, A.: «*Hiztegi Batua* eta terminologia zientifiko-teknikoa: elkarguneak, estuguneak eta gurutzaguneak» in MENDEBALDE KULTURA ALKARTEA: *Euskera zientifiko-teknikoa: normalizaziotik homologazidora*, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo, 2005, 435-449. orr.

OLAIZOLA, M.: «*Hiztegi Batua* eta hiztegi juridiko-administratiboa» in MENDEBALDE KULTURA ALKARTEA: *Euskera zientifikoteknikoa: normalizaziotik homologazidora*, Mendebalde Kultura Alkartea, Bilbo, 2005, 451-467. orr.

PORTO DAPENA, J.A.: «La macroestructura del diccionario: las entradas», in *Manual de técnica lexicográfica*, Arco Libros, Madrid, 2002, 135-181. orr.

SANTAMARÍA PÉREZ, I. eta PROVENCIO GARRIGÓS, H.: «Proyección lexicográfica (s. XVIII-XXI) de las voces jurídicas del

Nuevo Diccionario de la Lengua Castellana de Vicente Salvá, in *Nuevas aportaciones a la historiografía lingüística (Actas del IV Congreso Internacional de la SEHL)*, II. liburukia, Arco Libros, 1513-1524. orr.

TERMCAT, CENTRE DE TERMINOLOGIA: *La normalització terminològica en català: criteris i termes 1986-2004*, Publicacions de l'Abadia de Montserrat, Termcat, Centre de Terminologia, 2006.

URRUTIA, A.: «Administrazio-zuzenbidea hiztegirako lantaldea: proposamena» in *Euskera*, 46. zk., 2001-1, Euskaltzaindia, Bilbo, 307-312. orr.

URRUTIA, A.: «Hizkuntza orokorra-xede berezietarako hizkerak: *Hiztegi Batuaren zeregina*» in *Uztaro*, 55. zk., 2005, 49-60. orr.

Andrés Urrutia eta Esther Urrutia

ERANSKINA: BIGARREN ITZULIAN GEHITUTAKO HITZ JURIDIKO BERRIAK EDO BERRIDATZIAK

OHARRAK

A) 2. itzuliko hitz juridikoak jasotzeko orduan, bigarren zutabe-an “berria” edo “berridatzia” berbak jarri dira. Lehenengoak adierazi nahi du sarrera edo azpisarrera hori ez zela argitaratu Hiztegi Batuko 1. itzulian. Bigarrenak, ostera, adierazi nahi du sarrera edo azpisarrera hori jaso zela Hiztegi Batuko 1. itzulian, baina orain berridatzi egin dela. Kasurako, **anexio** hitza berria da, eta **bozkatu** berridatzi egin da (1. itzulian, “**bozkatu**, bozka(tu), bozkatzen. *du ad.*” bakarrik ageri zen; 2. itzulian, aldiz, “**bozkatu**, bozka(tu), bozkatzen. *du ad. 1 du ad. (nor kasurik gabea): gobernuaren alde bozkatu dutenak. 2 du ad.: aurrekontua bozkatu zuten.*”).

B) Bi motatako oharrak egin dira:

B.1) 2. itzulian, sarrera eta beraren azpisarrerak, bi-biak, berriak edo berridatziak izanez gero, halaxe jaso dira hemen, azpisarrerak barrurago sartuz. Adibidez,

akta iz. ‘batzar agiria’.
akta egin
akta(-)liburu

Berridatzia
Berria
Berria

Alabaina, azpisarrera bakarrik bada berria edo berridatzia (ez, ordea, horren sarrera), orduan oharra jarri zaio azpisarrera horri. Esaterako,

auzi-ihesean egon/izan *Zuz.:* *auzi-ihesean da(go).*
[Egileon oharra: **auzi** sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]

B.2) Oinarrizko Hiztegi Juridikoak Hiztegi Batuko 1. itzulia izan zuen abiapuntu, hortik hustu baitzuten hitz juridikoak. Alabaina, hiztegi horren datuak berrikustean hutsune gutxi batzuk atzeman dira, alegia, lehenengo itzulian jasotako hitz juridiko batzuk Oinarrizko Hiztegi Juridikotik kanpo geratu ziren. Oker materialaren ondorioz ahantzitako horiek artikulu honetan ageri dira ohar egokia eginez, eta, zentzuzkoa denez, berria edo berridatzia den zehaztu gabe. Horixe gertatzen da, kasurako, **absoluzio** eta **agerrarazi** hitzetan.

A letra

abal iz. <i>Zuz.</i> ‘bermea’.	Berria
abala eman	Berria
abal(-)emaile <i>Zuz.</i> ‘abala ematen duena’.	Berria
abalatu* e. abala eman .	Berria
abaldun iz. <i>Zuz.</i> ‘abala eman zaion pertsona’.	Berria
abalkide	Berria
abandonatu , abandona, abandonatzen. <i>du ad.</i> 1 <i>Zuz.</i> ‘pertsonak, gauzak edo ekintzak utzi, babesik gabe jarri’.	Berridatzia
abandonu	Berria
abasberuan* e. abespeluan .	Berria
abenda iz. <i>g.er. h.</i> arraza .	Berria
abenderri* e. nazio .	Berria
abeniko iz. <i>Zah.</i> ‘hitzarmena’.	Berridatzia
abenitu , abeni, abenitzen. <i>da ad. Zah.</i> ‘elkar hartu, ondo konpondu’.	Berria

aberaski 1 adlag.	Berria
aberaski 2 iz. <i>g.er.</i> ‘aberastasuna, ondasuna’.	Berria
aberaspide* e. aberasbide .	Berria
aberaste iz.: <i>uranioaren aberastea</i> .	Berria
aberatsaile* e. aberasgarri .	Berria
abertimendu iz. <i>Ipar. Herr.</i> h. abisu .	Berria
abertitu , aberti, abertitzen. <i>du ad. Herr.</i> h.	
ohartarazi, jakinarazi, abisatu .	Berria
abertzalekeria	Berria
abertzaletu , abertzale(tu), abertzaletzen.	
<i>da/du ad.</i> ‘abertzale bihurtu’.	Berria
abespeluan adlg. <i>Bizk.</i> ‘jo ta ke’.	Berria
abisatu , abisa, abisatzen. <i>du (Ipar.) edo dio (Heg.) ad.</i> [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
abokatutza	Berria
abolitu , aboli, abolitzen. <i>du ad. Sin.</i> ezeztatu .	Berria
abolizio <i>Sin.</i> ezeztatze .	Berria
abolizionismo	Berria
abolizionista	Berria
abonamendu iz.: <i>Musika Hamabostaldiko abonamendua</i> .	Berridatzia
abonatu 3 <i>da ad. h.</i> harpidetza egin .	Berria
abonatu 2 iz. h. harpidedun .	Berria
abonu 3* e. abonamendu .	Berria
absentismo	Berria
absolbizio iz. <i>Zah.</i> ‘absoluzioa’: <i>Aralarko absolbizio eguna</i> .	Berria
absoluzio [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
abstenitu , absteni, abstenitzen. <i>da ad.</i>	Berria

abstentzio	Berria
abusu iz. 2 Zuz.	Berria
adierazpen iz.: <i>adierazpen askatasuna</i> .	Berridatzia
adin nagusiko Sin. adindun . [Egileon oharra: adin sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
adin(-)nagusitasun iz. ‘adindunaren egoera’. [Egileon oharra: adin sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
adin txikiko* e. adingabe . [Egileon oharra: adin sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
adindun izond. Anton. adingabe .	Berridatzia
adingabetasun	Berria
adiskidetze iz.: <i>adiskidetzeko ekitaldia</i> .	Berria
adjudikazio	Berria
adjudikaziodun	Berria
administradore* e. administratzaile .	Berria
administralgo* e. administrazio .	Berria
administrarritza	Berria
administratibo izond.: <i>hiriburu administratiboa</i> .	Berria
administrazio(-)kontseilu [Egileon oharra: administrazio sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
administrazio(-)zuzenbide [Egileon oharra: administrazio sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
adoptatu , adopta, adoptatzen. <i>du</i> ad. ‘seme edo alabatzat hartu’.	Berria
adopzio iz.: <i>adopzio-legea</i> .	Berria
adostasun	Berria
adostu , ados(tu), adosten. <i>da eta da/du</i> ad. 1 ‘ados egon, jarri’.	Berria
adreri* e. leinu .	Berria

adskribatu , adskriba, adskribatzen. <i>du ad. Zuz.</i>	Berria
aduan(-)zerga <i>Sin. muga(-)zerga.</i> [Egileon oharra: aduan sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
afektatu* e. erasan, hunkitu, ukitu.	Berria
afiliatu , afilia, afiliatzen. <i>du eta da ad.</i>	Berria
afiliazio	Berria
agente	Berria
agentzia	Berria
agerizko h. ageriko.	Berria
agerkai iz. 1 'agiria'.	Berria
agerketa iz. h. agerkera, agertze, agerraldi; agerpen, agerraldi, agerkunde.	Berria
agerki iz. <i>g.er.</i> 'agerkaia'.	Berria
agerleku	Berria
agerrarazi , agerraraz, agerrarazten. <i>du ad.</i> [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
agertoki	Berria
agertu 1 , ager, agertzen. <i>da/du ad.</i>	Berridatzia
agertu 2 iz.	Berridatzia
agertzaile	Berria
aginde* e. agindu.	Berria
agindu-emaile [Egileon oharra: agindu sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
aginduzko izlag. 1 'nahitaez bete beharrekoa': <i>aginduzko araua; aginduzko proba.</i>	Berria
agintaldi	Berria
agintarau* e. agindu.	Berria
agintebide* e. aginpide, eskumen.	Berria
agintedun	Berria
agintekeria	Berria

agintepide* e. aginpide, eskumen.	Berria
aginterri iz. g.er. ‘erreinua, erresuma, estatua’.	Berria
agintzaile	Berria
agintze iz. 1 ‘agintea’. 2 ‘agindua’.	Berria
agiriko* e. ageriko.	Berria
agrabiatu* e. iraindu, laidotu , etab.	Berria
agrabio* e. irain, laido.	Berria
Ahaide Nagusi pl. [Egileon oharra: ahaide sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
ahaideria iz. ‘senitartea, ahaideen multzoa’.	Berria
ahaidetu , ahaide(tu), ahaidetzen. <i>da/du</i> ad. ‘ahaide bihurtu’.	Berria
ahaiko iz. g.er. h. 1 ahaideak . 2 ahaidetasun .	Berria
ahal 1 iz.: <i>ahala du hori egiteko.</i>	Berridatzia
ahala eman	Berria
ahaldun iz.: <i>Batzar Nagusietako ahaldun edo ordezkariari ‘apoderado’ (Bizkaian) eta ‘procurador’ (Araba eta Gipuzkoan) esaten zitzaien.</i>	Berridatzia
ahaldundegi* e. aldundi, diputazio.	Berria
ahaldungai	Berria
ahalorde iz.: <i>abokatuari eskura eman zion ahalordea.</i>	Berria
ahaltsutasun iz. g.er. ‘ahalmena’.	Berria
aho batez [Egileon oharra: aho sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.] [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
aho bateko* e. ahobatezko.	Berria
ahobatezko	Berria
aholku(-)batzorde: <i>Euskararen Aholku Batzordea.</i> [Egileon oharra: aholku sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2.	

itzulian.]	Berria
aholkulari	Berria
aitamen* e. aipamen.	Berria
aitorketa iz. <i>g.er. h.</i> aitorpen, aitortza.	Berria
aitorlari* e. aitorle.	Berria
aitorle iz. 1 'aitortzailea'. 2 'aitor-entzulea'.	Berridatzia
aitorrazazi , aitorraraz, aitorrarazten. <i>dio ad.</i> [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
aitortzaile	Berria
aitortze	Berria
aiuntamentu iz. <i>Heg. Beh. h.</i> udal, udaletxe.	Berria
akastu , akats/akastu, akasten. <i>du ad.</i>	Berria
akordatu , akorda, akordatzen. 1 <i>da/du ad.</i> <i>Zah.</i> 'hitzartu'.	Berria
akreditatu* e. egiaztatu, frogatu, baimena izan.	Berria
akreditazio* e. egiaztagiri, agiri, baimen.	Berria
akta iz. 'batzar agiria'.	Berridatzia
akta egin	Berria
akta(-)liburu	Berria
aktibo 1 izond. 2 iz. <i>Tekn.</i>	Berridatzia
aktiboan* e. 1 jardunean.	Berria
aktuario iz. <i>Finantz., Zuz.</i>	Berria
aktuatu* e. jardun, jokatu.	Berria
aktuazio* e. jokaldi, jardun(aldi).	Berria
akusamendu iz. <i>Zah. g.er.</i> 'akusazioa'.	Berria
akusari iz. <i>Zah.</i> 'akusatzailea'.	Berria
akusatu 1 , akusa, akusaten. <i>du ad.</i>	Berridatzia
akusatu 2 iz.	Berridatzia
akusatze	Berria
akusu iz. <i>Ipar. Zah.</i> 'akusazioa'.	Berria

akzio <i>Ekon., Zuz.</i>	Berridatzia
akziodun	Berria
alargundu , alargun(du), alarguntzen. <i>da/du</i> ad.	Berria
alarguntasun	Berria
alarguntsa h. alargun .	Berria
alarguntza	Berria
aldarri egin ‘aldarrikatu’. [Egileon oharra: aldarri sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
aldarrikapen	Berria
aldeanitz* e. aldeaniztun .	Berria
aldeaniztun izond. ‘alde anitzekoa, alde askokoa’.	Berria
aldebakarreko izond.	Berria
aldebiko izond.	Berria
alderdikide	Berria
alderdikide egin	Berria
aldezkarri	Berria
aldezle h. aldezkarri .	Berria
aldezpen iz. ‘defentsa’.	Berria
aldeztaile h. aldezkarri .	Berria
aldeztu , aldez(tu), aldezten. <i>du</i> ad. [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
aldun* e. ahaldun .	Berria
alegatu , alega, alegatzen. <i>du</i> ad. ‘argudiatu’.	Berria
alegazio	Berria
aliantza iz. <i>Pol., Hist.</i>	Berria
aliatu iz. eta izond.	Berria
alienatu , aliena, alienatzen. <i>da/du</i> ad. ‘besterendu’.	Berria
alienazio iz. ‘besterentzea’.	Berria
alkatego h. alkatetza .	Berria
alkatetza	Berria

alogeratu, alogera, alogeritzen. *du ad. g.er.* ‘alokatu’. Berria

alogereko iz. *Bizk.* 1 ‘soldatapekoa’. 2 ‘maizterra’. Berria

alokairuko iz. ‘soldatapekoa’. Berria

alokatu, aloka, alokatzen. *du ad.* 1 ‘errentan hartu edo eman’. 2 ‘soldataren truke norbait lanerako hartu’. Berria

alokazer iz. *Zah. g.er.* ‘soldatapeko langilea’: *ez da alokazerik behar.* Berria

amankomunatu* e. **elkartu**, etab. Berria

amejoramendu* e. **hobekuntza**, **hobetze**. Berria

amenazatu* e. **mehatxatu**. Berria

amenazo* e. **mehatxu**. Berria

ametitu, ameti, ametitzen. *du ad. Beh. h.* **onartu**. Berria

anexio iz. *Pol., Admin.* Berria

anexionatu, anexiona, anexionatzen. *du ad. Pol., Admin.* Berria

antifaxista Berria

antifrankista Berria

antiinperialista Berria

antolabidetza* e. **antolaketa**. Berria

antolaera iz. *g.er.* ‘antolaketa, antolakuntza’. Berria

antolakidetu* e. **koordinatu** (eta **batu**, **bateratu**, etab.). Berria

antolakizun iz. ‘antolaketa’. Berria

antolamen* e. **antolamendu**. Berria

anulatu* e. **baliogabetu**, **deuseztatu**, **ezeztatu**, **indargabetu** bezalako kideak. Berria

apelatu 1, apela, apelatzen. *du ad. Zuz.* ‘gora jo’. Berria

aplikabide* e. **aplikazio**. Berria

aplikagarri izond. Berria

aplikapen* e. **aplikazio**. Berria

aplikarazi, aplikaraz, aplikarazten. *dio ad.* [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso]

Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
apolitiko	Beria
apologia	Beria
apologista	Beria
aportazio* e. ekarpen , etab.	Beria
aprobatu , aproba, aprobaten. <i>du</i> ad. <i>Ipar. Zah.</i> ‘onartu’.	Beria
aprobetxamendu iz. <i>Heg.</i>	Beria
aprobetxatu , aprobetxa, aprobetxatzen. <i>da/du</i> ad. <i>Heg.</i> ‘baliatu’. [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
apustu egin [Egileon oharra: apustu sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Beria
apustulari	Beria
araberatu* e. arautu , araupetu .	Beria
arartekari iz. <i>Zub.</i> ‘arartekoa, bitartekoa’.	Beria
arartekotasun	Beria
arau-hauste [Egileon oharra: arau sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Beria
arauzko izlag. 1 ‘araberakoa’: <i>eredu batzuen arauzko idazkera</i> . 2 ‘arauarekin bat datorrena’. [Egileon oharra: arau sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Beria
araubide	Beria
araudun izond. ‘arau baten araberakoa’.	Beria
arauemaile	Beria
arauezko* e. arauzko .	Beria
araugabe izond.	Beria
araugintza	Beria

arauketa	Berria
araupeketa* e. arauketa .	Berria
araupide* e. araubide .	Berria
arautzaile	Berria
arautze	Berria
arbitrariotasun	Berria
arbuizatzaile	Berria
arduragabeko izlag. <i>Bizk.</i> ‘arduragabea’. [Egileon oharra: arduragabe sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
arduragabekeria	Berria
arduragabetasun	Berria
arduralaritza* e. administrazio .	Berria
arra-erosi , arra-eros, arra-erosten. <i>du ad.</i> <i>Batez ere Zub.</i> ‘berrerosi’.	Berria
arra-erosle iz. <i>Ipar.</i> ‘berreroslea’.	Berria
arra-eroste	Berria
arrastatu 2 , arrasta(tu), arrastatzen. <i>du ad.</i> <i>Ipar.</i> ‘atxilotu’.	Berria
arraza [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
arrazakeria iz. ‘arrazismoa’.	Berria
arrazista [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
arreta [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
arrisku [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
arrobotu , arroba(tu), arrobatzen. <i>du ad. Ipar.</i>	

'lapurtu, ebatsi, ostu'.	Berria
arrobatzaile iz. <i>Ipar. g.er.</i> 'lapurra; harraparia'.	Berria
arrobatze iz. <i>Ipar. g.er.</i> 'lapurreta'.	Berria
artatu , arta(tu), artatzen. <i>du ad. Ipar.:</i> <i>andreserorak ditu elizak artatzen.</i>	Berridatzia
artekaritza	Berria
artekatu 1 , arteka(tu), artekatzen. <i>du ad.</i> 'artekatu'.	Berria
arteko iz. [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
artezkaritza [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
arteztu , artez(tu), artezten. <i>du ad.</i> 'zuzendu'. [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
artxidukesa	Berria
asanblada* e. batzar, biltzar.	Berria
asamblea* e. batzar, biltzar.	Berria
aseguratzaile	Berria
aseguru(-)artekari [Egileon oharra: aseguru sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
aseguru(-)etxe [Egileon oharra: aseguru sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
asegurudun	Berria
aseguru-konpainia* e. aseguru(-)etxe.	Berria
asesinato* e. erailketa.	Berria
askapen	Berria
askarazi , askaraz, askarazten. <i>du ad.</i> [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	

askatzaile	Berria
askatze	Berria
askazi iz. 1 ‘ahaidea’. 2 ‘leinua’.	Berria
askazigo iz. ‘ahaidetasuna’.	Berria
askespen	Berria
asketsi , askets, askesten. <i>du</i> ad. ‘absolbitu’.	Berria
askidatu* e. askietsi .	Berria
askiespen	Berria
askieste	Berria
askietsi , askiets, askiesten. <i>du</i> ad.	Berria
asoziatu* e. elkartu , etab.	Berria
astungarri iz. eta izond. <i>Anton</i> . aringarri .	Berria
asuratu , asura, asuraten. <i>du</i> ad. <i>Ipar</i> . ‘aseguratu’.	Berria
atalburu 2 iz. ‘kapitulua’ (liburuarena, legearena).	Berria
atentatu iz.	Berria
atxiki 1 , atxiki, atxikitzen. 1 <i>zaio</i> ad.: <i>hormari atxikitzen zaion huntza bezala</i> . [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
atxikidura	Berria
atxikipen iz. <i>Admin</i> .	Berria
atxikitzaile	Berria
atxilo egin [Egileon oharra: atxilo sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
atxilo egon [Egileon oharra: atxilo sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
atxilo ekarri [Egileon oharra: atxilo sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
atxilo hartu [Egileon oharra: atxilo sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria

atzemate	Berria
atzerritartasun	Berria
atzetu , atze(tu), atzetzen. <i>da ad. Ipar. g.er.</i> 1 'atzerriratu'. 2 'arroztu'.	Berria
atzipe egin* e. atzipetu . [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
atzipetzaile	Berria
atzitzaile	Berria
atzitze	Berria
audientzia iz. <i>Zah.</i> 1 h. auzitegi , entzutegi .	Berria
aurkapen iz. <i>Zuz.</i>	
aurkaritza	Berria
aurkatasun* e. aurkakotasun .	Berria
aurrekari	Berridatzia
aurreproiektu	Berria
aurrezpen iz. 'aurrezkia, eskugaina'.	Berria
aurreztaile	Berria
ausarkeria	Berria
autarkiko	Berria
autodeterminazio	Berria
autogobernu iz. <i>g.er.</i>	Berria
autonomia iz.: <i>Autonomia Erkidegoa;</i> <i>Autonomia Estatutua.</i>	Berridatzia
autonomiazale izond.	Berria
autonomi elkarte* e. autonomia(-)erkidego .	Berria
autonomiko	Berria
autopsia	Berria
autoritarismo	Berria
auzapezgo iz. <i>Lap.</i> eta <i>BNaf</i> .	Berria
auzi iz.: <i>auzia ipini; auziak garbitu; auziak zuritu;</i> <i>auzi eman (g.g.er.); auzi-aretoa; auzietena;</i> <i>auzi-gela; auzi-ikerketa.</i>	Berridatzia

auzi(-)etxe <i>g.er.</i> ‘auzitegia’.	Berria
auzi-ihesean egon/izan <i>Zuz.:</i> <i>auzi-ihesean da(go).</i>	Berria
auzi-iheslari	Berria
auzi(-)paper	Berria
auzipean	Berria
auzitan <i>adlag.:</i> <i>auzitan ari izan; auzitan jarri; auzitan sartu.</i>	Berria
auzitara <i>adlag.:</i> <i>auzitara eraman; auzitara joan.</i>	Berria
auzialdi <i>iz. Zuz.</i>	Berria
auzibide <i>iz. Zuz.</i>	Berria
auzigabetze	Berria
auzigela* <i>e. auzi(-)gela.</i>	Berria
auzigai <i>iz.</i>	Berria
auzipetu , <i>auzipe(tu), auzipetzen. du ad.</i>	Berria
lan(-)auzitegi [Egileon oharra: auzitegi sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
auzitegi goren [Egileon oharra: auzitegi sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
auzo(-)bide [Egileon oharra: auzo 1 sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
auzo(-)herri [Egileon oharra: auzo 1 sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
auzo(-)etxe <i>Zub.</i> ‘udaletxea’. [Egileon oharra: auzo 2 sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
auzotasun	Berria
axuant <i>iz. Ipar.</i> ‘alkateordea’. [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
azoka [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso	

Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]

azokari iz. <i>g.er.</i> ‘merkataria’.	Berria
azpiatal	Berria
azpibatzerde	Berria
azpisail	Berria

B letra

babes(-)erakunde [Egileon oharra: babes sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
bago* e. pago . [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bahikuntza	Berria
bahisari iz. ‘bahitua berreskuratzeko ordaintzen den saria’.	Berria
bahitegi	Berria
bahitetxe iz.: <i>Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea</i> .	Berria
bahituri iz. <i>Jas.</i> ‘bahitua, bahitutakoa’.	Berria
bahitze	Berria
baiduri iz. <i>g.er.</i> ‘baimena’.	Berria
baiesle	Berria
baiespen	Berria
baieste	Berria
baietsi , baiets, baiesten. <i>du ad.</i>	Berria
baiezpen* e. baieztapen .	Berria
bailara iz. <i>Gip.</i> ‘eskualde txikia’ (ez da <i>haran</i> edo <i>ibar-en</i> sinonimoa).	Berridatzia
baimendu 2 iz. <i>Ipar. g.er. h.</i> baimen .	Berridatzia
baimendun iz. eta izond.	Berria
bakatu* e. pagatu , ordaindu .	Berria
bake(-)epaile [Egileon oharra: bake sarrera	

nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
bake(-)epaitegi [Egileon oharra: bake sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
baldintza-agiri [Egileon oharra: baldintza sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
baldintzapeko izlag.: <i>baldintzapeko askatasuna</i> . [Egileon oharra: baldintza sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
baldintza-plegu* e. baldintza-agiri . [Egileon oharra: baldintza sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
baliatze	Berria
baloraketa* e. balorazio .	Berria
balorapen* e. balorazio .	Berria
baloratu , balora, baloratzen. <i>du</i> ad. h.	
balioetsi, balioztatu .	Berridatzia
balorazio iz. <i>Heg</i> .	Berria
balore 2 iz. <i>Ekon.</i> : <i>balore-burtsa</i> .	Berria
banakako izlag.	Berria
banaketa [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
banako iz. [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
banapen* e. banaketa .	Berria
bando [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bankalari* e. bankari .	Berria

bankari iz. ‘bankuaren jabea edo zuzendaria’.	Berridatzia
bankarrot iz. <i>Zub.</i> ‘porrota’.	Berria
banku 1 iz. ‘banketxea’.	Berridatzia
baratari iz. <i>Zah.</i> ‘eskribaua, notarioa’.	Berria
barkamendu iz. h. barkamen . [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
barkazio iz. <i>Herr.</i> ‘barkamena’.	[Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]
barne(-)arazoak : <i>barne arazoetako ministroa</i> . [Egileon oharra: barne sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
barneratze	Berria
barrunbe [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bastart izond. <i>Ipar.</i> eta <i>Naf.</i>	Berridatzia
bat egin [Egileon oharra: bat sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.] [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bat-egite [Egileon oharra: bat sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.] [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
batasun [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bateratzaile	Berria
batetaratu , batetara(tu), batetaratzen. <i>da/du</i> ad.	

<i>Ipar.</i> ‘bateratu’.	Berria
batetaratze iz. <i>Ipar.</i>	Berria
Batzar Nagusi pl.: Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusiak. [Egileon oharra: batzar sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
batzar orokor : bankuko akziodunen batzar orokorra. [Egileon oharra: batzar sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
batzarre 2* e. batzar .	Berria
batzartar* e. batzarkide .	Berria
batzordeburu	Berria
bazterketa iz. ‘baztertzea’.	Berria
baztertu , bazter(tu), baztertzen. <i>da/du</i> ad.: ezin baztertuzkoa.	Berridatzia
baztertze	Berria
behargile iz. <i>Zah.</i> ‘behargina’.	Berria
behartu , behar(tu), behartzen. <i>du</i> ad.: <i>nagusiak behartu nau; besoa behartu dut. 2 da ad. 3 zaio ad. Ipar.: herriko liburutegiaren ikertzea behartuko zait</i> (‘liburutegia ikertu beharko dut’).	Berridatzia
beka iz. <i>Heg.</i>	Berridatzia
bekadun izond. eta iz. <i>Heg.</i>	Berridatzia
bekulari iz. <i>Zah.</i> ‘zerbitzarien soldata’.	Berria
bengantza hartu h. mendeku hartu . [Egileon oharra: bengantza sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
bengatu* e. mendekatu .	Berria
bengatzaile* e. mendekatzaile .	Berria
berandutu , berandu(tu), berandutzen. <i>du</i> eta <i>zaio</i> ad. [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta	

Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
berandutze	Berria
berbal iz. <i>Batez ere Zub.</i> h. isun, prozedura.	Berria
berdinbanatu , berdinbana(tu), berdinbanatzen. <i>du ad.</i>	Berria
beregain izond. [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
beregaintasun [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bereganatzaile	Berria
berahalako auzi <i>Zuz.</i> [Egileon oharra: berahalako sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	
bereizkeria iz. ‘bereizte gaitzesgarria, diskriminazioa’.	Berridatzia
bereizte	Berria
berreiztu* e. bereizi. [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bere-berezko [Egileon oharra: berez sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
berjabe izond. <i>g.er.</i> ‘burujabea’.	Berria
berrerosi , berreros, berrerosten. <i>du ad.</i> [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
berrerosle	Berria
berreskurapen	Berria
berreskuratu , berreskura, berreskuratzen. <i>du ad.</i> [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	

berreskuratzaile	Berria
berreskuratze	Berria
berriztatu , berrizta, berriztazen. <i>du</i> ad. [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
berriztatze [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bestelakatu* e. bestelakotu .	Berria
bestelakotasun	Berria
bestelakotze	Berria
bestelatu* e. bestelakotu .	Berria
bestereenganatu , bestereengana(tu), bestereenganatzen. <i>da/du</i> ad. h. bestereendu .	Berria
bestereentzaile	Berria
bestereentze	Berria
bestetarakotu* e. bestereendu .	Berria
bestetarakotze* e. bestereentze .	Berria
bete 1 , betetzen. <i>da/du</i> ad.	Berridatzia
betearazle	Berria
betearazpen	Berria
betepen* e. betetze .	Berria
bezeria [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bidasari* e. bidesari .	Berria
bidegabeko izlag. [Egileon oharra: bidegabe sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berridatzia
bidegabez adlag. ‘bidegabeki’. [Egileon oharra: bidegabe sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
bidegabeztatu , bidegabezta, bidegabeztatzen.	

<i>du</i> ad. <i>Zah. g.er.</i> ‘iraindu’.	Berria
bidezkoatasun	Berria
bidezkotu , bidezko(tu), bidezkotzen. <i>du</i> ad.	Berria
bigamia [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bigamo	Berria
bigilantzia* e. zaintze , begiratze , jagote , etab.	Berria
bigilatu* e. zaindu , begiratu , jagon , etab.	Berria
bihurkotasun	Berria
bijilantzia* e. zaintze , begiratze , jagote , etab.	Berria
bijilatu* e. zaindu , begiratu , jagon , etab.	Berria
bikote [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bikote-lagun [Egileon oharra: bikote sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
bikotekide	Berria
bilduma egin [Egileon oharra: bilduma sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.] [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bildumagile [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bildumari [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bildumatu , bilduma(tu), bildumatzen. <i>du</i> ad. [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	Berria
bildumatze iz.: <i>eskertzekoa da doinu herrikoien</i>	

<i>bildumatze ahalegina.</i>	Berria
bilete* e. billete.	Berria
bilguma* e. bilera; bilduma; biltegi.	Berria
bilkuia iz. <i>Zah.</i> ‘bilkura’.	Berria
bilkuntza iz. <i>Zah.</i> ‘bilera’.	Berria
billete iz. (dirua).	Berridatzia
biltzar-lagun <i>g.er.</i> ‘biltzarkidea’. [Egileon oharra:	
biltzar sarrera nagusiaren azpisarrera da	
Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
biolatu* e. bortxatu.	Berria
biolazio* e. bortxaketa, bortxatze.	Berria
birgaikuntza	Berria
birgaitu , birgai, birgaitzen. <i>da/du</i> ad.	Berria
birgaitze	Berria
birjabetasun	Berria
birjabetu , birjabe(tu), birjabetzen. <i>da</i> ad.	Berria
birjabetze	Berria
bitima* e. biktima.	Berria
bizikide [Egileon oharra: sarrera hori ez zen	
jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta	
Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bizikidetasun [Egileon oharra: sarrera hori ez	
zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz	
eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bizikidetza	Berria
bizipide* e. bizibide.	Berria
biziterri iz. <i>g.er.</i> ‘bizilekua’.	Berria
bizitetxe iz. <i>g.er.</i> ‘bizilekua’.	Berria
bizitzaile 1 izond. ‘bizigarria’. 2 iz. ‘biztanlea’.	Berria
bizkonderri	Berria
bizkondesa	Berria
bizkondetza	Berria
biztanlego* e. biztanleria.	Berria

boletin* e. buletin .	Berria
boltsa* e. poltsa eta burtsa . [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
bortxaz adlag. <i>Ant.</i> amodioz . [Egileon oharra: bortxa sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berridatzia
bortxazko izlag. [Egileon oharra: bortxa sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
bortxaka	Berria
bortxapen* e. bortxaketa eta bortxatze .	Berria
bortxarazi , bortxaraz, bortxarazten. <i>du ad. g.er.</i>	Berria
bortxatzaile	Berria
bortxatze	Berria
bota 1 , bota, botatzen. <i>du ad.: erroak (loreak...)</i> <i>bota (erroak sakon bota dituen landareak, kimuak eta loreak ere bota ditzake); umea (seina) bota ('umea galdu, abortatu')</i> .	Berridatzia
botarazi , botaraz, botarazten. <i>du ad.</i> [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
botatu , bota(tu), botatzen. <i>du ad. (nor kasurik gabea). Heg. Beh.</i> 'botoa eman'.	Berria
botatzaile izond. eta iz. <i>g.er.</i> 'botatzen, egozten duena'.	Berria
botigoa iz. <i>Zub.</i> 'elkartea'.	Berria
botoa eman [Egileon oharra: boto sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
boto-emaile [Egileon oharra: boto sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria

botu* e. boto .	Berria
boza eman ‘bozkatu’. [Egileon oharra: boz sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
boz-emaile [Egileon oharra: boz sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
bozaldi	Berria
bozerramaile	Berria
bozkatu , bozka(tu), bozkatzen. <i>du</i> ad. 1 <i>du</i> ad. (nor kasurik gabea): <i>gobernuaren alde bozkatu dutenak</i> . 2 <i>du</i> ad.: <i>aurrekontua bozkatu zuten</i> .	Berridatzia
bufete iz. 2* e. bulego .	Berria
burges txiki [Egileon oharra: burges sarrera nagusiaren azpisarrera da Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko 2. itzulian.]	Berria
burgestu , burges(tu), burgesten. <i>da/du</i> ad. [Egileon oharra: sarrera hori ez zen jaso Oinarrizko Hiztegi Juridikoan, nahiz eta Hiztegi Batuko 1. itzulikoa izan.]	
burjeseria* e. burgesia .	Berria
burokrata	Berria
burokratiko	Berria
burutze	Berria

C letra

copyright	Berria
------------------	--------

1805eko ERMANDADEKO ARAUDIA EUSKARAZ

1. AURKEZPENA ETA ESKER ONA

Artikulu honetan, euskarazko testu bitxi bat aurkeztu nahi dugu: idi-jabeen ermandade baten arautegia. Testua Lezaman (Bizkaia) kokatzen da, 1805. urtean herri horretan sortutako idi-jabeen elkarteari dagokio eta.

Idazkia prozesu judizial bati erantsitako dokumentua da; auzia 1806an hasi zen Korrejimenduan (orduko auzitegi nagusia Bizkaian); dokumentazioa gaur egun Bizkaiko Foru Agiritegian gordetzen da¹.

Testua ikerketa bat egiten ari zela agertu zen. Ikerketa hori Itziar Monasterio irakasleak zuzentzen du eta Nagore Otazuak eta Ainhoa Ordorikak parte hartzen dute. Ikerketaren izenburua hauxe da: *Obligaciones y contratos en el derecho civil vasco, siglos XVII-XIX / Betebeharrak eta kontratuak euskal zuzenbide zibilean, XVII-XIX menduek*. Ikerlanak (aurretik egindako beste batzuen antzera²) foru sisteman garaiko Bizkaiko auzitegietan sortutako dokumentuak ditu oinarri.

¹ Hauxe da dokumentuari dagokion signatura osoa: BFA/DFB. JCR 4330/004. Espediente judizialak guztira 165 orrialde hartzen ditu. Euskarazko testua 14. orrialdean dago, aurreal-detik eta atzetik.

² Ikerketa honen lehen fasearen fruituak, pertsona- eta familia-zuzenbidean oinarrituak, lau liburukitan argitaratu dira: Foru Jurisprudenzia Zibilaren Bilduma-Colección de

Ikerlanaren helburua euskal gizartean aspaldi sortutako elkarte eredu batzuk aztertzea da, hainbat auzitan oinarrituta. Besteak beste, mota honetako elkarteei buruz ari gara: arrantzale-kofradiak, hiletan inguruko mutua-sozietateak, sute-arriskuaren aurkako sozietate-mutuak, abereenak, olgeta-asoziazioak, kultura arlokoak, ongintzakoak, lankidetzakoak, amaetxeak... Elkarte horiek arlo desberdinetakoak dira, baina helburu bera dute, hots, kide guztien interes erkidea zaintzea.

Azkenik, zinez eskertu nahi dugu testua gure eskuetan uztea artikuluko hau idazteko.

2. ABEREEN INGURUKO ERMANDADEAK

Ermandadeetan, oro har, zenbait auzoko elkarte egiten ziren ondasun bat ustekabea galtzeari aurre egiteko. Bazkide bakoitzak diru kopuru bat ematen zion elkarteari, ondasuna galtzen baldin bazuen, zoritxar hori guztien diruarekin konpentsatu ahal izateko.

Honela laburtuko litzateke abereen ermandadearen jardue-
ra, Bizkaiko lekuko baten ahotan³:

Emen gure parajea, ergoien, hamabi etxe gara eta ermandadea egiten gendun.

Etxe bakoitzeko ugazaba edo errentorea bada, ganaduen jau-bea, ba San Justoko ermita-portalean batuten ginean urtean bein.

Zure aitita Frantziskok o artzen euazan kartak eta bateko urrea tokaetan jakona, presidente izaten zan, gero beste karta bategaz, mayordomoa eta beste bigaz beste lagun bi. Eta au, urtean-urtean.

Jurisprudencia Civil-Foral (ss. XVI-XIX), T. I, *Selección de procesos civiles ante los Tribunales Forales de Bizkaia (1635-1834)*; T. II., vol. 1 y 2, *Gobierno de los menores en los procesos civiles ante los Tribunales Históricos de Bizkaia (1642-1902)*; T. III, vol. 1, *Contratos sobre los bienes con ocasión de matrimonio. Dote y pacto sucesorio (1641-1785)*, Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2002-2005. Iaz aldizkari honetan idatzitako artikulua bidez eman zen horien berri. Saioa ARTIACH: "Colección de Jurisprudencia Civil Foral (XVII-XIX)", *Boletín de la Academia Vasca de Derecho – Zuzenbidearen Euskal Akademia. Aldizkaria*, 5. zk., Bilbo, 2005, 91-101. or.

³ Lekukotza hori Juan Manuel Etxebarriak jaso du (izan ere, lekukoa bere ama da); bide batez, eskaintako laguntza eskertu nahi diogu. Juan Manuel ETXEBARRIA: *Gorbeia inguruko etnoipuin eta esaundak*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 2001, 114. or. Gotzon Loberari ere, mila esker.

Eta gero ba ileko leengo domekan errekorridua egiten eudien, kortarik korta. Eta ba korta bakotxean, orek i laurok eta etxe-ko ugazaba egoten ziran eta ilero-ilero bei guztiak e tasadu, danen konformidadeagaz.

Eta, ba, gero, egunen baten, bateren bateri beiren bat a tragadu edo maltratadu ezkeru, edo beien batek e txala galdu ezketiño, ba juntatu egiten ziran eta kaltearen kostua danen arte zatitu eta kitutu.

Hona hemen, berriz, Gipuzkoako lekukotza⁴:

Nere gazte denboran, Goierrian nintzala, bazan ganaduen ermandadea esaten zitzaiona. Emen, berriz, kofradia deitzen genion; baiña orain batere ez, bukatu ziran kontu aiek. Goierrian nintzanean, ganaduen gora-beretan ez nintzan metitzen, baiña dakidana jarriko det. Gero esango ditut emengoak.

Badakit, an ere, urtean bein mudatzen zirala ermandadeko gizonak, galtzen zan beia edo txekorraren jabeari zenbat ordaindu bear zitzaion eta abar erabakitzeko. Baiña beterrinarioren esanera egin bear ziran gauzak: al bazan aprobetxatu; bestela berriz, zuloa egin eta an sartu. Gaitz txarren bat ez bazuan, kofradian aprobetxatzen zan zeziña egiteko, geienetan. [...]

Goierrian nola egiten zan jarri det; esan det dakidana. Orain Altza parte ontakoak esango ditut. Emen ere bagendun, Goierrian bezela, ermandadea, baiña emen guk kofradia deitzen genion, edo obeto esanda, *konpadria*, eta oso ezberdiña zan Goierri-koen aldean.

Altza-k baserri asko zuan ni onera etorri nintzanean, gaur askorik ez badu ere. Jende asko giñan konpadrian; denak ez, baiña geientsuenak bai. Emen listeroa genduan eta kajero ere berak egiten zuan.

Illean bein biltzen giñan Altza-ko Martillun tabernan, jai arratsaldez, ordu jakiñean. Tabernako nagusia bera genduan kajero eta listero eta lista pasatzen zuan zenbat ganadu zan jakiteko. Buruko tokatzen zana kajara bota eta ganaduren bat galtzean, kajan zegoan

⁴ Bartolo AYERBE: *Zaarrak berrituz*, Auspoa Liburutegia, 241 zk., Sendoa Argitaldaria, Oiartzun, 1996, 91-95 or.

dirutik pagatu ganadu jabeari, baiña beterinarioak esan bear zuan zer egin.

Konpadrikoak ziranak eta ez ziranak ere bai, egiten genituan jai bereziak. San Anton egunean, adibidez, meza-nagusia. Sermoiegillea kanpotik ekartzen genduan. Eta gero, bazkaria.

Baiña bazkari aurretik, urteko kontuak garbitu, kajan zenbat diru zegon ikusi, konpadriko gizonak gonbiratu eta abar.

Andik urrengo igandean jartzen ziran gizon berriak, eta ganaduak ikusten ibiltzen giñan baserriz-baserri. Listeroa ere bai, baiña beti etzan ibiltzen. Urte batean, beiak ikusten zebiltzala, baserri batean, billatu omen zuan tranpa: lau beirena pagatzen eta sei edo zazpi ikuilluan. [...]

Oitura zan, bei bat kenduta beste bat erosten bazan, bei ura konpadrian sartzeko, beterinanoak ikusi eta sanidadeko zertifikadua bear izatea. Gero, aldeen bizi zan konpadriko gizonak ikusi bei berria listan apuntatzeko. Orrela ziran orduko konpadriko legeak eta oiturak.

Listero egiten zuana aspertu egin zan azkenean. Urteetan ere aurrera zijoala-ta, uztea pentsatzen zuala esan zigun. Beste batek artu nai bazuan, arek entregatuko zituala listak, liburuak, kaja eta giltzak. Kargu ura etzuan iñork artu nai izan eta orra gure konpadria deseginda gelditu.

Ermandadeak, batez ere, ohiturazko antolaketa zuten elkar-teak ziren. Edonola ere, elkar-teok eratzean, funtzionamendu-arauak dokumentu pribatuetan biltzen ziren batzuetan, eta, hain zuzen ere, mota horretakoa da esku artean dugun dokumentua; eta ezaugarri bitxi bat du, jakina, euskaraz idatzita dagoela. Gai horren inguruan, hurrengo zioen Wentwort Webster-ek XIX. mendearen amaieran Iparraldeko elkar-teen gainean:

La mayoría de estas asociaciones no ha tenido en absoluto ni estatutos ni reglas escritas. He visto los papeles de algunos secretarios de estas *cofradiac*. Se componían solamente de un cua-

derno, de un valor de diez céntimos, con una lista de las casas que formaban parte de la hermandad y el número y el valor de los animales asegurados; y he aquí todo. No había ni una sola palabra escrita más. Conozca la existencia y el reglamento de otras de viva voz solamente. Hay algunas cuyos reglamentos y estatutos he encontrado. Han sido impresos como piezas justificativas. Pero la circunstancia característica de estas asociaciones es que se producen y manifiestan fuera de la ley y de la vida oficial. Son asociaciones perfectamente libres e independientes. Rara vez recurren los asociados a la ley o a los tribunales.

Bonifacio Echegarayk hurrengo gehitzen du Hegoaldeari begira⁵: “Del Bidasoa para acá también se gobiernan las Hermandades por preceptos consuetudinarios, que en algunas localidades han adquirido la forma escrita, y los conflictos a que pudiera dar la interpretación de aquellos no trascienden al terreno litigioso.” Zorionez, aztertzen ari garen kasu honetan bi jokamolde horiek ez dira jazotzen: mutuaren araudia idatzi egin zen, eta auzi bati esker ezagutu dugu.

3. TESTUINGURUA: 1806ko AUZIA

Aurrean esan dugunez, euskarazko testua prozesu judicial batean erantsi zen. Ondoren, auzi horren gaineko datu batzuk emango ditugu. Lehenengo eta behin, ermandadea aurreko urtean, 1805ean, sortu zela esan behar da, espediente judizialean ezarritakoaren arabera⁶. Auzian, Lezamako ermandadea eta elkarteko kide bat, Domingo de Echebarria-Egusquiza, aurrez aurre egon ziren. Domingok animalia bat galdu zuen, baina ermandadeak ez zion kalte-ordainik eman nahi. Hori zela eta, elkarteko kideak liskarra auzitegira eramane zuen.

Demandatzaileak zioen idi bat gaixorik hil zitzaiola eta, beraz, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea zuela. Dirudienez, errekla-

⁵ Bi aipamenak artikulua honetatik ateratu ditugu, Bonifacio de Echegaray: “La vecindad: relaciones que engendra en el País Vasco”, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 23. lib., 1932.

⁶ Hurrengo hau esaten da espedientearen 16. orrialdean: “hace un año cumplido se estableció una hermandad de caridad, reducida, a que el hermano que se le muriese un Buey o Bueyes, se le pagaría por cada hermano cinco reales y medio siendo un Buey el muerto, ya este respecto de quantos se le muriesen, a fin de alibiarle en su desgracia”. Espedientearen kofradiako kideen zerrenda ere agertzen da (13. orrialdea), 1804ko abenduan egindakoa.

matzaileak, epez kanpo, ermandadeko kuota ordaindu zuen, betiere, abantaila horretaz aprobetxatzeko; izan ere, idietako bat gaixotu egin zitaion, eta seguru zegoen galdu egingo zuela.

Aitzitik, ermandadeak, ordenantzak oinarri hartuta eta horiek aurkeztuz, adierazi zuen demandatzaileak ez zuela hirugarren baldintza bete, hau da, epe jakin batean ez zuela diru kopuru jakin bat ordaindu, eta, beraz, ezin zuela eskubide horretaz gozatu.

4. EUSKARAZKO TESTUAREN DATU BATZUK

Testura ermandadeko ordenantzak bildu dira, hau da, elkar-teak ondo funtzionatzeko zituen oinarrizko erregela batzuk: bazkide izateko betekizunak, ekarpenak, kalte-ordainak kobratzeko betekizunak... Azken batean, elkartearen barruan sor zitezkeen gatazkak ebazteko araudia zen, eta lehentasuna zuen beste erregela juridiko batzuen aurrean.

Mota horretako elkarteen ahozko funtzionamendua euskaraz garatu arren, idatzizko dokumentazioa gaztelaniaz sortzen zen, aztertutako beste ermandade batzuen kasuan gertatzen den bezala. Beraz, kasu hau bitxia da, ermandadeak, auzian bere jokabidea defendatzeko, barne erregelamendua aurkeztu baitzuen, eta testu hori euskaraz idatzita agertzen baita. Salbuespentzat har daiteke, dakigunez, mota horretako dokumentu idatziak sortzeko euskara oso gutxi erabil baita.

Amaitzeko, dokumentazio judiziala euskaraz idatzitako eta gai erlijiosoak ez duten testuen iturri oparoa dela esan behar dugu, besteak beste: bertsoak, irainak, hitz solteak, lekukoen adierazpen laburrak, partikularren arteko gutunak⁷, etab. Baina esku artean dugun kasua bitxiagoa da, bai luzerari, bai gaiari erreparatuz gero.

⁷ Mota honetako testu baten azken aipamena duela gutxi izan dugu, Ricardo Urrizolaren artikuluko batean; beratar batek Lapurdiko, Ziburuko, euskaldun bati idatzitako zenbait gutun dira (bat 1674koa, bi 1676koak); gutun horiek Berako bizilagun batek auzi batean gehitu zituen olagizonaren letra identifikatzeko. Ricardo Urrizola: "Tres cartas en euskera escritas por un ferrón de Bera", *Fontes Linguae Vasconum*, 102. zk., 2006, 255-269. or. Orain dela gutxi ere argitaratu da beste artikuluko hau, auzietako agirietan agertzen diren euskarazko testigantza eskas baina interesgarriei buruz: Carlos RILLOVA: "Las palabras olvidadas. Una aproximación a nuevas fuentes para el estudio del euskera. Los archivos criminales del País Vasco (siglos XVI-XIX)", *Oihenart. Cuadernos de lengua y literatura*, 21. zk., Donostia, 2006, 409-423 orr.

Testua herri hizkeran idatzita dago eta gaur egun ere erraz ulertzen da⁸. Hizkuntzaren aldetik aipagarriak dira, besteak beste, ablatibo zaharra (-ric), erlatibozko esaldiak edo gaur egun erabilera urriagoa duten forma batzuk (arean, cerbaiste) edo idazkera bera.

5. TESTUAREN GAZTELANIAZKO ITZULPENA

Aurretik esan dugunez, testu hau Lezamako Idien Ermandadeak euskaraz aurkeztu zuen auzitegian. Hala ere, epaiketant, testua gaztelaniara itzultzeko eskatu zen.

Badirudi itzultzailea, Pedro Santos de Madina eskribaua, ez zela oso aditua. Izan ere, itzulitako testuaren sintaxia askotan euskarakoaren berdina da, eta esamolde batzuk baldar itzuli dira. Era berean, deigarria da “lupu” hitza itzultzeko “mal de escorpión” esamoldea erabiltzea, abereen gaixotasun horri gaztelaniaz “carbunco” esaten zaio eta⁹. Ziurrenik, eskribauak normalean ez zituen euskarazko agirien itzulpenak egin beharko:

En cumplimiento delo que se manda en el auto inserto en el/ Despacho antecedente: Yo el Escribano teniendo presente el espe-/diente y papel que obra al folio catorce de él paso a tradu-/cirle segun mi inteligencia en la forma siguiente [...] Esta traduccion la he hecho según mi inteligencia y arreglan/dome en lo posible del idioma bascongado en que se ha/llan las condiciones. Ylo firmo despues de la horden/ citada en Bilbao á veintiocho de Abril demil ochocientos y seis.

⁸ Nahi gabe, Jose Paulo Ulibarri (1775-1847) etortzen zaigu gogora. Ulibarri Larramendiren jarraitzailea zen, eta beraren estiloa Lezamako testuko estilo lauaz bestelakoa da. Hala ere, zenbait lotura daude: batetik, Ulibarri al baitaria zen, eta Lezamako testuan irudikatutako giroan mugitzen zen; bestetik, bi kasuetan, euskal gizarteko eguneroko jardueretan idatziz aritzeko tresna erabilgarri gisa euskara erabiltzen hasi zen. Nola edo hala, biek ala biek elkar osatzen dute. Ulibarri euskaltzalearen gurariak ez ziren amets hutsak, euskararen benetako erabileran oinarritu zen, eta euskarazko testuak idatzi zituen. Hala ere, horiek, neurri handian, oraindik ez dira ezagunak.

⁹ “Lupu” berba hiztegieta “escorpión” modura badator (beste adiera batzuen artean), baina araudiaren testuinguruan gaixotasuna adierazten du. Gaztelaniaz ez da “mal de escorpión” izeneko gaixotasunik. Beraz, itzulpen okerra dela ematen du.

I. eranskina: euskarazko testuaren transkripzioa¹⁰

Lezamaco, Ydien Hermandadean, Ysengodirean, Condicinoac, dira/ onec

1^a Lenengoa, Beste erribeten Hermandadean, Sarturic, dagoa/nic, esta admitiduco, Hermandadeonetan, beste, erricoa, decisti/dubagaric/

2^a Bigarrena, Yminicoda, 5 1/2 Erreal, Gaur, edo gaur, sorci, lu/senes, Ynor, esque, ybilibagaric, eta faltetan dauenac, dempora/ señalauric, dagoan, onetan, Ysangoda, botatea, hermandade/ric, eta Nombraucoda Personea, nori, entregauco, Yacasan, Señec/ eucoditusen, depocitauric, Pronto, Lenengo, desfurtunea, Jasoten/ Yacanensaco/

3^a Yrugarrena, Lenengo, Ymportea, alsau, edo, er[r]ecibidu, dacenic/ sorci, egunbarru, edo, lucenes amabosta, barru, Yminicoda, Lenen/goco, beste, ynporte, depocitauric, ostera, Jasodaquionensaco, eta/ depocitetan, estauenac, Urtengo, edo, botacoda ermandaric, can/pora eta/

4^a Laugarrena, Lau, Ydi euquigureitusenac, Pagaucoditus, boto/ bi, edo, espabere, Ysentaucodau, Ydibusterri bata sein Ysen/godan, hermandadecoa,/

5^a Bostgarrena Porciacaso, Guesotuten, bayaco, Ydibat bateri eta/ conturic eguines, edo medecinen faltas, Ylten bada, esta cer/ pagau egongo/

6^o Seigarrena Porciacaso derrepente, Lupuenagas, edo, beste, gue/ so jenerogas, Ylten bada Lenago eser esautu bagaric, // earrico dau ausoen Ynformea, eta espabere estapagaucou/

7^o Saspigarrena Porciacaso, bateri Guesotuten, bayaco, Ydie emon/godau parte hermandadeco, batzuen, artean egunbibarru espabere ysengoda nulo

¹⁰ Transkripzioa egiteko, 2. oharrean aipatutako lanetan testuen ediziorako hautatutako metodologia erabili da, hau da, testua dagoen-dagoenean jaso da, baina letra larriak eta ortografia errespetatuta, eta hitzen artean tarterik utzi gabe; gainera, ikur hauek erabili dira: / = lerroaren amaiera; // = folioaren amaiera; laburduren kasuan, forma osoa idatzi da.

8. Sorcigarrena, Porciacaso, bateri, Ydibet ostuten badose, pagauco/ yaco Ynterecic Erdie Ecartenbadua Ynforme, artesa, ausoena/ eta espabere, bapere echaco pagauc

9 Bedaracigarrena Porciacaso, Ydibateri Jayoten, baiaco Ysterbat/ auci edo adar\`a\bota, emongo, dauparte hermandadean ea serequin/ Leyoan eta badago guesoagas, euco dau parte finau artean/

10º Amargarrena Ysengo dire Ydiec urtebipasauec eta Guichi/enes, Sei arran Ygueroten, dirianac echeco serbicatoraco/ eta espabere esta pagauco arean

11º Amacagarrena au Ermandadeau Ysengo da Lau Urte/co

12º Amabigarrena Hermandadecobatec emoten badauses/ ydiec egun bateco, edobico bearreraco, ermandadean/ estagoan bateri eta dempora atan gasoten bayaco desca/labruric estau hermandadean dagoanec serpagau euqui/co

13º Amairugarrena Porciacaso ermandaco batec eguiten badau/ truque bat mentures Argal edo aniquilauric dagoan bate/gas coyetarren cerbaiste cantidade emongo deuso par/te ermandaco batzuei edo cobradoreari erreconociduda/guien capabada edo espada eta onec parte emoten dose/nac edo cobradoreac, emongo dau contu Yruegunbarru,/ Jairic badago eta espabere Urrego Domecan

14º Amalugarren Pagauco yaco cobradoreari ogu\`e\`i erreal batsean/ dan ynporterico nequezaco eta cobradorea libre paguric

II. eranskina: erdarazko testuaren transkripzioa

Las condiciones que habra en la Hermandad de Bueies/ de Lezama son estas/

Primera no se admitira en esta Hermandad al que es-/tubiese en Hermandad de otro Pueblo, sin que sede/sista de ella/

Segunda sepondran cinco y medio reales hoy, ó hoy en/ ocho lo mas largo, sin que ninguno ande recoge/endo, y el que faltase en este tiempo señalado sera/ hechado de la Hermandad, y se nombrará perso-/na á quien se entregarán, y tendrá deposita-/dos pronto para el primero a quien le suceda/ la desgracia/

Tercera levantado el primer fondo, ó desde que se/ reciba en el termino de ocho dias, ó lo mas lar//go dentro de quince se pondra otro importe/ Depositado para quien otra vez le suceda, y el/ que no Depositase saldrá, ó sele hechará fue/ra dela Hermandad, y /

Quarta el que quiere tener quatro Bueyes pagara/ dos botos y sino nombrara, o señalara unapare/ja de Bueyes que sera de la Hermandad/

Quinta por si a caso sele enfermase un Buey á/ uno y sin cuidar, o por falta de medicinas muriese/ no habrá que pagar/

Sexta por si acaso derrepente con el mal de Escorpión/ ú otro genero de enfermedad muriese sin pedir/ antes algo, traera Informes de la Vecindad, y sino/ no se pagara/

Septima, por si acaso á uno sele enfermase el Buey/ dara parte entre alguno de la Hermandad dentro/ de dos días y sino sera nulo./

Octaba, por si á caso á uno le robasen un Buey sele/ pagara la mitad del interes, si trae Informe dere-/cho de la vecindad, y sino nada se le pagara/

Novena por si acaso á un Buey le ocurriese en rom/persele una pierna, ó hechar una hasta dará/ parte en la Hermandad, para ver lo que sele/ podra hacer, y si está con enfermedad le tendra// hasta finar/

Decima seran los Bueyes de dos años pasados y alo/ menos que pasaran de seis palmos para el Ser-/vicio decasa, y sino no se pagara nada/

Decima primera esta hermandad sera para qua/tro años/

Decima segunda, uno de la Hermandad si le dan/ bueyes para un dia, o dos para trabajar a algu/no que no esta en la Hermandad, y en aquel/ tiempo sucediese algun descalabro no tendra que/ pagar ninguno que esta en la Hermandad/

Decimo tercera por si acaso alguno dela Herman/dad hiciese algun trueque, acaso con uno que/ está flaco, o aniquilado por coger alguna can/tidad dara parte á algunos dela Her-/mandad, ó al cobrador para que reconoz-/ca para ver si es capaz, o no, y el que/ este diese parte, ó el cobrador dara cuenta/ dentro de tres dias si hay fiesta, y sino el/ siguiente Domingo//

Decima quarta sepagara alcobrador veinte/ reales del importe que se recoge por el traba/jo y el cobrador sera libre dela paga./

Cesar Gallastegi Aranzabal

Continetur alioq. Infancia etc. copulata ut supradicta
 7. Sappirarum iudicium, batesi Guadalupe bayaco, Idic
 gaudiparte hermandades, batesi venarum Iguribaru
 bere y fempada nule
 8. Sappirarum iudicium, batesi, Idic et batesi batesi p
 yaco Interpice batesi Comandadau Informe artesa, au
 eta copulata batesi batesi papes
 9. Pedararum iudicium, batesi, Idic batesi batesi papes
 au de batesi, Imong d'au parte hermandades au de
 guesen eta batesi guesen au batesi batesi artesa
 10. Amarguetau y fempada Idic ut supradicta etc. g
 eno, Idic au batesi batesi batesi batesi batesi
 eta copulata batesi papes etc.
 11. Amarguetau au Comandadau y fempada Lau
 co
 12. Amarguetau hermandades batesi batesi batesi
 yaco guesen batesi batesi batesi batesi batesi
 batesi batesi eta batesi batesi batesi batesi
 batesi batesi hermandades batesi batesi batesi
 co
 13. Amarguetau batesi batesi Comandadau batesi batesi
 batesi batesi batesi batesi batesi batesi batesi
 pates Coytaaren batesi batesi batesi batesi batesi
 le Comandadau batesi batesi batesi batesi batesi
 guesen Comandadau batesi batesi batesi batesi batesi
 nate etc. batesi batesi, Imong d'au batesi batesi batesi
 batesi batesi eta copulata batesi batesi
 Amarguetau batesi batesi Comandadau batesi batesi
 batesi batesi batesi batesi batesi batesi batesi

1789ko LAPURTARREN KAIERA

1. TESTUAREN AURKEZPENA ETA EDIZIO HONEN HELBURUA

Artikulu honen oinarrian dagoen euskarazko testua oso ezaguna da. Lapurdiko heren estatuak 1789an, Frantziako Iraultzaren bezperan, idatzitako kexen koadernoak da. Dakigunez, testu hau Parisera bidaltzeko idatzi zen, hain zuzen ere, bertan Estatu Jeneralak Frantziako monarkiaren egoerari buruz hitz egiteko bildu behar ziren eta.

Lapurdiko herriek Ustaritzen eman zituzten koadernoak 1789ko martxoaren 17 eta 23a bitartean. Horretarako beren beregi izendatutako pertsonak bateratu zituzten testuak. Azken testua frantsesez eta euskaraz idatzi zen eta elebidun argitaratu.

Ondoren, testu horren zenbait edizio egin ziren. Besteak beste, aipatzekoa da XIX. mendearen amaieran Vinsonek egin eta *Pièces historiques de la période révolutionnaire en Basque et en Français en 1784* liburuan argitaratu zuena, garai hartako beste testu elebidun batzuekin batera¹. XX. mendean, Pierre Yturbidek testua berriz atera zuen 1909an, BSSLAB aldizkarirako idatzitako artikulu batean.

Zenbait urte geroago, testua berriz ere berreskuratu egin zen, esaterako 1989an Pierre Hourmaten eskutik, eta 1975ean M. J. Ricaren eskutik². Rica Esnaolaren lana interesgarria da, testu hone-

¹ J. Vinson: *Pièces historiques de la période révolutionnaire en français et en basque*, P. Cazals, Baiona, 1875. Hain zuzen ere, testua eguneratzeko, Vinsonen lana hartu dugu oinarri.

² Orainsuago beste zenbait edizio ere argitaratu dira, azkena, Leopoldo Zugazarena (*Gizonak & Lanak. Bibliofiliako lanen bilduma*, 4. zk., Olerti Etxea, Bilbo, 2006). Interneten, ikus Koldo Mitxelena Kulturuneko web-orrialdea ("Atzo atzokoa, Liburuxka digitalizatuen bilduma" izeneko atala).

tan eta garai bereko beste testu batzuetan erabilitako hiztegia aztertu baitzuen artikulu luze batean³.

Hala ere, artikulu honen xedea ez da euskarazko testuaren analisi filologikoa egitea, aurreko urteetan eta Iraultzan euskarak zuen egoera aztertzea edo testuan agertzen diren alderdi historiko eta juridikoak ikertzea. Artikulu honen xedea euskarazko testuaren bertsio eguneratua eskaintzea da. Euskal historiako testu garrantzitsu hau gaur egungo irakurle euskaldunari hurbildu nahi zaio, azken buruan, zuzenbideko edo historiako ikasleak eta jakingura duen irakurleak testua erraz ezagutzeko.

2. TESTUAREN BARNE-ZATIKETA ETA IDEIA NAGUSIAK

Testuaren barne-zatiketari ekin orduko, ohar bat: lerroaldean ondoan, kortxete artean dagoen zenbakia guk gehitu dugu, ez dator jatorrizko testuan; aipamenak errazago egiteko eta testuak lokalizatzeko egin dugu hori.

Lapurtarren testuak egitura zehatza du. Egitura hori jarraian azalduko dugu, testura bildutako ideia nagusi batzuekin batera⁴.

a) Sarrera: bertan, testuaren zergatia edota testuaren barruko ordena azaltzen da (1-4. lerroaldeak).

b) Frantziako monarkiari buruzko oharra: Frantziako monarkiaren edo proposamen orokorren ingurukoa da hurrengo zatia, hau da, *Nazioari eman behar zaion Konstituzioa* (5-21).

c) Zergei buruzko zatia: *Inposak* izeneko atalean (21-27), Estatuaren krisialdia eragiten zuen sistema fiskalaren erreforma aztertzen da.

³ M. Rica Esnaola: "Traduction en basque de termes politiques sous la revolution", *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, IX, 1975, 3-172 or.

⁴ Testu honetako edukien azterketa Manex Goyhenetxeren lanean aurkituko dugu. Lan horren kontsulta gaztelaniaz egiteko, ikusi Manex Goyhenetxe: *Historia general del País Vasco. Tomo III. A las puertas de la sociedad moderna*, Ttartalo, Donostia, 2005, 133-152. or. Horrez gain, gaiaren inguruko bibliografia zabala kontsultatu nahi izanez gero, ikusi: Santiago Larrazabal: *Derecho público de los territorios forales. De los orígenes a la abolición foral*, IVAP-HAEE, Oñati, 2004, 309-314. or. Lan horretan, Lapurdiko orduko erakundearen deskripzioa ere aurkituko dugu.

d) Justizia-sistemaren antolaketari buruzko zatia. Kasu honetan, *Justiziaren Administrazioa* izeneko zatia dugu aipagai (28-47). Justizia-administrazioaren inguruko eskakizunen artean, parlamentu probintzialak eta herri-asanbladak berpiztea agertzen da. Horrekin batera, hirugarren estatuak kode zibil eta kriminalaren erreforma eskatzen zuen.

e) Lapurdiren eskaera zehatzak: laugarren zatiak Lapurdiko Biltzarraren eskakizunak biltzen ditu hamabi puntu zehatzetan (48-75), Lapurdiko erakunde, gizarte eta ekonomiari buruzkoak, eta herri-zuzenbidearen erreformari buruzkoak. Laburbilduz, lapurtarrek haien konstituzio partikularra edo autonomia mantentzea eskatzen dute.

Zati honetan, Justizia Administrazioaren gaiari heltzen zaio; Justizia Administrazioaren funtzionamendua argitu eta sinplifikatu nahi zen, Ustaritzeko auzitegiari arlo zibil eta penaleko eskumen osoa itzulita (52); apelazioetarako Bordeleko Parlamentua proposatzen zen (49 edo 52), Daxeko eta Baionako esku-hartzeak kenduta.

Horrez gain, Justizia Administrazioaren funtzionamendua sinplifikatzeko zenbait neurri proposatzen dira, esaterako garrantzi txikiko kasu zibiletan (50) eta penaletan (51) apelazioak kentzea, garrantzi txikiko kasuetan zigor-prozedurak sinplifikatzea (51), sinplifikatzeko beste zenbait neurri (54) eta alfer edo nagien aurkako neurriak eragingarritasunez aplikatzeko eskaera (55).

Testuan, zergen gaia eta Lapurdiren egoera mantentzea ere aipatzen dira (56). Oso interesgarria da jarraian euskarari lotuta agertzen den aldarrikapena (57), erregeak Lapurdin duen ordezkariari aipamen egiten diona. Aurrerago berriro helduko diogu gai horri.

Ondoren, Lapurdiko ekonomia eta beste gai batzuk suspertzeko neurri zehatzak agertzen dira testuan. Era berean, feudalisismoaren azken aztarnak ezabatzeko eskatzen da (75).

f) Bukaera: amaierak 76-77. lerroaldeak hartzen ditu. Horren ondoren, sinatzaileen izenak agertzen dira.

3. EUSKARARI BURUZKO AIPAMENAK 1798ko LAPURTARREN KAIERAN ETA ANTZEKO TESTUETAN

Lapurdiren nortasuna behin eta berriro aldarrikatzeaz gain, 57. lerrokadan euskararen aipamen interesgarria dago. Errege-agintaritzaren Lapurdiko ordezkaria euskalduna izatea eskatzen da (*Intendenteak edukitzen badira bere enpleguetan, Heren-estatuko Euskaldun-Frantsesek galdeginen dute eman diezaieten Subdelegatutzat Euskaldun bat, Lapurdin dagoena, euskara aditzen duena, bere interes propioek Lapurtarrentzat behar duen amodioa flakatuko ez dioten bat*).

Horrez gain, Lapurdiko beste koaderno batzuetan ere euskararen aipamenak agertzen dira. Jarraian jasoko ditugu aipamenok.

Kleroaren koadernoak Ustaritzen egindako batzarrean onetsi zen 1789ko apirilaren 23an. Apaizgoaren koadernoak, sarrerako artikulua batzuen ostean, hiru atal ditu: elizari buruz (*Sur la discipline ecclésiastique*), Frantziari buruz (*Sur le gouvernement général du royaume*) eta Lapurdira buruz (*Sur le régime particulier de notre province*).

Lehenengo atala elizaren antolaketari buruzkoa da, eta bertan euskarari lotutako lehenengo aipamena aurki dezakegu; 7. artikuluan, Baionako gotzainak euskaldunak izatea eskatzen da: «*Que les évêques de Bayonne, à cause de l'idiome basque du diocèse, qui n'a aucun rapport avec les autres langues, soient choisis parmi les naturels.*»

Bigarren aipamena aurrerago dago, 22. artikuluan, Larresoroko ikastetxeari buruz hitz egiten denean. Ikastetxe hori mantendu dezatela eskatzen da, euskaldunek apaiz euskaldunak behar dituztelako: «*Que le collège appelé de Larressore en Labourt, soit maintenu pour les humanités et la philosophie, et qu'il y soit établi des bourses, par la réunion de quelques bénéfices, en faveur des étudiants qui sont dépourvus des moyens nécessaires pour leur éducation ecclésiastique; les Basques, à cause de leur idiome, ne pouvant avoir des ministres de la religion que parmi les naturels du pays.*»

Kleroaren koadernoaren hirugarren atalean, Lapurdira buruzko gaiak biltzen dituen horretan, euskarari buruzko aipamen bat

dago, nazio adigaiaren osagaiak jasotzen dituen adierazpen moduan hartu izan dena. Honela dio 53. artikuluko testuak: «*Notre situation topographique, notre caractère particulier, nos usages, les dispositions de notre coutume, notre idiome, nos allures, tout, en un mot, exige que nous nous gouvernions nous-mêmes, et que nous nous fassions une administration particulière.*»

Amaitzeko, 1789ko apirilaren 23an Ustaritzen sinatu zen Nobleziaren koadernoan, euskararen inguruko aipamen bakarra dago, Lapurdi auzoko beste probintziekin ez lotzeko eskatzen denean.

Aldarrikapen hori kleroaren koadernoetan (X. art.) eta hirugarren estatuaren adierazpenetan ere agertzen da. Lapurdik zuen autonomiari eutsi nahi zitzaion; hala ere, geroago, egoera eutsiezina zenean, Lapurdi departamentu bat eratzen ahaleginduko da, botere-egitura berria, Nafarroa Beherearekin eta Zuberoarekin batera, hain zuzen ere, oinarri moduan hizkuntza hartuta.

Honela dio Nobleziaren koadernoaren 52. artikulua: «*La position de ce pays, l'ingratitude du sol qui produit à peine le grain nécessaire pour la consommation de quatre mois de l'année, le caractère des habitants, leur langue inintelligible pour tous ceux qui ne sont pas nés Basques, tout fait désirer à cette nation fidèle et soumise, de n'être réunie à aucune des provinces voisines, qui, toutes plus riches qu'elles, auraient de la peine à croire à sa pauvreté.*»

4. TESTUA EGUNERATZEKO ORDUAN ERABILI DIREN IRIZPIDEAK

1. Ortografia eguneratu da, hitzak eta aditzak gaur egungo euskara batura ekarriz —joskera, ordea, ez da aldatu—. Toponimia ere Euskaltzaindiko irizpideen arabera moldatu da. Horretarako, irizpide hauek erabili dira:

a) Hitzak aztertzeko erreferentzia moduan, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua eta Orotariko Euskal Hiztegia erabili dira. Modu horretan, Hiztegi Batuari jaramon eginez, hitzak honela eguneratu dira:

botu = boto; burfudia = furfuria; examinatu = etsaminatu; ganbara = ganbera; general = jeneral; hainitz = anitz; hauzi = auzi; instant = istant; krima = krimen; muguerri = mugarri; orai = orain; presoner = preso; seguratu = segurtatu; sekulan = sekula; soberano = subirano; ungi = ongi

b) Bestalde, Hiztegi Batuaren arabera hitz bat Iparraldekoa (*Ip.* marka) edo iparraldeko euskalki batekoa bada (esaterako, *Zub.* marka), testuan ez da aldatu:

bankarrot, beldurkunde, erreberitu, eskatima, gerla, guti, igan, jujamendu, jujatu, juje, kario, kostuma, libertate, manatu, nehoiz, neholere, nehor, oraino, partalier, populu, presentatu, suerte, sujet, tresor

c) Hiztegi Batuan h. (*hobe*) markarekin agertzen diren hitzei dagokienez, bi modutara jokatu da. Batetik, hobetsitako forma jatorrizkoaren antzekoa denean, aldatu egin da:

apez = apaiz; arno = ardo; bertze = beste; guzi = guzti; hirur = hiru; inprimeria = inprimatze; izpiritu = espiritu; kaltekor = kaltegarri; libro = libre; moro = mairu; sustengatu = sostengatu

Bestetik, hobetsitako forma jatorrizkotik asko urruntzen denean, ez da aldaketarik egin. Hona hemen adibideak:

diferentzia (h. desberdintasun), guardia (h. zaintza/zaintzaille), inportant (h. garrantzitsu), komertzio (h. merkataritza), obligatu (h. behartu)

d) Hiztegi Batuan agertzen ez diren hitzetan, kasuan kasuko egokitzapenak egin dira, besteak beste: -ione = -io; administrazio-ne = administrazio; atenzione = atenzio; deliberazione = deliberazio; deputazione = diputazio; exekuzione = exekuzio; informazione = informazio; instruzione = instrukzio; costituzione = konstituzio; nazione = nazio; proposizione = proposizio; punizione = punizio..

2. Puntuazioari erreparatuz gero, eguneratu egin da, gaur egungo erabilera kontuan hartuta, betiere, testuaren argitasunaren

mesedetan. Puntuazio-markaren bat egon ez bada, gehitu egin da; sobran dagoela pentsatuz gero, aldiz, kendu egin da.

3. Letra larriak jasotzerakoan, jatorrizko testua dagoen-dagonean errespetatu da. Nolanahi den ere, koherentzia dela-eta aldaketaren bat egin behar izan da, esaterako hitz bat behin eta berriro letra larriz agertu arren, behin edo behin letra xehez agertu denean. Bestalde, testuan gidoiak ere agertzen dira, eta horiek ez dira ukitu, dauden-daudenean utzi dira.

4. Testuan lapurteraren berezitasun gramatikalak agertzen dira eta, testua eguneratzean, horiek mantentzea izan da joera. Hori dela eta, hegoaldeko irakurleak egiturek aintzat hartu beharko ditu, adibidez:

haren laguntzerat = hari laguntzera; Estatu-jeneralen biltzerat = Estatu Jeneralak biltzera; argitarat emateko = argitara emateko; liburu suerte guztien egitea = liburu suerte guztiak egitea; abusuen gibelatzeko = abusuak gibelatzeko

5. Amaitzeko, testuan oin-oharrak gehitu dira. Horien xedea testua errazago ulertzea da. Gehitutako azalpen asko filologikoak dira eta, horietan, testuko hitzen sinonimoak eman dira. Beste azalpen batzuk historikoak dira, eta horien bidez, testua orduko testuinguruan kokatu nahi izan da.

5. TESTU EGUNERATUA

Lapurtar Euskaldun Frantsesek Erresumako Estatu-jeneraletarat igortzen dituzten Diputatuei ematen dieten botoen⁵ eta instrukzioen Kaiera⁶

[1] Ezagutzarik bizienarekin eta errespeturik samurrenarekin ikusten dute Lapurtar Euskaldun Frantsesek justiziazko eta ontasunezko motiborik handienek ekarri dutela haien Subiranoa edo Erregea bere Erresumako Estatu-jeneralen biltzerat; eta sujet⁷ leial

⁵ nahi

⁶ koaderno

⁷ meneko

diren bezala, entseatuko⁸ dira, ahal bezainbat, objet⁹ handi horretan haren laguntzerat, Estatu-jeneraletan adierazteaz bere Diputatuei kargatu dituzten botoez.

[2] Boterea baino bertutea maiteago duen Errege bat, lurraren gainean diren Naziorik argituenetarik batean bereziko diren hamabi ehun Diputatu, Ministro bat¹⁰ —zeinak ez baitu beste xederik espiritu handi, on eta justu batek Erresumaren zorionarentzat ematen dizkion sentimenduak baizik—; horra nor izanen diren kargatuak Frantziari bizi berri, puxant¹¹ eta justuago baten emateaz. Zenbat arrazoi esperantza izateko utziko diegula gure ondokoei gure antzinagokoenganik errezibitu dugun baino zorte dohatsuagoa!

[3] Euskaldun Frantsesen botoak izanen dira lehenik Nazioaren Konstituzioaren, Erresumako Tresoren¹² eta Justiziaren partitzearen gainean.

[4] Objet handi eta inportant horietaz mintzatu ondoan¹³ baizik ez dituzte nahi adierazi Lapurdiren onetan eginen dituzten bere galde¹⁴ partikularrak: Lapurdik, Erresumako frontera edo azken mugarri bezala merezi duen arren¹⁵, Gobernamenduak beha diezaion begi atzarri eta samur batzuez.

[5] ***Nazioari eman behar zaion Konstituzioa***

[6] Zein-nahi izenez dei dezan Nazio batek bere gobernamendua, Nazio hura ezin dei daiteke librea, non ez dituen berak egiten bere legeak, non haren membro¹⁶ bakoitzaren ontasunak ez diren ekartzen berak egin dituen lege haien guardiaren azpian, non partikular bakoitzak ez duen libertate osoa argitarat emateko orde-

⁸ saiatu

⁹ gai

¹⁰ Hau da, Jacques Necker (1732-1804).

¹¹ ahaltzu

¹² ogasun

¹³ ondoren

¹⁴ eskaera

¹⁵ merezi duelako

¹⁶ kide

na publikoaren mantenuarentzat eta haren perfektzionatzeko heldu zaizkion pentsamendu guztiak.

[7] Erresumako Estatu-jeneralak behar dira, beraz, maiz erreberritu; haien berriz biltzea behar da ordenatu, moienik¹⁷ seguruenak hartzen direlarik, haien biltzea manatua izanen den denboretan, ez dezan nehoiz gibelamendurik¹⁸ izan.

[8] Asanblada haietan behar dira egin, kanbiatzeetarat sujet¹⁹ izanen ez diren bezala, Erresumako lege jeneralak. Lege haiek behar dute eginak izan, nahiz Asanbladako Diputatuek, nahiz Erregek berak Asanblada hartan eginen dituzten proposizioen gainean; eta han horrela establituak²⁰ izan diren ondoan, behar dira istant beretik publikatu eta exekutatu.

[9] Baina nola Estatu-jeneral batzuetarik besteetarako bizkitartean baitaiteke zenbait lege berri eta presako batzuen beharra —nahiz Erresuma guztikotz, nahiz zenbait probintzia bakoitzetakotz—, kasu horretan Subiranoari soilki izanen zaio bere Kontseiluan lege bizkitarteko horien egitea. Lege suerte²¹ horiek igorriko ditu bere Parlamentuetarat; Parlamentuei lege haietan iduritzen bazaie zerbait ongi ez denik, zilegi izanen zaie behin eta bietan Erregeri bere errepresentazioen egitea; baina errepresentazio horiek egin ondoan, Subiranoak nahi badu oraino²² —eta deklaritzen badiote bere Parlamentuei manuzko gutunez— lege haiek izan daitezten pausatua, orduan Parlamentuek publikaraziko dituzte izan daitezentzat exekutatuak soilki lehenbiziko Estatu-jeneraletarainokoan, non lege haien exekuzioan ez den aurkitzen zenbait Soberaniazko bidegabe, zein kasutan Parlamentuek eginen baitituzte oraino errepresentazio berriak.

[10] Legeak egin ondoan, lege haiek eta lege haien Ministroak isilik daudeno²³, Erregeren sujetei nehork ez dio beldurkunderik eman

¹⁷ neurri

¹⁸ atzerapen

¹⁹ lotuta

²⁰ ezarri

²¹ mota

²² oraindik

²³ dauden bitartean

behar, ez bere ontasunen gozamenean, ez bere libertate osoaren gainean; legeak eginez gero, Erregeren sujet bakoitzak ez du behar izan nehortaz bilatua Erresumako legeek manatzen duten kasuetan eta maneretan baizen; letra de cachet²⁴ deitzen diren preso emateko manuez ez da zilegi behar izan gehiago zerbitzatzea: hirietako eta probintzietako Comendat²⁵ eta Gobernadoreek ez dute hemendik harat botererik behar izan, soldaduez eta soldaduzko zerbitzua interesatzen duten egitekoen kanpoan, bere ordena mugarri gabekoez Erregeren sujetik batere preso emanarazteko; eta emanarazten badituzte, nahiz haiek, nahiz presondegietako eta gazteluetako preso suerte horiek errezibituko dituzten guardianoak behar dute izan xerkatuak eta punituak²⁶, libertate maite eta preziatua hausten eta porrokatzen²⁷ duen krimena²⁸ egin dutelakotz.

[11] Frantses bakoitzak behar du izan libertate osoa inprimatzearen ariaz²⁹ argitarat emateko populuaren zorionarentzat edo oraino haren pausuko³⁰ denboretan errekrearazteko asmatuko dituen pentsamendu guztiak. Hartarakotz desegin behar dira liburu bisitatzaileen³¹ enpleguak; eta liburu egileei zilegi behar zaie izan liburu suerte guztien egitea, kondizioarekin soilki liburu egilea eta autorea bera izendatuko direla bere obretan. Iduri du prekauzio hori askia dela abusuen gibelatzeko.

[12] Finean, Subiranoaz bestalde, Erresumako botere publikoaren zenbait portzio duten gizon guztiak hertsatuak behar dira izan hemendik harat eginen dituzten abusuez eta injustiziez ihardesterat, nahiz Estatu-jeneraletan, nahiz Justiziako Tribunaletan; hortarakotz, Justiziak ez du gehiago tratatua behar izan, ez ebokazioak deitzen diren faltadunak haren eskuetarik kentzen dituzten moienez³², ez eta ere komisio partikularrak erraten dieten

²⁴ Horiek erregearen agindu mota batzuk dira; *Trésor de la langue française* lanaren arabera: «Sous l'Ancien Régime, lettre du roi contresignée par un secrétaire d'État, fermée du cachet royal et qui contenait un ordre d'emprisonnement ou d'exil».

²⁵ komandante

²⁶ zigortu

²⁷ suntsitu

²⁸ lege-hauste

²⁹ bidez

³⁰ aisialdi

³¹ Hau da, liburu-zentsoreak edo -kontrolatzaileak.

³² bitarteko

Tribunalez, zeinak maizenik ez baitira zerbitzatzen kriminalen salbatzeko edo, maluruskiago oraino, inozenteen galtzeko baizen.

[13] Erresumari bihurtzekotz edo ematekotz Erregeren sujet bakoitzari bere libertatea eta bere ontasunak begiratu behar dizkion Konstituzio ezin aski prezatu³³ hori, eta horren sekulako³⁴ segurtatzeko, Estatu-jeneraletako Asanbladak behar dira izan sumetituak Asanblada guztiak gobernatu behar dituen dretxo³⁵ komuneko printzipioari; eta, hortarakotz, Estatu-jeneraletan opinioak behar dira hartu buruka eta ez ordenaka³⁶.

[14] Frantziako Konstituzioak, behin hola establituz gero gobernamendu legitimo guztien fundamentu horien gainean, egiten ditu bere baitarik, administrazioko xehetasunean, Nazioaren interes jeneralak, justiziaren eta humanitatearen dretxo ezin sekula ahantziek galdeginen³⁷ dizkieten erreforma guztiak.

[15] Gure Kolonietako habitantei zilegi izanen zaie bere etorkia ateratzen duten Erresumako Estatu-jeneraletarat Diputatuen igortzea.

[16] Gure Kolonietan ezeztatua izanen da Mairuen esklabotasuna.

[17] Hautsiak izanen dira itsasoko eta lehorreko armadetan Aitoren-semeei³⁸ soilki lehenbiziko herronkak³⁹ ematen dizkieten legeak.

[18] Annatak deitzen dira Apezpikuek eta Abadeek Aita-sainduari pagatzen dizkieten dretxoak⁴⁰. Izanen dira dretxo haiek ken-

³³ estimatu

³⁴ behin betiko

³⁵ Jatorrizkoan *dretchu*.

³⁶ Estatu Jeneralak biltzeko deia egin zenean, eztabaida hau sortu zen: nola bozkatu behar zen? Hiru estamentuek edo gizarteko ordenek boto bana izan behar zuten ala diputatu bakoitzak? Lehenengo irizpideari jarraituta, jakina, lehenengo bi estamentuetako partaideak, pribilegiatuak, nagusituko ziren.

³⁷ eskatu

³⁸ noble

³⁹ errenkada

⁴⁰ zerga

duak, zeren Erresumatik kanporat joanarazten baitituzte Erresumarentzat premiazko den diru portzio handi bat.

[19] Ezkontzetako dispentsak, Erretoreen⁴¹ eta beste benefizio edo prebendaren batek beste baten bururat iraganarazteko eta holako titulu guztiak izanen dira emanak Apezpikuek, bakoitzak bere diozesietan⁴²; eta manera hortaz, gure diruak ez ditu gehiago erosiko Erroman dohainik eman behar diren gauzak.

[20] Erresumako lehenbiziko maxima printzipal horiek eta administrazioko erreforma horiek Estatu-jeneraletako Diputatuez eta Subiranoaz ezagutuak eta finkatuak izanen diren ondoan, gero Nazioa okupatuko den objet publikoa izanen da, dudarik gabe, Erresuman berean mantendu behar duen ordenaren eta kanpoan errespetarazi behar duen boterearen indarraren entretenimenduak⁴³ ekarriko dituen gastu zuzenak.

[21] **Inposak**

[22] Hain desordena handia ote da, bada, Erresumako tresoretan, non Nazioa bankarrot baten ahalkeria eta itsusitasunetik gibelatzekotz, gobernamentuko gastu baitezpadakoei ohore egiteko, jada emanak diren inposizioen nonbre⁴⁴ izugarriari behar baitzaizkio oraino beste zenbait eratziki?

[23] Ezin libra⁴⁵ ote liteke bi herstura horietarik Nazioa, jada pausatua diren inposen orde ez ematen litekeelarik beste zenbait, zeinen biltzea errezagoa eta gutiago gastosa bailiteke, partitzen litekeelarik inpos berri haiek igualki eta berezitasunik gabe Erregeren sujet guztien artean, haien erabiltzeko moduak simpleago bihurturik? Ez ote liteke libra bi herstura horietarik, haien biltzaile lehenbizikoen irabaziak gutiturik, biltzaile haien nonbrea bera eta haien azpikoena xumeturik edo oraino biltzaile horiek guztiak kendurik, orain arteraino baitezpadakoak edukiak izan diren

⁴¹ parroko

⁴² elizbarruti

⁴³ mantentze

⁴⁴ kopuru

⁴⁵ askatu

Erresumako gastuei, tronuaren ohorearekin, Erresumak barnean eta kanpoan behar duen boterea eta populuaren zorionarekin, zeina baita Subiranorik maiteenaren boto printzipala, antola litezkeen gutimendu⁴⁶ guztiak eginez?

[24] Gauza horien guztien ganean Lapurdiko Heren-estatuko Diputatuek aditu beharko dituzte Erregek bere tresoreko Ministroaz⁴⁷ [nazioari] emanaraziko dizkion argitasunak.

[25] Ministro horren bertute eta ezagutza bereziek segurtzen dute aitzinetik Lapurdiko Heren-estatua, konfiantzarik handienarekin, Nazioa libra⁴⁸ ahal daitekeela Ministro honek emanen dizkion irakaspenei. Instrukzio haiek presentatuko diotela Erresumako tresoren estatu⁴⁹ leial bat, ez diotela inpos berririk galdengin, baldin neholere inpos berririk gabe pasa badaiteke; eta oraino baldin aurkitu bada zenbait moien jada establituak diren karga handien arintzeko, ohore eta gloria handitzat atxikiko dela haien proposatzea eta Nazioari ematea. Baina atentziorik handienarekin etsaminaturikako estatuek ezin dudatu gisa agertzen badute Erresumako engaiamenduei⁵⁰ eta haren baitezpadako beharrei ohore egiteko behar direla zenbait inpos berri eman, orduan, dudarik gabe, Erresumako probintzietako Heren-estatuko Diputatu guztiek laudatuko dute jada ezagutzerat eman dituzten sentimendu ohoragarrien arabera; laudatuko dute, diogu, zenbait inpos berriren establimendua, eta, orduan, Lapurdiko Heren-estatuak sobera pena luke Estatu-jeneraletan bere Diputatuez boto kontrariorik egitea. Kasu hortan, beraz, bat eginen dira Lapurdiko Heren-estatuko Diputatuak Nazioaren boto jeneralarekin; baina ez dute orduan oraino ahalkerik⁵¹ behar izan herri pobre hauen faboretan galdetzeko gutimendu eta urrikalmendu zenbait; inpos haie-tan eroriko zaien partean erre-presentatuko dute Lapurdi herri mendiz bete bat dela, Lapurdiko lurrak idorrak, agorrek eta den-

⁴⁶ murrizketa

⁴⁷ ministroaren bidez (hau da, Jacques Necker).

⁴⁸ fidatu

⁴⁹ balantze

⁵⁰ konpromiso

⁵¹ lotsa

bora luzez trabailurik⁵² bortitzenei eta karioenei⁵³ uko egiten diotena direla; arrazoi horien ariaz, betidanik lurrik gehienak larre daudela; bestalde, Lapurdik, frontera den bezala, entretenitzen⁵⁴ duela beti prest den mila gizonezko erregimendu bat, zeinaren Koronel edo buruzagi baita bere Justiziako ezpatazko Baile handia, eta zeina gerla denboretan eta lehenbiziko ordenan partitzen baita Baionarat edo Gobernamentuak nezesario aurkitzen duen Lapurdiko beste zenbait lekutarat, haietan soldaduen zerbitzu bera egiterat; kontsiderazio horien guztien ariaz, Lapurdik pagatzen zituen inposizioen parte egon dela azken mendearen erditaraino subentzia deitzen den berrehun eta berrogeita hamairu liberako⁵⁵ abonamendu edo puntxamendu baten oinean; geroztik, haren abonamenduak igan direla lehenengoarekin batean hirurogei mila libera baino gorago, eta orain, den mendrena⁵⁶ sentiaraz litekeen inpos horren emendazioak⁵⁷ hertsia litzakeela Lapurtarrak Erresumaren uzterat eta, aria hortaz, egin lezaketela Espainiaren auzo diren herri hauen zorigaitz osoa.

[26] Inposen deliberazioa hasten den denboran galdeginen dute, dudarik gabe, Nazioko Diputatuek konfirmatua eta errebertua izan dadin ontasun guztiak begiratu behar dituen eta Erregek berak azken denbora hauetan ezagutu eta aitortu duen printzipioa, zeina baita hemendik harat ez dela Erresuman inposik establituko Nazio guztiaren laudamenarekin⁵⁸ baizen.

[27] Deliberazio hori hartzen duten denbora berean oraino, galdeginen dute Nazioaren Diputatuek Erregek bere buruari eman dion eta tronuari hainbat ohore egiten dion lege hura, zeinetaz Subiranoak agindu baitu urte guztiez, urte bakoitzetako Erresumako tresoreko kontu jenerala berifikatua izanen dela eta publikatua inpresioaren bidez, izan dadin oraino gerokotz konstituziozko lege printzipalenetarik bat. Lapurdiko Heren-estatuko

⁵² lan

⁵³ neketsu

⁵⁴ hornitu

⁵⁵ Frantziako txanpon zaharra.

⁵⁶ hau da, txikia izanik ere...

⁵⁷ handitze

⁵⁸ baimen

Diputatuak bat eginen dira galde interesante horietan Erresumako beste Diputatuekin.

[28] **Justiziaren Administrazioa**

[29] Lapurdiren posizioak ez die anitz permititzen Lapurtarrei jakitea ea, ez bera dependintzen den Parlamentuan, baina beste Erresumako Parlamentuen artean ote den zenbait zeinen hedadura soberatuek⁵⁹ galde bailezakete izan daitezen partituak, apeletako auzien jujamendua errazteko, lasterragoa eta gutiago kostako dena izateko.

[30] Bizkitartean, apeletako Justizia subiranoetan haien urruntasunetik populuari heldu zaizkion bidegabeak ez ote litezke guti bederen, haien partitzeko moien arriskutsu⁶⁰ eta bortitzegi hori hartu gabe? Ezen neurri horrek eman lizkioke populuari Juje berri batzuk, zeinetan ez bailukete eta zeinek ez bailezakete merezi denbora luzez bere lehenagoko Jujeetan zuten konfiantza.

[31] Hemendik harat, zibileko, erran nahi da, kriminalari behatzen ez zaizkion auzi guztiak izan daitezen eramanak lehenik Bailego eta Seneskalietarat; haien jujamenduen apelak, hortakotz aski inportantak ezagutuak izanen diren egitekoetan, izan daitezen zuzenki deituak Justizia⁶¹ horiek dependitzen diren Parlamentuetarat.

[32] Kolpe hortaz, beraz, hautsiak izanen dira Aitoren-semeen eta Erregeren beste sujeten artean Crémieu deitzen den hirian emanikako legeak ezarri dituen eta Justizia bera beharbada desohoratzen duten berezitasunak.

[33] Baileei eta Seneskalei izenik kanbiarazi gabe, diruaz eta diru suma suerte batez baizen kuestio izanen ez den auzietan, Justizia horietako jujamenduak izan daitezen subiranoak, erran nahi da, apeletarat sujet izanen ez direnak, eta suma suerte aipatu dugun hura izan dadin fixatua Tribunal haietarik bakoitzetan, haien eremuen eta aberastasunen arabera.

⁵⁹ gehiegizko

⁶⁰ Jatorrizkoan *danyeros*.

⁶¹ auzitegi

[34] Ez gara ausartzen ontasunen gainean izanen diren auzientzat gauza beraren proposatzerat, zeren auzi horietako objektak sujet baitira Justiziaren martxa gaitzagoa errendatzen⁶² duten estimazioetarat, eta, bestalde oraino, zeren ontasunek baitute bere jabeen aldetik amodiozko prezio bat, zeina maiz auziak berak handiagoa bilakatzen baitu, eta zeina kasik beti itzur bailekioke estimatzaileen begiei.

[35] Hamabi libera edo oraino suma horren doblea iragaten ez duten diruzko auziei izan daitezen Baileak eta Seneskalak zarratuak; eta izan daitezen auzi horiek igorriak herri bakoitzetako kargudunei, zeinek jukatuko baitituzte apelik gabe, poliziako egitekoen maneran, auzitako formarik gabe.

[36] Baina denbora berean bihur dizkietela Baileei eta Seneskalei bortxaz eraman dizkieten erriberen eta oihanen ariaz formatzen diren auziak, desegiten direlarik eaux eta foretetako⁶³ deitzen diren Tribunalak, zeinen karga inutilak denbora luzeegiz lehertzen baitu Nazioa.

[37] Bihur dizkietela oraino Intendentzietarat eramaten diren herrien beren auzitako egitekoak.

[38] Auzi kriminaletan ere, Baileak eta Seneskalak soilki izan daitezen kargatuak lehenbiziko jujamenduez, eta lehenbiziko informazioak egin ondoan, Juje partikular guztiak izan daitezen obligatuak Baileei eta Seneskalei informazio haien igortzerat, errezibitu dituzten plaintekin⁶⁴. Sobera denbora da ezagutua izan dela Justizia xume horietan, maizegi, akusatuak direnen inozentziak galdetzen duela ez daitezen haietan akaba auzi horiek, eta kriminalek sobera ihesleku atzematzen dutela haietan ez gaztigatuak izateko.

[39] Ihardukietarik⁶⁵, eskatimetarik⁶⁶, eta ardoak edo kolerak erranarazten dituen ahapaldi gaiztoetarik, eta kolpe arriskutsu ez

⁶² martxa zaildu

⁶³ Hau da, aurretik lerrokada horretan bertan azaldu den moduan: ur eta oihan.

⁶⁴ kexu

⁶⁵ eztabaida

⁶⁶ liskar

direnetarik sortzen diren kriminal xumeko deitzen diren auzietan, Baileak eta Seneskalak izan daitezten autorizatuak, erregelamendu estraordinario deitzen den forma luzea eta gastosa enplegatu gabe haien jujatzerat, ordenatuko dituen domaia eta interesen jujamenduak ehun libera pasatzen ez dituenen; eta suma hori pasatuko ez duten eta erreparazio zibilak baizen manatuko ez duten jujamenduak izan daitezten Tribunal horietan subiranoak.

[40] Egiteko kriminal ez direnetan, lehenbiziko Tribunaletan auzientzat segitu behar den ordenan eginen diren kanbiantza xume horiez, Baileei eta Seneskalei emanen zaizkien emendazio apur horiez, legeek —zilegi zaien bezainbatean bederen— gibelatuko dituzte gizonak auzitako gustu zorigaitzekotik; auzirik gehienak akabatuko dira hasiko diren leku berean. Parlamentuak eta beste Justizia subiranoak ez dira gehiago okupatuak izanen apeletako dretxo estraordinarioa merezi duten egiteko handien jujatzen baizik, eta orduan oraino, Justizia subiranoen urruntasuna izanen da arrazoi bat apelik ez arinki egiteko.

[41] Nazio guztiak aspaldidanik galdetzen dituen erreformak —lege kriminal eta kriminal ez direnetan egiten direnean— hobeki konplituak izanen dira gobernamentu populuaren ona baizik nahi ez duenak egiten dituen botoak, justiziaren administrazioaren gainean.

[42] Baina obra handi horren egiteko, ez da sobera izanen, dudarik gabe, bigarren Estatu-jeneralak lehenbiziko hauetarik separatuko dituen denbora guztia; eta bizkitartean, ez ote liteke posible oraino Estatu-jeneral hauetan zenbait kanbiantza egitea, gure lege kriminalekoetan ez daitezten akusatu inozenteak izan kalumniaren eta sobera maiz engainakor diren irudipenen biktima dohakabeak?

[43] Ez ote liteke posible kriminaleko auzietarik kentzea akusatuen —baina akusatu aberatsak ez direnen— alderat baizen begiratzen ez den isiltasun, ilunbetasun eta gordetze sobera arriskutsu hura?

[44] Ez ote liteke posible auzi kriminalekoen jujatzeko ordenetarik apartatzea, arrazoi naturalaren kontra doan perento-

rioak deitzen diren, erran nahi da, batere dudarik gabekoak, eta beste justifikaziozko artikuluen artean aurkitzen den distintzioa? Ez ote liteke posible ordenatzea bi froga suerte horiek izan daitezkeela galdetuak eta eginak akusatuen aldetik, auzia pertsegitzen den zein-nahi denboretan? Ez ote liteke posible orain akusatuei erraztea bere inozentziaren frogatzeko presentatu behar dituzten lekukoak adierazteko dituzten trabak?

[45] Ez ote liteke posible suntsitzea Apaizen eta Aitoren-emeen faboretan justizia bera insultatzen duen pribilegio harrigarri hura, zeinak Apaizei eta Aitoren-seei ematen baitiote hautu, haienganik soilki dependitzen dena, Parlamentuko ganbera handiaz edo ganbera hartaz Turnellako⁶⁷ deitzen den Ganberarekin juntaturik bere auzi kriminalen jujarazteko?

[46] Ez ote liteke posible haustea Aitoren-seei eta gainerrako beste Erregeren sujetei krimen batzuen kondenamenduak ematen dizkien punizioen diferentzia?

[47] Finean, ez ote liteke posible egiteko kriminal eta kriminal ez direnetan Jujeen apartatzeko titulutik kentzea zenbait artikulua, zeinek Jujeen dignitatea anitz sobera ohoratzen dutelarik, haien pasioei, gizon flako⁶⁸ bezala, abantaila handiegiak ematen baitizkie?

[48] **Lapurdiko Heren-estatuaren galde berezi eta partikularrak**

[49] 1.a Bere herrietan Justiziaren partitzearen gainean Heren-estatuak galdeginen du —Lapurdi Bordeleko Parlamentuaren subiranotasunaren azpian beti uzten delarik— haren Bailegoko apelak izan daitezzen Parlamentu hartan jujatuak, harat igorriak izanen diren herronkan, nehoren faboretan herronka hura hautsi gabe; eta ordena horren segurtatzeko, Gobernamentuak har ditzan moienik seguruenak, eta ahal bada, kanbia ez daitezkeenak.

⁶⁷ La Tournelle eta Ganbera Handia (la Grand-Chambre) orduko organo judizialak dira.

⁶⁸ ahul

[50] Kriminalak ez diren, diruzko hirurehun libera baino gutxiagotarat iganen ez diren auziak izan daitezen bere Bailegoan arras jujatuak, eta jujamendu suerte horientzat ez dadin izan apelik.

[51] Kriminal-xumeko deitzen diren egitekoetan haren Baileak ordena ditzan, Erregelamendu estraordinariorik gabe, ehun liberetainoko domaia⁶⁹ eta interesak, eta jujamendu suerte horiek, erreparazio zibilik baizen bestalde manatzen ez dutenean, izan daitezen subiranoak eta apeletarat sujet izanen ez direnak.

[52] Beste kriminaleko eta kriminal ez direneko Bailegoko jujamendu suerte guztiak izan daitezen zuzenki Bordeleko Parlamenturat eramanak; bere lehenagoko justizia osoa Lapurdiko Bailegoari bihurtzen zaiolarik, eman diezaioten kasu roialak deritzoten altxatu zaion partea, eta itzul diezaizkioten lehenago haren justiziaren azpitik kendurik Akamarreko Seneskaliari eratziki dizkioten Bardozeko, Gixuneko eta Ahurtiko hiru herriak.

[53] Lapurdiko Euskaldun-Frantsesen Biltzar-jenerala ezin erori da, puntu horren ganean, aipatu diren hiru herri horietako Diputatuek egin dizkioten errepresentazio kontrarioetarat; zeren errepresentazio haiek egin baitituzte soilki Gramonten etxearentzat duten amodioaren ariaz, eta zeren Lapurdi guztia haiekin partalier⁷⁰ den arren etxe errespetagarri horrentzat duten amodioan, sentimendu horretan berean aurkitzen baitute motibo bat gehiago esperantza izateko Gramontarren zuzentasun generosak berak sostengatuko duela Euskaldun-Frantsesentzat hain interesantea den galde hori.

[54] Hamabi liberaz gorago iganen ez diren auziak izan daitezen debekatuak Lapurdin, eta objet xume horiek izan daitezen kargudunez poliziako maneran jujatuak.

[55] Surik eta egoitzarik gabeko, kurri⁷¹ eta eske dabiltzan jendeen kontra eginak izan diren legeak izan daitezen erreberrituak

⁶⁹ kalte

⁷⁰ parte-hartzaile

⁷¹ hara eta hona ibili

eta publikatuak, eta oraino ordenatua izan dadin Justizietako Tribunalari zorrozki haien exekututzea.

[56] 2.a Inposen partitzearen eta bere herrietako Administrazioaren moldeen gainean, Lapurdiko Heren-estatuak galdeginen du izan daitezen mantenduak, ekainaren⁷² hiruan 1660an, otsailaren hamarrean 1688an, uztailaren hamazazpian 1769an, eta maiatzaren lehenean 1772an, Erregeren Kontseiluan eman izan diren arrestek⁷³ begiratu dioten Konstituzio partikularra. Ongi aurkitzen dira tratamendu hortaz, eta beldur lukete kanbiantza kaltegarri luketen.

[57] Nazioaren artean adierazten diren botoak Intendentzien bortxatzeko beteak balira, Heren-estatuko Euskaldun-Frantsesek mantentua izan dadin galdetzen duten bere Konstituzio partikularra abantailosago baizik ez liteke izan Lapurdirentzat. Baina Intendenteak edukitzen badira bere enpleguetan, Heren-estatuko Euskaldun-Frantsesek galdeginen dute eman diezaieten Subdelegatutzat Euskaldun bat, Lapurdin dagoena, euskara aditzen duena, bere interes propioek Lapurtarrentzat behar duen amodioa flakatuko ez dioten bat.

[58] Erreforma horiek guztiak Gobernamentuak errezibitu eta manatu ondoan, behar da oraino galdegin zenbait laguntza laborantzaren faboretan. Galde hori hainbatenaz justuagoa izanen da, non Lapurdiko lurren agortasunaren ariaz, ez baitiote Lapurdiko lurrek ematen bere biztanleei premia duten bihiaren herena. Berriro eginikako lege batzuek lur berriak dispensatu⁷⁴ dituzte detxematarik⁷⁵ eta inposetarik denbora suerte batentzat. Gobernamentuaren justiziak eta interesak berak galdetzen du inposetarik eta detxematarik lur berriak dispensatzen dituen legea izan dadin Lapurdirentzat epe luzeago batentzat establitua, eta oraino, lur berriak, epe luzatu behar den hori iragan ondoan ere, ez daitezen izan behartuak hamargarrenaren orde berrogeita hamargarrena baizik pagatzerat.

⁷² Jatorrizkoan *erearo*.

⁷³ erabaki

⁷⁴ askatu

⁷⁵ hamarren; zerga mota bat da.

[59] 3.a Iduritzen delarik Lapurdiko kostumaren⁷⁶ zenbait artikuluren erreformak pitz eta susta lezakeela industria edo antzea⁷⁷ eta emendarazi laborantza, Euskaldun-Frantsesek uste dute bizkitartean erreforma horiek erreflexiorik handienekin egitekoak direla; eta orain objet honen ganean galde dezaketen guztia da, Lapurdin izan dadin formatua Lapurtar prestu eta argitu batzuez diputazio bat, zeinak erreforma horiek egin ondoan igorriko baitituzte herri bakoitzetarat, eta zeinen laudamena galdeginen baitiote Gobernamentuari, baldin herriak kontent badira erreforma haiez, eta ez bestela.

[60] 4.a Lapurtar Euskaldun-Frantsesen Diputatuek deklaratu diote Nazioari zenbat ezin jasanezko traba eta injustizia egun guztiez egiten dioten zaintzaileek bi erriberen artean dauden Lapurtarrei; kargatuak izanen dira memoria partikular batez objet horren ganean, eta aski izanen da, dudarik gabe, Nazioari eta Subiranoari traza⁷⁸ eta injustizia krudel horien xehetasuna irakastea, haien bararazteko⁷⁹.

[61] Adieraziko dute oraino zuzen kontrarik handiena dela larruen, burdina obratuen eta donazioen insinuazioarentzat Lapurdiri pagarazten dizkioten dretxoak, zeinak jadanik Lapurdik pagatzen baititu bere abonamenduen ariaz, eta zeinak molde hortaz bietan pagarazten baitizkiote.

[62] Altxatuko dira bortizki Lapurdiko herriei eta partikularrei bere ontasunentzat berriroki pagarazten dizkieten dretxoen kontra, deklaritzen dutelarik Lapurdi betidanik ezagutua izan dela lur alodial, erran nahi da, lur libre eta dretxorik nehoi zor ez dion batentzat, eta pagamendu hain zuzen kontra eginarazten eta galdetzen dituzten horiek kolpe mortal bat ekartzen diotela haren libertate alodialari.

[63] 5.a Galdeginen dute Lapurdi-kosta-partearentzat eta Nazio guztiaren onetan, zeina interesatua baita Lapurdik hornitzen dizkion Erresuma guztiko marinel hobereenen kontserbatzerat, galde-

⁷⁶ ohitura

⁷⁷ jardunbide

⁷⁸ aztarna

⁷⁹ geldiarazi

ginen diote eman diezaizkioten bakailaoen arrantzari laguntzarik handienak; izan daitezen erregelamendu zuzenak eginak marinelek partitzean hartzen dituzten abantzuen⁸⁰ gainean, eta nahiz burgesak, nahiz marinelak, izan daitezen obligatuak erregelamendu haien segitzerat.

[64] Izan daitezen gratifikazioak ezagutuak armamendu horientzat.

[65] Gure arrantzako bakailaoek kurri dezaten libreki Erresuma guztian, dretxorik batere —hirietakorik ere— pagatu gabe.

[66] Finean, Erresuman ez dadin zilegi izan arrantza arrotzetako arrainik nehortaz ere sartzea.

[67] 6.a Galdeginen dute Gobernamenduak eginaraz dezan zubi berri bat Donibane eta Zibururen artean, zeren orain den zubia erortzeko menean den; itzul diezaizkion Kanboko herriari Kanbon hasia den harrizko zubian jada enplegatu dituen diruak, eta bere gastuz akaba dezan zubi hura. Bestalde, oraino egin ditzan bi harrizko zubi, bat Itsasun, eta bigarrena Ahurtin.

[68] Gastu horiek galdetzen zaizkio Gobernamenduari, zeren ez diren anitz handiak eta zeren baitezpadakoak diren, ez soilki inguruetako Probintzien komertzioarentzat, baina oraino Nazioarentzat tropak pasatzen direnean.

[69] 7.a Donibaneko zenbait etxe jada Itsasoak eraman ditu, eta haren furfurien⁸¹ kontra zurezko estakada⁸² batek soilki gerizatzen du. Gobernamenduaren justiziak eta humanitateak berak galdetzen du estakada haren ordeztu izan dadin egin harresi bortitz bat, herri hori Itsasoak eraman ez dezan amoreagatik.

[70] 8.a Zuzentasunak eta humanitateak galdetzen dute oraino Gobernamenduak egin dezan Biarritzeko portua, eta lehenago handik marinelak itsaso arriskutsu hauetan gauez argitzen zituzten talaietako suak izan daitezen erreberituak.

⁸⁰ aurrerakin

⁸¹ haserre

⁸² ohol-hesi

[71] Inbaliden kordoi bat establitua da Hendaiatik Itsasurainokoan, soldaduen desertzioa gibelatzeko; bere establimenduko objektu⁸³ anitz flakoki baizik ezin bete dezake; bizkitartean, karga bortitz bat da Lapurdirentzat haien entretenimendua.

[72] Heren-estatuak galdetzen du inbalida horien ordeztan izan daitezela Lapurdin ezarriak artxeren hiru brigada, zeinek ongi errepartituak direlarik, Lapurdin beteko baitute hobeki inbalidak kargatuak diren objektu, eta zeinek bestalde Lapurdi begiratuko⁸⁴ baitute manduleretarik⁸⁵, eta debekatuko Kazkarot edo Buhame kurri dabilzananen ohointzak⁸⁶.

[73] 9.a Espainolek badute frontera, Pausuko⁸⁷ beste aldean, bureu⁸⁸ bat, zeinetan pagarazten baitizkiete Espainiatik Frantziarat eta Frantziatik Espainiarat dabilzanan Frantseseri dretxo aski handi batzuek. Orobatasuneko legeak⁸⁹ ez ote luke nahi Lapurtarrei, zeinak gehienik lehertzen baititu karga horrek, Erregek eman diezaien boterea Espainolek bezala bureau bat Pausuan establitzeko, zeinetan pagarazi bailiekete Espainolei Espainolek gure gainean altxatzen dituzten dretxo berak, eta haietarik etorriko den ona izan dadin partitua Lapurdiko herri guztien artean, bere kargen arabera, eta aria hortaz, Lapurdi, guti aberatsa, izan dadin lagundua bere inposen pagamenduan.

[74] 10.a Baionako kalonjeen errebeniorik⁹⁰ gehienak biltzen dira Lapurdin altxatzen dituzten detxematarik; zuzen liteke, beraz, eta Lapurdik galdetzen du izan daitezela Kalonjetasun nonbre bat destinatuak beti Lapurtar Apaizentzat.

[75] 11.a Finean, Lekuindar eta Lehunzarrek Seigneurei⁹¹ zor dizkieten kargarik handien azpian bizi dira. Horiek dira soilki

⁸³ helburu

⁸⁴ zaindu

⁸⁵ gaizkile

⁸⁶ lapurreta

⁸⁷ Behobia

⁸⁸ bulego

⁸⁹ Frantseseko testuak dio: la loi de la réciprocité.

⁹⁰ errenta

⁹¹ jaun

Lapurdi betidanik Nobleak, erran nahi da, libreak eta alodialak, bere baitan pena mingarrienarekin ikusten dituen feudalitatearen edo esklabotasun suerte baten irudi bakarrak. Dretxo horien hastapenak hainbatenaz sospetxagoak iduri dute, zenbatenaz jainkotiar-tasun gehiago izan baitute beti Lapurtarrek, eta fraideek biltzen baitituzte dretxo haiek; beraiek, bizkitartean, pena dute haien biltzea, eta ezagutzarik handienarekin har lezake haien ordezkomentuari eratziki liezaioketen zenbait prebenda xume, zeinak dretxo haiek apur bat goiti-beheiti igualatzen lituzketelarik, eman bailiezaiokete biztanle haien libratzeko atsegina gozoa.

[76] Holakoak dira bere Subiranoari Nazioaren Asanbladan adierazteaz Lapurtarrek bere Diputatuak kargatu dituzten boto jeneral eta partikularrak; horien proposatzeaz Estatu-jeneraletan kargatzen dituztelarik, ematen dizkiete Erregek urtarrilaren 24an egin duen erregelamenduaren 45en artikulua desiratzen dituen botere jeneral eta hedatu guztiak proposatzeko, ongi ikusteko eta laudatzeko han boz nagusian deliberatuko diren gauza guztiak, nahiz objet hauen gainean, nahiz han tratatuko diren beste objeten gainean. Ez dira sentimendutako, hargatik, Lapurtarrak, haien Diputatuak izan daitezzen Lapurdi beraiek bere baitarik errepresentatzen dutenak Diputatutzat izendatuz gero, ez eta ere mandatari bezala, haien botereak ezin izan daitezkeela mugarrizatuak; baina uste dute, mugari suerte horiek haien karguaren objetarentzat kaltegarri litezkeela. Igortzen dira Nazioaren Asanblada batetarat, ez han lege egiteko beste Diputatuei, baina bai han haiekin bereizteko legerik hoberenak, nahiz Erresumako Konstituzioaren gainean, nahiz oraino administrazioaren parte guztien gainean. Hortarakotz, haien kontzientzetarat eta haien ezagutzetarat utzi behar ditugu gure on-gaitz guztiak, eta nahiz gure errepresentazioen gainean, nahiz harat besteek ekarriko dituztenen gainean, libre behar dute izan Diputatuak, hartzeko egia, zuzentasuna eta Nazio guztiaren dohatsutasuna gehienik ekarriko duen partidua.

[77] Laudatua, irakurria eta aprobatua izan da Kaier hau Lapurdiko Heren-estatuaren Biltzar-jeneralean, Ustaritzeko gazteluan atxikia⁹², eta autorizatuak izan dira Lapurdiko Komisarioak

⁹² bildu

bere sinadura honen azpian ematerat honen fidelitatearen segurtatzeko. Egina apirilaren hogeita hiruan, mila zazpiehun eta laurogeita bederatzian.

Arantza Etxebarria eta Cesar Gallastegi



Jatorrizko testuaren irudia (1789).

ALDI BATERAKO LAN-KONTRATUAK KATEATZEAREN INGURUKO MUGAK 2006ko LAN-ERALDAKETAN

1. Espainiako lan-merkatuak duen gaitzik handienetakoa aldi baterako lan-kontratuen neuriz kanpoko erabilera da. Horregatik, lan-merkatuari dagokionez, 2006ko lan-eraldaketa gauzatu duen ekainaren 9ko 5/2006 Errege Lege-dekretuan¹ eta, ondoren, abenduaren 29ko 43/2006 Legean², oihartzun handiena aldi baterako lan-kontratuak kateatzearen inguruko mugek izan dute³.

Neurri horren xede nagusia aldi baterakotasuna gutxitzea da, eta hori guttiz positiboa da. Hala ere, nahitaezkoa da neurri hori lortzeko ezarritako bideak aztertzea, neurriaren norainokoa ezagutzeko.

2. Egia esan, orain arte, gai honetan zalantzak ziren nagusi. Printzipioz, onartu egiten zen, enpresaburu batek langile berarekin aldi baterako lan-kontratu batzuk egitea elkarren segidan —aldi bate-

¹ 2006ko ekainaren 14ko EAO, 141. zk.

² 2006ko abenduaren 30eko EAO, 312. zk. Kontuan hartu behar da, 5/2006 Errege Lege-dekretua lege bihurtzean ez dela aldatu errege lege-dekretu horrek lan-kontratuak kateatzearen inguruan egindako arauketa.

³ GORELLI HERNÁNDEZek esandakoaren ildotik, «urtero-urtero aldi baterako lan-kontratu gehiegi egiten da, eta horrek erakusten du egiatan ez direla lanpostu berriak sortzen. Bestela esanda, behin eta berriro langile berberak kontratatzen dira lanpostu berberak betetzeko. Horrenbestez, lanpostu berberetan txandakatzea dago». Areago, autore horrek honako ondorio hauek ateratzen ditu: batetik, «enpresaburuen artean ohitura bihurtu dira aldi baterako kontratazioa, langile batzuk behin eta berriro lanpostu berberetan txandakatzea, eta aldi baterako lan-kontratuen elkarren segidako kateatzea». Bestalde, «langileen ezegonkortasunak eta kolokatasunak dakarte lan-merkatua duala izatea, eta, ondorioz, lan-baldintza oso desberdinak ezartzea, oso eskasak direnak aldi baterako langileentzat; lan-istripuak ikaragarri gehitzea; enplegurik ez sortzea eta abar (GORELLI HERNÁNDEZ, J. La reforma laboral 2006 y la contratación temporal: la lucha contra el abuso en la contratación temporal. Un análisis de urgencia. In *AL*, 2006, 17. zk., 2037 eta 2038 or.

rako lan-kontratuak kateatzea—, edo enpresaburu batek langile desberdinekin egitea horrelako kontratuak, lanpostu berari begira —lanpostu berean langileak txandakatzea—. Horrela jarduteko, nahikoa zen egiteko kasu bakoitzean kasuan kasuko aldi baterako lan-kontratuaren arrazoi zuzena izatea. Arazoak sortzen ziren, ordea, lan-kontratu horien arrazoi zuzena zehazteko orduan⁴. Era berean, aldi baterako kontratazioa neurritz kanpo erabiltzearen ondorioz, askoz ere aukera gehiago zeuden, egindako lan-kontratuak eta errealitatea, hots, lan-kontratu horiek egiteko arrazoiak, bat ez etortzeko, eta, ondorenez, lege-iruzurrean egindako kontratu ugari ezkutatzeko.

Ildo horretatik, Langileen Estatutuaren (LEren)⁵ 15.3 artikuluen arabera, lege-iruzurra dago, aldi baterako lan-kontratuak egiten direnean kontratu horientzat ezarri arrazoiak kontuan hartu gabe. Gainera, hori gertatuz gero, lege-iruzurrarekin egindako aldi baterako lan-kontratuak iraupen mugagabeko bihurtzen dira⁶.

Alabaina, 2006ko lan-eraldaketa gauzatu aurretik, oso zaila zen iruzur-egite horren inguruabarrak zehaztea, aldi baterako lan-kontratuak kateatzen zirenean.

Azkenean, jurisprudentziak ezarri zituen irizpide nagusiak, kasuan kasuko aldi baterako lan-kontratuaren arrazoi zuzenik ez dagoela eta, ondorioz, kontratuok lege-iruzurrarekin egin direla zehazteko.

Egin-eginean ere, irizpide horiek oinarri hartuta sortu zen aldi baterako lan-kontratuaren arteko katean hogeitaz eguneko geldiarazteak izateari buruzko jurisprudentzia-doktrina.

⁴ Arazo horien inguruan ikusi BALLESTER PASTOR, M.A. La jurisprudencia del TS en torno a la concatenación contractual: declaraciones de principios y quiebras en un contexto de precariedad laboral. In *AS*, 2000, v. liburukia, Estudios e Indices, 668-689 or. Aldi baterako lan-kontratuak arrazoi jakin batzuetan oinarritzeari buruzko printzipioak Espainian izan duen bilakaerari dagokionez, ikusi AGUILERA IZQUIERDO, R. El principio de "causalidad" en la contratación temporal. In *RMTAS*, 2001, 33. zk., 98-122 or.

⁵ Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzazko Errege-dekretua, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onetsi duena (1995eko martxoaren 29ko EAO, 75. zk.).

⁶ LEren 15.3 artikulua ezarritakoa dela-eta («iraupen mugagabekotzat joko dira lege-iruzurrarekin egindako aldi baterako kontratuak»), ALONSO OLEAK eta BARREIRO GONZÁLEZek esandakoa ekarri behar da gogora. Bada, manu horretan *iuris et de iure* erako presuntzio bat jaso da; izan ere, manu horrek agertu nahi digu legearentzat noiz dagoen iruzurra (aldi baterako lan-kontratuak egiten direnean legegileak zerrendatutako kasuetatik at), bai eta iruzurra egitearen ondorioa zein den ere: aldi baterako lan-kontratuak iraupen mugagabekotzat jotzea (ALONSO OLEA, M. eta BARREIRO GONZÁLEZ, G. *El Estatuto de los Trabajadores. Texto, Comentarios, Jurisprudencia*. Madril: Civitas, 1995, 4. argitaraldia, 96. or.).

Doktrina horren arabera, aldi baterako lan-kontratuak kateatzean, elkarren segidako kontratuen artean jarraitutasunik ez zegoenean, edota kontratu batetik bestera jarduerarik gabeko denbora gutxi igarotzen zenean, ulertu behar zen, egindako kontratu guztiak gorabehera, iraupen mugagabeko lan-lotura bakarra zegoela⁷.

Esangura horretan, doktrina bateratzeko 2000ko otsailaren 15eko Auzitegi Gorenaren (AGren) epaiak⁸ ezarri zuen elkarren segidako kontratuetan jarraitutasunik ez dagoela, kontratu batetik bestera geldiarazte laburra dagoenean, hots, kaleratzearen ondoriozko akzioa iraungitzeko bestekoa (hogei egun baliodunekoa) (bigarren Zuzenbideko Oinarria)⁹.

3. Nolanahi ere, arazoari ez zitzaion errotik erreparatu. Bada, kontratuak egiteko arrazoi zuzena izatearen inguruko zalantzek eta lege-iruzurraren inguruko zalantzek jatorri bera zuten: aldi baterako lan-kontratuak inolako denbora-mugarik gabe kateatzeko aukera zabala.

Hori zela eta, nahitaezkoa zen kateatze horri mugak ezartzea. Halaber, neurri horrek aldi baterakotasuna murrizteko balio zuen.

Hortaz, helburua ez zen soil-soilik lege-iruzurraren aurka egitea. Aurretiaz jardun beharra zegoen. Kontratuak neurritz kanpo kateatzea mugatu behar zen, nahiz eta kontratu horiek zilegiak izan, legegileak ezarritako arrazoietan oinarritzeagatik. Jakina, kontratuak ez-zilegiak izanez gero, LEren 15.3 artikulua aplikatu beharko litzateke.

4. Ideia horiek guztiak bildu zituen Europar Batasuneko Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko EE/1999/70 Zuzentarauak,

⁷ ZENBAIT AUTORE. *Manual de Derecho del Trabajo* (MOLERO MANGLANO, C. Zuz.). Madrid: Civitas, 2004, 4. argitaraldia, 177. or.

⁸ Ar. 2040.

⁹ Ikusi VALDÉS ALONSO, A. Sucesión de contratos temporales realizados en fraude de ley y determinación del período computable a efectos de la fijación de la indemnización por despido improcedente. Sobre el supuesto carácter presuntivo del artículo 15.3 ET (Comentario a la STS 4.ª de 16 de abril de 1999). In *RL*, 1999, II. liburukia, 821-826 or. Aldi baterako lan-kontratuen kateatzearen inguruko lege-iruzurrak AGren jurisprudenzian izandako bilaerari buruz ikusi PEDRAJAS MORENO, A., SALA FRANCO, T. eta VALDÉS DAL-RE, F. *La reforma laboral 2006*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2006, 54-56 or.

iraupen jakineko kontratazioaren inguruan CES, UNICE eta CEEP lanbide arteko erakundeek egindako Esparru-akordioari buruzkoak¹⁰.

Zuzentarau hori European izandako gizarte-elkarrizketaren ondorio izan zen. Hurrean ere, solaskideek aurretiaz adierazi zuten euren nahia iraupen jakineko lana hobetzea zela, eta, horretarako, bereizkeriarik ezaren printzipioa bermatu behar zela. Solaskideek beren beregi eragotzi nahi zituzten iraupen jakineko lan-kontratuak elkarren segidan egiteagatik sortutako abusuak (EE/1999/70 Zuzentarauaren 14. Kontuan Hartuzkoa).

Hasieran, asmo eta helburu horiek guztiak bildu ziren lanbide arteko erakundeek (UNICE, CEEP eta CES erakundeek) 1999ko martxoaren 18an egindako Esparru-akordiora. Gerogarrenean, EE/1999/70 Zuzentarauak gauza bera egin zuen, esparru-akordio hori eranskin gisa jasota. Horrela, esparru-akordio hori betetzeko, zuzentarauak gehienez ere 2001eko uztailaren 10eko data ezarri zien estatu kideei, kasuan kasuko lege-, erregelamendu- zein administrazio-xedapenak indarrean jartzeko (2. artikulua).

Aldi baterako lan-kontratuak neurritz kanpo kateatzea saihesteko estatu kideek kontuan hartu behar zituzten neurriak Esparru-akordioaren 5. klausulan ezarri ziren. Neurri horiek ondokoak ziren: a) aldi baterako lan-kontratuak edo lan-harremanak berriztatzea justifikatzen dituzten arrazoi objektiboak ezartzea; b) elkarren segidan egindako aldi baterako lan-kontratu edo lan-harremanen gehieneko iraupena ezartzea; c) horrelako kontratu edo lan-harremanak zenbat aldiz berrizta daitezkeen zehaztea.

Horrela, estatu kideek neurri horietako bat edo batzuk ezarri behar zituzten, horren inguruko barne-arauketarik izan ezean. Neurri horiek ezartzeko, estatu kideek kontsultatu behar zituzten gizarte-solaskideak. Orobat, estatu kideek kontuan hartu behar zituzten euren legeria, akordio kolektiboak eta eginerak, eta sektore edota langile-kategoria bakoitzaren beharrianak.

¹⁰ 1999ko uztailaren 10eko EBAO, L 175 zk.

Bestalde, estatu kideek, aurretiaz gizarte-solaskideak kontsultatuta, edota gizarte-solaskideek, hala beharrez gero, zehaztu behar zuten, iraupen jakinako lan-kontratuak edo lan-harremanak zein baldintzatan jo behar ziren elkarren segidakotzat, eta noiz iraupen mugagabekotzat.

5. Espainian arauketa horren transposizioa 2001eko lan-eraldaketan egin zen¹¹, LEren 15. artikuluari 5. idatz-zatia gehituz. Bada, manu horren arabera, hitzarmen kolektiboek betekizunak ezar zitzaketen, aldi baterako lan-kontratazioa elkarren segidan neurritz kanpo erabiltzea saihesteko.

Edonola ere, xedapen hori erabat zehaztugabea zen. Batetik ez zituen aintzakotzat hartzen EE/1999/70 Zuzentarauak proposatutako neurriak. Bestetik, negoziazio kolektiboaren esku uzten zuen aldi baterakotasunaren aurka egiteko neurri garrantzitsuenetako bat. Egia esan, jokabide hori ez zetorren bat 2001eko lan-eraldaketaren ustezko xedeekin: enplegua gehitzea eta horren kalitatea hobetzea.

6. Azkenik, 5/2006 Errege Lege-dekretua izan da EE/1999/70 Zuzentarauaren transposizioa behar bezala egin duena, LEren 15.5 artikulua aldarazita. Kasu horretan, neurri jakin baten aldeko apustua egin da, elkarren segidan egindako aldi baterako lan-kontratuen edo lan-harremanen gehieneko iraupena ezarrita. Hori dela eta, zilegi da neurri horrek ekar dezakeen gizarte-aurrerapena aitortzea, gehienbat, enpleguaren egonkortasunari eta enpleguaren kalitateari begira. Baina neurri horren alderik garrantzitsuenak aztertzea ere behar-beharrezkoa da; izan ere, egindako apustua arrakastatsua izan dadin, neurri horren aldeak behar bezala interpretatu behar dira.

7. Zinez, LEren 15.5 artikulua idazketa berrian bi dira bereizi beharreko erakundeak: aldi baterako lan-kontratuak kate-

¹¹ Lan-eraldaketa hori gauzatu zen, lehenengo, martxoaren 2ko 5/2001 Errege Lege-dekretuarekin (2001eko martxoaren 3ko EAO, 54. zk.), eta, gerogarrenean, uztailaren 9ko 12/2001 Legearekin (2001eko uztailaren 10eko EAO, 164. zk.), bi-biak ere izen berekoak: Lan-merkatua eraldatzeko presako neurriei buruzkoa, enplegua gehitzeko eta horren kalitatea hobetzeko.

atzea eta lanpostu berean langile desberdinak txandakatzea. Hala eta guztiz ere, legegileak bi erakunde horietarik lehenengorari eman dio garrantzi gehiago. Gainera, erakunde horiek aztertzeari ekin aurretik, nabarmendu behar da legegileak inolako justifikaziorik gabe baztertu dituela erakunde horien aplikazio-esparrutik heziketarako, errelebuko eta bitarteko lan-kontratuak (LEren 15 artikuluko hirugarren idatz-zatia).

8. Lanpostu berean langile desberdinak txandakatzeari dagokionez, berrikuntza bakarra dago. Ustez, indartu egin da eraldaketaren aurretik LEren 15.5 artikulua zuen idazketa. Idazketa horren arabera, gogoratu behar da hitzarmen kolektiboek betekizunak ezar zitzaketela, aldi baterako lan-kontratazioa elkarren segidan neurritz kanpo erabiltzea saihesteko. Aitzitik, gaur egungo idazketan hurrengo ezarri da:

Jarduera bakoitzaren berezitasunak eta lanpostuaren ezau-garriak kontuan hartuta, negoziazio kolektiboak betekizunak ezarriko ditu, iraupen jakineko kontratu gehiegi egitea saihesteko, noiz eta kontratu horiek egiten direnean langile desberdinekin, aurretiaz izaera bereko kontratuekin betetako lanpostuei begira, jarraitutasunik gabe edo jarraitutasunarekin; halako kontratuen artean egongo dira aldi baterako laneko enpresekin egindako lagatze-kontratuak ere.

Beraz, argiro antzeman daiteke, gaur egun betebeharra dagoela aipatu betekizunak negoziatzeko. Zernahi gisaz, aukera ederra galdu da, betebeharrak hori biltzeko LEren 85.3 artikulua arabera hitzarmen kolektiboek izan beharreko gutxieneko edukira. Horregatik, zeharo komenigarria izango litzateke LEren manu hori aldaraztea¹².

Bestalde, gai hori negoziazio kolektiboaren esku utzi denez, ezerk ez luke eragotzi behar kasu horretan heziketarako, errelebuko eta bitarteko lan-kontratuak ere kontuan hartzea, LEren 15.5

¹² Esangura horretan, ikusi LAHERA FORTEZA, J. Límites novedosos en el encadenamiento de contratos temporales. In VVAA: *La Reforma Laboral de 2006. Real Decreto Ley 5/2006, de 9 de junio* (CRUZ VILLALÓN, J. Koord.). Valladolid: Lex Nova, 2006, 67-69 or.

artikuluaren ondoretarako. Modu horretara, legegileak ezarritakoa hobetuko litzateke¹³.

Legegileak, ordea, ez du inolako zantzurik ezarri, negoziazioan xeda daitezkeen betekizunen inguruan. Betekizun horiek ezartzeko agindua askoz ere zabalagoa eta biziagoa izan beharko litzateke. Horregatik, funtsezkoa izango da alderdi negoziatzaileen irudimena¹⁴.

9. Aldi baterako lan-kontratuak kateatzearen inguruko arauketari helduz, badirudi legegileak lehenengo eta behin hurrengo argitu nahi duela: hartutako neurriarekin ez da aldatzen LEren 15. artikuluko 2 eta 3. idatz-zatietan jasotakoa —«artikulu honen 2 eta 3. idatz-zatietan xedatutakoari kalterik egin gabe,...»—.

Haatik, neurri berriak osatu egiten ditu idatz-zati horiek. Horrenbestez, aurrerantzean, idatz-zati horien guztien gaineko interpretazio teleologikoa edo baterako interpretazioa egin beharko da. Halatan, LEren 15. artikuluko 5. idatz-zati berriaren xedea ez da zenbait ez-betetze edo lege-iruzur zehatzea, horretarako baitaude artikuluko horretako 2 eta 3. idatz-zatiak.

Idatz-zati berriaren helburua da lan-eraldaketa gauzatu aurreko egoera aldatzea, hau da, elkarren segidan egindako aldi baterako lan-kontratuen neurritz kanpoko erabilera saihestea; izan ere, egoera hori aproposa zen ez-betetzeak eta lege-iruzurra gehitzeko.

Behin ñabardura hori eginda, legegileak hartutako neurri zehatzaren berri eman du, aldi baterako lan-kontratuak kateatzeari mugak jartzeko. Neurri horren arabera,

... hogeita hamar hilabeteko aldian, jarraitutasunik gabe edo jarraitutasunarekin, hogeita lau hilabete baino epe luzeagoan

¹³ SEMPERE NAVARRO, A.V. Limitaciones a la contratación temporal. In VVAA. *La reforma laboral de 2006. Análisis del Real Decreto-ley 5/2006, de 9 de junio* (SEMPERE NAVARRO, A.V. Zuz.). Iruña: Aranzadi, monografías Punto de Actualidad, 2006, 121. or.

¹⁴ Hori berori ulertu du TASCÓN LÓPEZek ere. Gainera, autore horrek konponbide batzuk proposatzen ditu (TASCÓN LÓPEZ, R. Reformas en materia de contratación temporal. In *Aspectos puntuales de la Reforma Laboral de 2006. Análisis del Real Decreto-ley 5/2006* (FERNÁNDEZ DOMÍNGUEZ, J.J. Zuz. eta Koord.). Murtzia: Ediciones Laborum, 2006, 96-98 or.).

kontratututa egon diren langileak finko egingo dira, baldin eta langile horiek kontratatuta egon badira enpresa berean lanpostu bera betetzeko, aldi baterako bi kontratu edo gehiagoren bidez, zuzenean edo aldi baterako laneko enpresa batek lagata, eta iraupen jakineko kontratu-modalitate bereberekin edo desberdinekin¹⁵.

Neurri horretara bildutako betekizun guztiak aintzat hartuta, nahitaezkoa da horietako bakoitza banan-banan aztertzea. Are gehiago, azterketa horren arabera bakarrik balora daiteke hartutako neurriaren norainokoa.

10. Lehendabizi, aldi baterako bi kontratu edo gehiago kateatu behar dira.

Ondore iragankorrei dagokienez, komenigarria da 5/2006 Errege Lege-dekretuaren bigarren xedapen iragankorrak ezarritakoa kontuan hartzea. Bada, xedapen horren arabera, aldi baterako lan-kontratuaren kateatzea mugatzeko neurria aplikatuko zaie errege lege-dekretu hori indarrean jarri ondoren horrelako kontratuak egiten dituzten langilei (hau da, ekainaren 15etik aurrera). Horrez gain, kateatutako kontratuak zenbatzeko lehengo kontratu gisa hartuko da langileak errege lege-dekretu hori indarrean jarri aurretik egindakoa, betiere kontratu horrek bere horretan jarraitzen badu.

Egia esan, betekizun horren bidez urrats garrantzitsua eman da enpleguaren egonkortasunari begira. Halaber, betekizun horrek elkarren segidan egindako aldi baterako lan-kontratuak gehiegi erabiltzea saihesten du, eta horri esker gutxitu egiten dira lan-kolokatasunaren oinarri diren ez-betetzeak eta lege-iruzurra.

Hori gorabehera, LEren 15.5 artikulua egitezko kasutik at dago kontratazio bakarra. Hori dela eta, aurrerantzean iraupen luze-ko aldi baterako lan-kontratuak gehiegi erabiltzeko arriskua egongo da, eta, batik bat, obra edo zerbitzu jakinerako lan-kontratuak.

¹⁵ LEren 15. xedapen gehigarriaren edukia aldarazi ondoren, 5/2006 Errege Lege-dekretuak muga horiek aplikagarri egin ditu administrazio publikoen eta horien erakunde autonomoen esparuan ere, «enplegu publikoa lortzeko berdintasunaren, merezimenduen eta gaitasunaren konstituzio-printzipioak aplikatzea gorabehera. Horrenbestez lege honen [LEren] 15.5 artikuluan xedatutakoak ez dio kalterik egingo kasuan kasuko lanpostuak prozedura arruntan bidez betetzeko betebeharrari, aplikatu beharreko arautegian ezarritakoarekin bat etorriz».

Esate baterako, eraikintzako sektorean posible izango da, obrako finkoa deritzon kontratu-modalitatearen bidez, langile batekin lan-kontratu bakarra egitea, nahiz eta, gerogarrenean, langile horrek elkarren segidako obra desberdinak egin, kontratu berririk egin gabe¹⁶.

Dena dela, egoera katramilatsua izango da, obra eta zerbitzu jakinerako lan-kontratuak kontraten eta azpikontraten ondoriozko harreman juridikoetara biltzen direnean.

Ildo horretatik, kontraten ondorengotza egon eta kontratariak langile berberak erabiltzen dituenean, enpresaburu nagusi berarentzat obra eta zerbitzu desberdinak egiteko, doktrina bateratzeko jurisprudentiarentzat ez da nahitaezkoa kontratu batzuk izatea; posible da kontratu bera aldaberritzea, eta gainerako kontratei ondoreak hedatzea¹⁷. Beraz, jurisprudenzia horri eutsiz gero, halako kasuetan ezin izango da aplikatu LEn 15.5 artikulua.

Itxura denez, lehen enpleguaren egonkortasunaren izenean defendatzen zena, orain aldi baterakotasuna saihesteko ezarri neurriaren aurkako da¹⁸.

Amaitzeko, legegilearen jokabidea da kezagarriena, ez baitirudi horrelako egoeren aurrean zerbait egiteko gogoia edo kementa duenik. Horren adibide da oraintsu onetsi den urriaren 18ko 32/2006 Legeak, Eraikintzako sektorean azpikontratazioa arautze-koak¹⁹, xedatutakoa:

¹⁶ Horren inguruan ikusi SEMPERE NAVARRO, A.V. Contratación como fijo de obra para varias edificaciones indeterminadas. Comentario a la STS de 30 de junio de 2005. In *Aranzadi, Repertorio de Jurisprudencia*, 2005, vii. liburukia, Estudios, 46. zk., 21737-21747 or. Obrako finkoa deritzon kontratu-modalitatea sakon aztertzei ikusi ZENBAIT AUTORE. *La negociación colectiva en el sector de la construcción*. Madril: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, 2002, 101-106 or. Era berean, oso interesgarria da, kontratu-modalitate horren inguruko arauketa eta jurisprudenzia aztertzei, MOLTÓ GARCÍA, J.I. *Relaciones laborales en el sector de la construcción. El convenio general del sector*. Valentzia: CISSPRAXIS, 2000, 92-103 or.

¹⁷ Aukera horretaz ari da, besteak beste, doktrina bateratzeko 2003ko urriaren 22ko AGE (Ar. 8390), bosgarren Zuzenbideko Oinarrian.

¹⁸ Ikusi SEMPERE NAVARRO, A.V. Limitaciones a la contratación temporal. In *VVAA. La reforma laboral de 2006. Análisis del Real Decreto-ley 5/2006, de 9 de junio* (SEMPERE NAVARRO, A.V. Zuz.). Iruñea: Aranzadi, monografías Punto de Actualidad, 2006, 109-110 or.

¹⁹ 2006ko urriaren 19ko EAO, 250 zk.

... Eraikintzako sektorean, estatu-mailako negoziazio kolektiboak obra edo zerbitzu jakinerako kontratuaren inguruan izaera orokorrarekin ezarritako kontratu-modalitatea molda dezake, langileen enplegu-egonkortasuna gehiago bermatzen duten formulak erabiltita; horretarako, kontuan hartuko dira gaur egunean negoziazio esparru horretan araututako formulen antzekoak (hirugarren xedapen gehigarria. Negoziazio kolektiboa eta enpleguan kalitatea).

Labur-zurrean esanda, modu zehaztugabeen eta anbiguoan bada ere, eraikintzako sektorean eutsi egiten zaie LEren 15.5 artikuluko egitezko kasutik kanpo dauden erakunde eta eginerei.

11. Bigarrenez, kontuan hartu behar da, LEren 15.5 artikuluko ondoreetarako, aldi baterako edozein lan-kontratu mota zenbatu behar dela, heziketarako, errelebuko eta bitarteko lan-kontratuak izan ezik. Orobat, aldi baterako kontratazioaren alde egiten duen enpresaburuak erabil ditzake zuzenean kontratatutako langileak edo aldi baterako laneko enpresa batek lagatako langileak. Dena den, betekizun horiek zalantza batzuk sortzen dituzte.

Heziketarako, errelebuko eta bitarteko lan-kontratuak salbues-tea dela eta, zalantzak sortzen dira, aldi baterako lan-kontratu batzuen arteko katean horrelako kontraturen bat tartekatzen denean.

Bi dira horren inguruko konponbideak²⁰: bateko, salbuetsitako kontratuek zenbaketa geldiaraztea, eta, ondorenez, epea berriro zenbatzen hastea; besteko, salbuetsitako kontratuek zenbaketa etetea, eta, ondorenez, kontratu horien iraunaldia «hutsarte» gisa hartzea, eta, behin iraunaldi hori amaituta, aurretiaz zenbatutako epeak jarraipena izatea.

Arauaaren ikuspuntu teleologikotik lan-kolokatasuna ezabatzea da helburu nagusia; hain zuzen, helburu hori erdiesteko, neurriz kanpoko kateatzeak mugatzen dira. Hori dela eta, arrazoitsua dirudi bigarren konponbidearen alde egitea.

²⁰ Zalantza horren inguruan ari da, baita ere, GORELLI HERNÁNDEZ, J. La reforma laboral 2006 y la contratación temporal: la lucha contra el abuso en la contratación temporal. Un análisis de urgencia. In *AL*, 2006, 17. zk., 2046. or.

Enpresaburuak aldi baterako kontratuak aldi baterako laneko enpresa batekin zeharka egiteko duen aukerari dagokionez, LEren 15.5 artikulua hitzez-hitzekotasuna hartu behar da kontuan. Bada, horren arabera, langilea enpresa erabiltzailean egingo da finko beti. Antzeko ondorioa ezarri du, berebat, ekainaren 1eko 14/1994 Legeak, aldi baterako laneko enpresak arautzekoak (ABLELEk)²¹, 7.2 artikuluan:

Langileak lagatzeko epea amaitzen denean, langileak enpresa erabiltzailean zerbitzuak emateari eusten badio, ulertuko da langile horrek iraupen mugagabeko kontratua duela enpresa erabiltzailearekin.

Bestalde, LEren 15.5 artikulua ondoreetarako, aldi baterako laneko enpresen bidezko zeharkako kontratazioa aintzat hartzeak ekarri du ABLELren 8.c) artikulua bigarren tartekadura isilbidez indargabetzea (5/2006 Errege Lege-dekretuaren 13. artikulua).

Manu horrekin enpresei eragozten zitzaizen zeharkako kontratazioa jotzea, noiz eta kontratuak egin aurreko hemezortzi hilabeteetan, bete beharreko lanpostuak, hamabi hilabetetik gorako aldian, jarraitutasunarekin edo jarraitutasunik gabe, aldi baterako laneko enpresek lagatako langileek betetzen zituztenean.

Nolanahi ere, tartekadura hori indargabetzeko erabakia ez da oso egokia. LEren 15.5 artikulua langileentzat mesedegarriagoa da kontratuak kateatzen direnean, baina artikulua horrek ez dio inolako mugarik ezartzen lanpostu berean langile desberdinak txandakatzeari. Hortaz, ulertu behar da «manu hori ezabatzea ez zela beharrezkoa»²².

12. Hirugarrenez, aldi baterako bi kontratu edo gehiago kateatzearen ondorioz, langileek enpresaburu berari lan-zerbitzuak eman behar dizkiote «hogeita hamar hilabeteko aldian», «hogeita lau hilabete baino epe luzeagoan».

²¹ 1994ko ekainaren 2ko EAO, 131. zk.

²² LAHERA FORTEZA, J. *op. cit.*, 55. or.

Betekizun horren inguruan sortzen den lehenengo zalantza estu lotzen zaie 5/2006 Errege Lege-dekretuak araututako ondore iragankorrei, errege lege-dekretu hori indarrean jarri aurretik egin eta errege lege-dekretu hori indarrean jarri ondoren bere horretan jarraitzen duten aldi baterako lan-kontratuen eretzeari.

Bada, 5/2006 Errege Lege-dekretuaren bigarren xedapen iragankorreko bigarren lerrokadatik argiro ondorioztatzen da kontratu horiek kontuan hartu behar direla kateatutako lan-kontratuak zenbatzeko. Beraz, kontratu horiek kateko lehenengo kontratu gisa zenbatu behar dira. Gainera, ez dirudi horren aurka ezer esan daitekeenik, kontratu horiek indarrean jarraitzen baitute arautegi berriarekin ere.

Aitzitik, argitasun horretan gerizpea egiten duen zalantza bestelakoa da. Areak ere, legegileak ez dio ezer errege lege-dekretua indarrean jarri aurretik egindako lan-kontratuaren iraunaldia zenbatzearen inguruan. Legegileak ez du argitzen, errege lege-dekretua indarrean jarri ondoren, kontratu horrek bere horretan jarraitzen duenean, kontratuaren iraunaldiak zer-nolako eragina duen, hogeita hamar hilabeteko aldian, hogeita lau hilabeteko epea baino luzeagoa zenbatzeari dagokionez.

Edu horretan, argitu behar da kontratu horren iraunaldia noiztik hasita hartu behar den kontuan: kontratua egin zenetik ala soil-soilik 5/2006 Errege Lege-dekretua indarrean jarri zenetik.

Zalantza hori argitzeko, 5/2006 Errege Lege-dekretuaren bigarren xedapen iragankorreko lehenengo lerrokada interpretatu behar da. Horrela, LEren 15.5 artikulua ondoreak sortuko ditu, 5/2006 Errege Lege-dekretua indarrean jarri ondoren aldi baterako lan-kontratuak egiten dituzten langileei begira bakarrik. Antzeman daitekeenez, bi dira osagai nagusiak, LEren 15.5 artikulua ondoreak eragingarriak izan daitezen: aurrena, errege lege-dekretua indarrean jartzea, eta, hurrena, aldi baterako lan-kontratuak egitea errege lege-dekretu hori indarrean jarri ostean.

Hori dela eta, errege lege-dekretua indarrean jartzeko unean, langileak aurretiaz egin zuen aldi baterako lan-kontra-

tua indarrean dagoenean, errege lege-dekretua indarrean jarri eta kontratu hori azkendu arte igarotako denbora parekatuko da errege lege-dekretua indarrean jarri ostean egindako kontratuaren iraunaldiarekin. Gainera, parekatze hori bat dator errege lege-dekretua indarrean jarri aurretik egindako aldi baterako lan-kontratua katearen lehenengo kontratu gisa hartzeko ideiarekin.

Laburbilduz, nabarmendu behar da LEren 15.5 artikulua ondoareak etorkizunerako direla, alegia, errege lege-dekretua indarrean jarri osteko egoerentzat.

Hori dela bide, ezin da atzeraeraginez hitz egin. Halaber, ezin ahantz daiteke lan-legeriak eta Gizarte Segurantzaren legeriak ez dutela onartzen atzeraeraginaren erregela.

Sarritan, gutxieneko mailako atzeraeraginaz edo *in mitius* atzeraeraginaz hitz egiten da, lege berria aplikatzen zaienean lege hori indarrean jarri osteko egoerei, nahiz eta egoera horiek indargabetutako legean oinarritutako harreman juridikoen ondorioz sortu. Baina kasu horietan ere ez dago atzeraeraginik, lege berria etorkizuneko egoerei aplikatzen zaielako²³.

Ondorenez, errege lege-dekretua indarrean jarri aurretik egindako kontratuari dagokionez, hogeita lau hilabete baino epe luzeagoa hogeita hamar hilabeteko aldi zenbatzeko, soil-soilik kontuan hartu beharko da errege lege-dekretua indarrean jarri osteko denbora.

Horrezaz landa, kritikagarria da kateatutako kontratuak zenbatzeko ezarri den aldi bikoitz hori, horren ondorioz LEren 15.5 artikulua aplikaezina izan daitekeelako.

²³ Ikusi RIVERO LAMAS, J. eta DE VAL TENA, A. Retroactividad. In *Diccionario Jurídico Laboral* (OJEDA AVILES, A. eta GORELLI HERNÁNDEZ, J. Koord.). Granada: Comares, 1999, 592-593 or. Era berean, kontsultatu VILLAR PALASI, J.L. eta SUÑE LLINAS, E. *Artículo 9. El Estado de Derecho y la Constitución*. In *Comentarios a la Constitución Española de 1978* (ALZAGA VILLAAMIL, O. Zuz.). Madrid: Editoriales de Derecho Reunidas, 1996, 1 liburukia, Preámbulo y artículos 1 a 9, 563-566 or. Gizarte Segurantzari dagokionez, ikusi ZENBAIT AUTORE. *Curso de Derecho del Trabajo* (RAMÍREZ MARTÍNEZ, J.M. Zuz.). Valentzia: Tirant lo Blach, 2006, 15. argitaraldia, 48 eta 49. or.

Hori berori gertatuko da, berbarako, hogeita lau hilabeteko irau-naldia gainditzen ez duten kontratuak egiten direnean. Bestela esanda, hogeita lau hilabeteko edo hogeita lau hilabetetik beherako irau-naldia duten kontratuak kateatuz gero, langileak ez dira finko egingo.

Hori saihesteko, legegileak formula mistoaren alde egin behar zuen, EE/1999/70 Zuzentarauak proposatutako hiru neurrietarik honako bi hauek kontuan hartuta: a) enpresaburuak langile berarekin elkarren segidan aldi baterako lan-kontratu kopuru jakin bat egitea; b) horrelako kontratuek izan dezaketen gehieneko irau-naldia ezartzea²⁴.

Hogeita hamar hilabeteko aldia zenbatzeko, ordea, ez dirudi inolako arazorik dagoenik, arauak ezer ez esan arren, Kode Zibilaren 5. artikuluan xedatutakoa hartu behar delako kontuan. Jakina denez, Kode Zibilak izaera orokor eta ordeztaila du lan-zuzenbideari begira. Beraz, hogeita hamar hilabete horiek ondoz ondokoak izan behar dira, datatik datara zenbatu beharrekoak, etenaldirik eta geldiarazterik gabekoak²⁵.

13. Laugarrenez, hogeita lau hilabete baino epe luzeagoa «jarraitutasunik gabe edo jarraitutasunarekin» zenbatzeko aukerak bertan behera uzten du hogei eguneko geldiarazteak izateari buruzko jurisprudentzia-doktrina, aldi baterako lan-kontratuen kateari dagokionez.

14. Bosgarrenez, kontratua «enpresa berean lanpostu bera betetzeko» izan behar denez, atak gehiegi zabaltzen zaizkie LEren 15.5 artikuluaaren aplikaziotik ihes egin nahi dutenei.

Horren ageriko, LEren 15.5 artikuluaaren ondoreetarako, lanpostu bera bete beharra betekizun zurrun eta hertsiegia da. Betekizun horrek ahalbidetzen du langile bera sarritan kontrata-

²⁴ Formula misto horren alde, ikusi. GORELLI HERNÁNDEZ, J. La reforma laboral 2006 y la contratación temporal: la lucha contra el abuso en la contratación temporal. Un análisis de urgencia. In *AL*, 2006, 17. zk., 2043. or.

²⁵ Ikusi CABANILLAS SÁNCHEZ, A. *Comentarios al Código Civil y compilaciones forales* (ALBALADEJO, M. eta DÍAZ ALABART, S. Zuz.). Artículo 5, I tomoa, I. liburukia, artículos 1 a 7 del Código Civil. Madril: Editorial Revista de Derecho Privado, 1992, 623-658 or.

tzea, mugigarritasun funtzionalean aldarazpen gutxi batzuk eginda, kasuan kasuko langilearen lanbide-taldean edo kategoria balioki-deen artean. Harrigarria badirudi ere, kasu horretan, legegileak ez du aintzakotzat hartu gaur egungo enpresen antolaketa.

Orobat, kontratua enpresa berean egiteko betekizunak interpretazio-arazo asko sortuko ditu, legegilea gehiegi urruntzen delako gaur egun nagusi den ekoizpena deszentralizatzeko joeratik. Hain justu ere, ekoizpena deszentralizatzearen ondorioz, litekeena da langile batek lan-zerbitzuak ematea enpresa desberdinentzat.

Hariari segituz, berriro ere faltan botatzen da, enpresa-taldeen fenomeno oso-osoan eta behar besteko bermeekin kontuan hartzen duen arauketa. Bien bitartean, «nortasun juridikoaren estalkia kentzeko» jurisprudenziari eutsi beharko zaio.

Enpresa-ondorengotza dagoenean, aldiz, LEren 44. artikulua ezarritakoaren arabera, enpresaburu berria aurreko enpresaburuaren lan-izaerako eskubide eta betebeharretan subrogatuko da; ondorenez, langileek eskubidea izango dute, aurreko enpresaburuarekin egin zituzten aldi baterako lan-kontratuak zenbatzeko, LEren 15.5 artikulua ondoretarako. Edonola ere, obra eta zerbitzuen ondorengotza dagoenean, oso zaila izango da langileak zein enpresatan egiten diren finko zehaztea²⁶.

15. Seigarrenez, LEren 15.5 artikulua ezarritako ondorioaren eretzean, hau da, langileak finko egiteari dagokionez, ez da zehazten finko egite horren izaera.

Arazo hori konpontzeko, analogiara jo, eta LEk antzeko egoeretan xedatutakoa kontuan hartu behar da²⁷.

Modu horretara, hurrengo bi aukerak daude: batetik, lan-kontratua lanaldi osorako eta iraupen mugagabekoa dela uste izatea, LEren 8.2 artikulua egin antzera; eta, bestetik, langile finkoa-

²⁶ Horren inguruan ikusi PEDRAJAS MORENO, P. eta SALA FRANCO, T. *Contratas y empresas de trabajo temporal: responsabilidades*. Valentzia: Tirant lo Blach, 2006, 59-82 or.

²⁷ TASCÓN LÓPEZ, R. *op. cit.*, 92 eta 93. or.

ren eskubide eta betebeharrak izatea ohiko egoeran lanpostu berean edo baliokidean zerbitzuak ematen dituen langilearenak, LEren 43.4 artikulua xedatutakoaren ildotik, legearen aurkako lagatzea egon, eta langileak erabakitzen duenean finko egitea enpresa hartzailean. Dena dela, ekoizpen-sektore desberdinak eta horietako bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuta, arrazoitsuago dirudi bigarren aukeraren alde egitea.

F. Javier Arrieta Idiakez

HIZKERA JURIDIKOA ETA ITZULPENGINTZA: EUSKARAREN NORABIDEAK

Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, 2004ko azaroaren 17an eta 18an, *Hizkera Juridikoa eta Itzulpengintza* sinposioa antolatu zuten Deustuko Unibertsitatean, Euskal Gaien Institutuaren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan. Liburu honetan, sinposio horretako aktak jaso dira.

Sinposioko parte-hartzaileen hitzaldiak transkribatu dira, haien parte-hartzeen hurrenkeraren arabera. Hitzaldietan erabilitako hizkuntza errespetatu da. Hartara, horietako zazpi (Cesar Gallastegi, Gotzon Lobera, Adolfo Arejita, Andres Urrutia, Eneko Oregi, Esther Urrutia eta Itziar Alkorta hizlarienak) euskaraz daude; bi (Enrique Alcaraz eta José Palacio hizlarienak) gaztelaniaz eta bat (Santiago Larrazabalena) bi hizkuntzetan jaso da, elebiduna izan zen eta.

Era berean, sinposioaren amaierako mahai-inguruan parte hartu zutenen euskarazko testuak bildu dira (Jon Landa, Esteban Umerez, Josu Barambones, Karlos del Olmo, Leire Zenarruzabeitia eta Manu Arrasate).

Horrekin batera, *Kode Zibila eta Lege-testu elebidunak* bildumaren aurkezpen ofizialari buruzko kronika egin da. Sinposioko ekitaldi horretan, Deustuko Unibertsitateko errektore jaun txit gorena eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria izan ziren mahaiburu. Gainera, ekitaldiaren oroigarritzko argazki batzuk, sinposioaren programa eta parte-hartzaileen zerrenda gehitu dira.

Santiago Larrazabal Basañez / Eneko Oregi Goñi (Koord.)

Hizkera juridikoa eta itzulpengintza: euskararen norabideak

*Deustuko Unibertsitatean 2004ko azaroaren
17 eta 18an egindako sinposioaren agiriak*

CAPITULO V.

De los derechos de los Interpretes.

§. *único.* **A**l Interprete de Bascuence en el caso de que el Juez contemple necesario valerse de él, se señalan dos reales vellon por cada testigo; y á los Interpretes de otras Naciones, se pagarán quince reales de vellon, por cada día entero que ocuparen trabajando las horas señaladas á los Escribanos, y con este respecto se graduará la ocupacion, certificando al pie de las diligencias y traduccion, el tiempo que emplearen conforme á lo prevenido en esta parte á cerca de los ministros Alguaciles.

Amaitzeko, sinposioaren eta argitalpen honen koordinatzaileok eskerrak eman nahi dizkiegu hizlariari, sinposioko aktak arazoizko epe baten barruan bildu, bateratu eta argitaratzeko lan zailan lankidetzan aritzeagatik, baita sinposioa antolatu eta argitalpen honetan elkarrekin lan egin duten erakundeei ere, hots, Deustuko Euskal Gaien Institutua eta Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea. Eskerrak, era berean, Rosa Buendía andreari, Euskal Gaien Institutuko idazkaritzakoa, Arantza Etxebarria andreari, Euskarazko Irakaskuntzarako Laguntza Gunekoa, eta Andres Urrutia eta Cesar Gallastegi irakasle jaunei, argitalpen honen inguruan egindako ohar eta iradokizunengatik.

Santiago Larrazabal eta Eneko Oregi

LEY DE ENJUICIAMIENTO CRIMINAL / PROZEDURA KRIMINALAREN LEGEA

Aurkibidea: Laburdurak. Aurkezpena. Atarikoa. Prozedura Kriminalaren Legea, 1982ko irailaren 14ko Errege Dekretuaren bidez aldarrikatu dena: Zioen azalpena; Lehenengo liburua; II. liburua. Sumarioa; III. liburua. Ahozko epaiketa; IV. liburua. Prozedura bereziak; V. liburua. Gora jotzeko errekurtsua, kasazio-errekurtsua eta berrikuspen-errekurtsuak; VI. liburua. Falta-epaiketarako prozedura; VII. liburua; Xedapen gehigarriak; Azken xedapena. Aurkibide analitikoak: gaztelania-euskara; euskara-gaztelania.

Liburuki honetan, prozesu kriminalari buruzko oinarrizko arauketa jasotzen da. Arauketa horrek bere barruan hartzen du 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuaren bidez onetsitako legea, prozedura krimilari buruzkoa. Horixe da, izan ere, egun indarrean dagoen testua. Hori bera eskaintzen da, gaztelaniaz eta euskaraz, argitaraldia 2006. urteko martxoaren 31n itxita, hizkuntza bietan ere ematen direla aurkibide analitikoak, testu juridiko elebidunen bilduma honetan ohikoa den legez.

1978. urteko Konstituzioak gaztelaniaren eta beste hizkuntzen arteko ofizialkidetasun araubide berria ekarri du, eta, horren

Prozedura
Kriminalaren
Legea

Ley de
Enjuiciamiento
Criminal

Lege-testuak
Textos legales

harira, euskara ere Justizia Administrazioan erabili ahal izatea. Giro berri baten atarian, beraz, euskara, auzitegi kriminaletako kontuetan. Horren lagungarri, zer esanik ez, auzitegi horien jarduera arautzen duen legearen euskarazko testua. Argitalpen honen helburua, beraz, horretara dator: ofizialkidetasun horren barruan, zigor-prozesuaren legeria biltzea, Espainiako estatuaren euskal lurraldeetan indarrean dagoena. Agerikoa denez, Frantziako estatuaren euskal herrialdeak barruratzen ez baditu ere, laguntzaile eta akuilari izan daiteke etorkizunean euskarak ere bere erabilera izan dezan, Europako esparru judizial batean.

***Aiora Aristondo, Gotzon Lobera,
Andrés Urrutia eta Esther Urrutia***

LEGISLACIÓN CONCURSAL / KONKURTSO-LEGERIA

Aurkibidea: Atarikoa. §1. 22/2003 Konkurtso Legea, uztailaren 9koa: Zioen azalpena; Lehenengo titulua. Konkurtsoa adieraztea; II. titulua. Konkurtso-administrazioa; III. titulua. Konkurtso-adierazpenaren ondoreak; IV. titulua. Konkurtso-administrazioaren txostena eta konkurtsoko masa aktiboa eta pasiboa zehaztea; V. titulua. Hitzarmen- edo likidazio-faseak; VI. titulua. Konkurtsoa kalifikatzea; VII. titulua. Konkurtsoa amaitu eta berriro irekitzea; VIII. titulua. Prozesuko arau orokorrak eta errekursoen sistema; IX. titulua. Nazioarteko zuzenbide pribatuko arauak; Xedapen gehigarriak; Xedapen iragankorrak; Xedapen indargabetzailea; Azken xedapenak. §2. Konkurtsoa Eraldatzeko 8/2003 Lege Organikoa, uztailaren 9koa, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldarazten duena: Zioen azalpena; 1. artikulua. Konkurtsoaren ondoreak, konkurtsopekoaren oinarritzko eskubideen gain; 2. artikulua. Botere Judizialaren Lege Organikoa aldaraztea; Xedapen iragankorra; Xedapen indargabetzailea; Azken xedapenak. Aurkibide analitikoak: gaztelania-euskara; euskara-gaztelania.

Espainiako zuzenbidearen oinarritzko prozesu-lege biak argitaratu ostean, alegia, Prozedura Zibilaren Legea eta Prozedura Kriminalaren Legea, eta sistema hori osatzeko, oraingoan beste bi aurkezten dira, hauek ere bertsio elebidunean, euskaraz eta gaztelaniaz: Konkurtso Legea (uztailaren 9ko 22/2003

**Konkurts-
-legeria**

**Legislación
concurzal**

**Legge-testuak
Textos legales**

Legea) eta Konkurtsoa Eraldatzekoa (uztailaren 9ko 8/2003 Lege Organikoa, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldarazten duena); testuok kontuzko aldaketak sartu dituzte Espainiako antolamendu juridikoaren prozesu- eta merkataritza-alorretan.

Merkataritza zuzenbidearen barruan Konkurtso-zuzenbidea da espezializaziorik gehien behar duen adarra. Horren konplexutasuna eta hedadura kontuan izanda, benazko hausnarketa egin behar izan da euskaraz erabili beharreko terminologiaren inguruan, helburu zehatz batekin moldatu eta egokituta: euskaraz berezko testua izatea, irakurlearentzat azkarra eta erabiltzeko erraza dena, baina gaztelaniazko testuaren idazkera eta zentzuari bizkar ematen ez diena.

***Aiora Aristondo, Eba Gaminde,
Gotzon Lobera eta Andrés Urrutia***

AKADEMIAREN ALBISTEAK

Albiste hauek bigarren eta hirugarren hiruhilekoei buruzkoak dira. Izan ere, aurretiazko aldizkari arruntak, hamargarrenak alegia, ekaineko data du eta horrek jasotzen ditu urtarrilaren 19an “*Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunari buruzko euskal legea*” izeneko jardunaldiaren barruan egindako hitzaldiak.

Aipatu epealdi horretan, zuzendaritzako batzak bilerak egin ditu ekainaren 13an eta irailaren 25ean. Hori gorabehera, hainbat bilera izan dituzte batzako kide batzuek, eguneroko arazoei konponbidea eman ahal izateko.

AVD-ZEAren kultur ibilbideaz denaz bezainbatean, zenbait ekitaldi burutu dira, besteak beste, hurrengoak:

1.- Maiatzaren 4an, arratsaldez, Erregistratzaileen Elkargoko Egoitzaren Ekitaldi Aretoan, mahai-ingurua egin zen “Foru-saka” eguneratzeko ustezko proposamenei buruz. Erregistratzaileen elkargoak doan laga zuen horretarako aretoa, eta mahaikide izan zen bertan gure lehendakaria, Adrian Celaya jauna. Parte hartu zuten, orobat, gai horretako beste aditu batzuek, hala nola, Ángel Rodrigo Hidalgo jabetza-erregistratzaile jaunak; Juan Ramón Manzano notario jaunak; Lorenzo Goikoetxea jaunak, Deustuko Unibertsitateko irakasleak; eta Gonzalo Vidorreta abokatu jaunak. Horiek guztiek oinarrizko ideiak azaldu zituzten, eta ideia horiek aintzakotzat hartu beharrekoak dira, erakunde juridiko horren legealdarazpenari ekin aurretik. Bertaratutakoek ere ohar egokiak egin zituzten gaiaren alde zehatz batzuei buruz. Bukatzeko, luncha egin

zen, eta, lunch horretan zehar ere, parte-hartzaileek iritziak trukatu zituzten elkarrekin.

2.- Uztailaren bukaeran, abisua luzatu zaie bazkideei, jakin dezaten udazkenean “Jardunaldiak” egingo direla egun interesgarriri diren gai batzuei buruz. Arian ere, jardunaldi horietatik aurrenekoa egingo da, urriaren 24an, akademiaren egoitzan, “Oinordekoa izendatzeko askatasunari buruzko jardunaldia” izenburuarekin, gure lehendakariorde den Andres Urrutia notario jaunaren zuzendaritzapean.

3.- Zuzendaritzako batzaren azken bileran, jarraikoa ageriarazi zen:

a) Zuzenbide publikoko atalak “Bigarren jardunaldia: Estatutuen eraldaketak eta Konstituzioaren eraldaketa” egin zuela azaroaren 9an, Ertzilla Hotelaren Pagasarri Aretoan.

b) Zuzenbide pribatuko atalak, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkuneko EHFZZ Ikertzeko Taldearekin batera, “Euskal Herriko Foru Zuzenbide zibilari buruzko bosgarren jardunaldi praktikoa” egin zuela azaroaren 10ean.

4.- Hasierako elkarrizketak izan dira, AVD-ZEAK Eusko Legebiltzararekin lankidetzara eragingarria izan dezan, 3/1992 Legea eguneratzeko helburuarekin.

5.- Zuzendaritzako batzak azken bileran aitortu du batza horren osiera berriztatzea nahitaezkoa dela, hiru urte igaro baitira hura aukeratu zenetik. Hauteskundeak hurrengo biltzar orokorarekin batera egingo dira, 2007. urteko otsailean gutxi gorabehera.

6.- Hurrengo hiruhilekoan, “*Clásicos de Derecho Vasco – Euskal Zuzenbidearen Klasikoak*” deituriko bildumaren barruan, 5 eta 6. zenbakiekin, berriro argitaratuko dira honako lan hauek: bateko, Carlos de la Plaza jaunaren “*Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya, dentro y fuera del Señorío de aquél nombre*”, gure lehendakariak, Adrian Celaya jaunak, horren sarrera egingo duela; eta,

besteko, Diego Angulo Laguna jaunaren “*Derecho Privado de Vizcaya*”, José María Arriola notario jaunak sarrera eta aurkezpena egingo dituela.

7.- Inprimategian dago Adrian Celaya jaunaren “*Así nació Bizkaia (de Arrigorriaga al fundador de Bilbao)*”; lan horrek BBK-ren laguntza jaso du.

8.- Bizkaiko Foru Aldundiak, aurretiaz hitzartutakoaren arabera, urteko diru-laguntzaren erdia helarazi digu. Laguntasun hori azpimarratzea egoki gertatzen da, gure helburuak erdiesteko nahitaezko eta ezinbestekoa baita.

Xabier Oleaga

PUBLICACIONES DE LA ACADEMIA VASCA DE DERECHO

- Boletín 0, Junio de 2003. Contiene los Estatutos de la Academia.
- Boletín 1, Noviembre de 2003, 72 págs.
- Boletín 2, Junio de 2004, 88 págs.
- Boletín 3, Septiembre de 2004, 100 págs.
- Boletín 4, Diciembre de 2004, 110 págs.
- Boletín 5, Marzo de 2005, 120 págs.
- Boletín 7, Septiembre de 2005, 152 págs.
- Boletín 8, Diciembre de 2005, 176 págs.
- Boletín 9, Marzo de 2006, 184 págs.
- Boletín 10, Diciembre de 2006, 188 págs.
- Boletín extraordinario 1, Diciembre de 2004. Jornadas sobre el poder testatorio y el artículo 831 del Código Civil.
- Boletín extraordinario 2, Junio de 2006. La implantación del Estatuto de la Sociedad Cooperativa Europea.
- Boletín extraordinario 3, Diciembre de 2006. Ley Vasca para la igualdad de mujeres y hombres.

OTRAS PUBLICACIONES DE LA ACADEMIA VASCA DE DERECHO

- **SEÑORES DE BIZKAIA**, De Don Diego López de Haro V a Isabel la Católica. *Adrián Celaya Ibarra*. 500 págs.
- **ASÍ NACIÓ BIZKAIA**, De Arrigorriaga al Fundador de Bilbao. *Adrián Celaya Ibarra*. 344 págs.

COLECCIÓN CLÁSICOS DE DERECHO VASCO

REPRODUCCIÓN EN FACSIMIL

1. Derecho Civil de Vizcaya de Rodrigo Jado y Ventades, reproducción de la segunda edición publicada en 1923, con introducción de Adrián Celaya Ibarra, 675 págs.
2. Actas de las sesiones celebradas por la Comisión Especial de Codificación de Vizcaya (1899-1900) con una introducción de Andrés Urrutia Badiola, 280 págs.
3. La Troncalidad en el Fuero de Vizcaya (1898) con una introducción de Javier Chalbaud, 160 págs.
4. Estudios Jurídicos del Fuero de Vizcaya (1918) con una introducción de José Miguel Gorostiza Vicente, 382 págs.
5. Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya (1899), dos tomos en un volumen, con una introducción de Adrián Celaya Ibarra, 580 págs.
6. Derecho Privado de Vizcaya , de Diego Angulo Laguna (1903) con una introducción de José M^a Arriola Arana, 304 págs.

PRÓXIMAS PUBLICACIONES

7. El Derecho Civil de Bizkaia, antes del Código Civil, presentado por Adrián Celaya Ibarra, 232 págs.

BOLETIN DE INSCRIPCION
A LA ACADEMIA VASCA DE DERECHO

Don/Doña
Que ejerce la carrera de Derecho como
O, en su caso, es Licenciado o Doctor, no ejerciente,
domiciliado en (población).....(código postal).....
(calle).....nº.....(piso).....

Informado de la naturaleza y fines de la ACADEMIA VASCA DE DERECHO,
desea inscribirse como socio activo de dicha Asociación, obligándose al cumpli-
miento de los deberes sociales y al abono de la cuota anual de 50 Euros.

Firma

Derecho Público
Derecho Privado
Derecho Financiero y Tributario

..... indicar otra Sección que se considere de interés.

Al Banco / Caja de Ahorros
Muy Srs. Míos, les ruego atiendan al pago de los recibos por cuota anual de ins-
cripción en la ACADEMIA VASCA DE DERECHO, con cargo a mi cuenta (por
favor, cumplimentar los 20 dígitos):

CCC _ _ _ _ _

Firma

Remitir este Boletín a:
ACADEMIA VASCA DE DERECHO,
Alameda Recalde, 8 - 1º dcha.
Teléfono 94 425 57 15 - Fax. 94 424 64 99
e-mail: secretaria@avd-zea.com
www.avd-zea.com
48009 BILBAO

IZENA EMATEKO ORRIA

ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIARI

Ni,
jaun/andrea, zuzenbidearen jarduean ari niz,
gisa; edo, hala denean, zuzenbideko lizentziaduna edo doktorea naiz,
jarduean ez dagoena.
(ea)n bizi naiz(..... posta-kodea),
(kaleko).....zenbakiaren.....
.....(solairuan)

Jakin badakit zein diren ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIAK dituen iza-
era etahelburuak. Ondorenez, elkarte horren bazkide aktibo legez izena eman
nahi dut, eta neure gain hartzen dut betebeharra, bazkide-eginbeharrak betetzeko
eta urtero-urtero 50 euroko kuota ordaintzeko.

Sinadura

Zuzenbide publikoa
Zuzenbide pribatua
Finantza- eta zerga-zuzenbidea

..... beste edozein atal interesgarri aipa daiteke.

.....izeneko bankuari/aurrezki kutzari
Jaun-andre horiek: ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIako bazkide egin
naizenez gero, arren eskatzen dizuet izen-emate horren ondoriozko urteko kuotaren
ordainagiriak ordaintzea, nire kontu honen pentzudan (mesedez, 20 digituak bete):

Kontu-korrontea _ _ _ _ _

Sinadura

Orri hau helbide honetara bidali:
ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA,
Errekalde zumardia 8, - lehenengoa, eskuina.
Telefonoa: 94 425 57 15 - Faxa: 94 424 64 99
Helbide elektronikoa: secretaria@avd-zea.com
www.avd-zea.com
48009 BILBO

